TOLOSAKO UDALA

2022IPLE0002

Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

74d261f08e06d7ba9ec5f37a1a00890e711b4d45f54f042e73dd88adcb9b7e49

Lotura honetan dago: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

# TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO OTSAILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

## 2022.02.23

Tolosako Udaletxean, 2022ko otsailaren hogeita hiruan, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**
Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

**Parte hartu duten zinegotziak:**
Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Jose Mª Villanueva Telleria (PSE-EE)

**Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**
Paulino Alonso Eraso

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

**Gai-zerrenda**

1. Akta hau onartzea:
   2022ko urtarrilaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programa: hasierako onarpena ematea 2022. urteko plantilla organikoari eta lanpostu zerrendari.
3. Onartzea hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa.
4. Onartzea 2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoren aldaketa.
5. Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua adjudikatzea.
6. Onartzea Tolosako Udalaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko lankidetza-hitzarmena, errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko 111 etxebizitza eraikitzeko Tolosako HAPOko «20.1-Amarotz paper-fabrika» hirigintza eremuko P-1 lursailean.
7. Berrestea 2022/239 Alkatetza Dekretua, zeinaren bidez, Udalak legezko ordezkaritza ematen duen Eulen SAk Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan hasitako 67/2022 prozedura arruntean, KEAOren ebazpenaren aurka, zeinak udal eraikinak garbitzeko kontratua esleitzeko erabakiaren aurkako errekurtsoa ezetsi zuen.
8. Berrestea 2022/403 Dekretua, zeinaren bidez Kirolzer SL merkataritza-sozietateari sarbidea ematen zaion, dagokion prozedura-unean, Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralari buruzko espedientea kontsultatzeko.
9. Berrestea Alkatetzaren 2022/129 Dekretua zuzentzen duen 2022/402 Alkatetza Dekretua. Dekretu hartan, alkate-lehendakariak kontratazio-organo gisa zituen eskumen guztiak Antolaketa Lan-Esparruko zinegotziaren esku utzi zituen, eta kontratazio-mahai iraunkorraren osaera aldatu zuen, alkate-lehendakariaren eskumeneko kontratazioetan laguntzeko organo gisa.
10. Onartzea organo kolegiatuetako ordezkarien izendapenak.
11. Berri ematea EAJ/PNV udal taldeko kide eta ordezkoen aldaketa batzorde informatibo eta Berdintasun Kontseiluan.
12. Alkatetza dekretu hauen hauen berri ematea:
    - 2022/151: Alkateordeen izendapenak.
    - 2022/152: Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena.
    - 2022/281: Zinegotzi delegatuen izendapena eta eskumenen delegazioak
13. Behin betiko onartu izanaren berri ematea: Kiroletako ordenantza espezifikoaren dirulaguntza. 1. eta 2. eranskinen oinarri berriak.
14. Berri ematea: 1/2022 kreditu aldaketaren espedientea
15. Galderak eta eskaerak.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **AKTA HAU ONARTZEA:**
   **2022KO URTARRILAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. **GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA: HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOARI ETA LANPOSTU ZERRENDARI.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko otsailaren 16ko irizpena**

**AURREKARIAK**

**Lehena**.- Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2018ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, *Tolosako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana) behin betiko izaeraz onartu zuen. Bertan,* udal langileen aldi baterakotasun tasa murriztea eta enplegua egonkortzea zuen helburu gisa. Neurri horiek 2017rako eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan oinarrituta egin ziren, zeinek egonkortze eta kontsolidazio prozesuak egiteko aukera ematen zieten toki-administrazioei.

**Bigarrena**.- Arrazionalizazio programa horren ondorioz, 2018., 2019. eta 2020. urteetan enplegu publikoko eskaintzak onartu ziren aurreikuspen hauek aurrera eramateko.

**Hirugarrena**.- Dena den, hasieran uztailaren 6ko 14/2021 Errege Lege Dekretuak, eta, ondoren, abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, egonkortze eta kontsolidazio prozesu berriak martxan jartzeko eta salbuespenezko deialdien bidez hainbat lanpostu egonkortzeko xedapenak argitaratu dituzte.

20/2021 Legearen ondorioz garatu daitezkeen hautaketa jardunbideak bideratu ahal izateko eta Udalak prozesu hauetan sar ditzakeen aldi baterako baliabideak aztertzeko, legearen 6. eta 8. xedapen gehigarriek bakante dauden «plaza» kontzeptuaren inguruko informazioa aztertzea eskatzen du. Honelaxe dio zehazki araudiak:

*«Disposición adicional **sexta**. Convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración. Las Administraciones Públicas convocarán, con carácter excepcional y de acuerdo con lo previsto en el artículo 61.6 y 7 del TREBEP, por el sistema de concurso, aquellas **plazas** que, reuniendo los requisitos establecidos en el artículo 2.1, hubieran estado ocupadas con carácter temporal de forma ininterrumpida con anterioridad a 1 de enero de 2016.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

.../...

*Disposición adicional **octava**. Identificación de las **plazas** a incluir en las convocatorias de concurso. Adicionalmente, los procesos de estabilización contenidos en la disposición adicional sexta incluirán en sus convocatorias las **plazas** vacantes de naturaleza estructural ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta naturaleza, anterior al 1 de enero de 2016».*

**Laugarrena**.- Hortaz, Udalak onartu beharra du 2022. urterako plantilla eta lanpostu zerrenda, izan ere, ezinbesteko premisa da bi instrumentuak onartuak egotea, ondoren, 20/2021 Legean ezarritako xedapenen harira, plantillaren azterketa egin ostean, proposamen orokor bat egin ahal izateko.

Zentzu honetan, plantilla organikoan eta lanpostu zerrendan aldaketak eta egokitzapenak bideratu ahal izateko, legeak administrazio publikoen eskura jartzen duen instrumentu egokiena Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko programa litzateke, izan ere, instrumentu hori dela-eta, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 69. artikuluan deskribatzen ditu har daitezkeen zenbait neurri, besteen artean, honako hauek: lanpostuen egitura aldatzeko aurreikuspenak egitea; konkurtsoen deialdia langilego zehatz batzuei bideratzea; edo lan eskaintza publiko bidez inkorporatu daitezkeen giza baliabideei buruzko neurriak hartzea.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### I. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMAK: ARAUBIDE JURIDIKOA ETA PRINTZIPIO NAGUSIAK

Administrazio publiko bateko giza baliabideak planifikatzerakoan, administrazioak bere gain hartuta duen zerbitzu publikoa modu eraginkorrenean ematea bilatu eta lortu behar du, betiere, antolamendu juridikoa zehatz-mehatz errespetatuz, eta beraz, une bakoitzean indarrean dauden legeetan aurreikusitako teknikak eta neurriak erabiliz. Izan ere, indarrean dagoen Konstituzioak 103. artikuluan xedaturikoaren arabera, administrazio publikoak objektibotasunez zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta jarduera-printzipio du, besteak beste, eraginkortasuna, legeari eta zuzenbideari osotara men eginik. Bestalde, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak (EPOE hemendik aurrera), honela dio zioen azalpenean:
*«Administrazioek eta era guztietako erakunde publikoek antolamendurako osagaiak izan behar dituzte, batetik, herritarrak administrazio ona izateko duen eskubidea benetan baliatzeko modukoa izan dadin, joera hori bera baitago europar esparru osoan, eta, bestetik, ekonomia nahiz gizartea garatzen lagun dezan. Osagai horien artean, Administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak dira, zalantzarik gabe, garrantzitsuenak».*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

…

*«Horretarako, funtzio publikoari buruzko legeriak arau-esparrua sortu behar du, batetik, ondo bermatuta gera dadin langileen hautaketa eta karrera irizpide konstituzionalen arabera beteko direla, alegia, merezimendua eta gaitasuna oinarri hartuta, eta, bestetik, bidezko orekan ezar ditzan enplegatu publikoen eskubideak eta erantzukizunak».*

Testu horrekin lotuta, EPOEko 69. artikuluak honela xedatzen ditu giza baliabideak planifikatzeko helburuak eta tresnak:

***«Giza baliabideen plangintza***
***69. artikulua. Plangintzaren helburuak eta tresnak.***

*1. Administrazio publikoetako giza baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini.*
*2. Administrazio publikoek giza baliabideak antolatzeko planak onartu ahal izango dituzte, plan horien barruan, besteak beste, honako neurri hauek hartuta:*

*a) Dauden eta behar diren langileen inguruko analisia, aintzakotzat hartuta bai langile kopurua, bai lanbide-profilak edo prestakuntza-maila.*
*b) Lana antolatzeko erabiliko diren sistemei buruzko aurreikuspenak, eta lanpostuen egituretan egingo diren aldaketak.*
*c) Mugigarritasun-neurriak; esate baterako, kanpoko langileak sartzeko aukera etenda utz daiteke eremu jakin batzuetan edo lanpostuak betetzeko lehiaketa-deialdi batzuk eremu jakin batzuetako langileentzat bakarrik jarri.*
*d) Barne-sustapeneko eta langile-prestakuntzako neurriak, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, estatutu honen titulu honetako III. kapituluan ezarritakoari jarraituz.*
*e) Giza baliabide gehiago sartzeko neurriak, enplegu publikoaren eskaintzaren bitartez, hurrengo artikuluan ezarritakoarekin bat.*

*3. Administrazio publiko bakoitzak bere giza baliabideak planifikatuko ditu, bakoitzean aplikatu beharreko arauetan ezarritako sistemen arabera».*

Funtzio publikoa eraberritzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen Hogeita Batgarren Xedapen Gehigarriak, indarrean jarraitzen duenak, honela dio hitzez hitz:

*«Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera, enplegu-planez gain,giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk ere hartu ahal izango dituzte, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez. Programa horietan, Lege honen 18. artikuluaren 2. eta 3. ataletan*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*aipatutako neurri guztiak edo batzuk sartu ahal izango dira, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak ere».*

Bestalde, Estatuko administrazioaren arloan, 364/1995 Errege Dekretuak, martxoaren 10ekoak, behin betiko bultzada eman zuen era honetako tresnen eraginkortasuna aitortzean, arau horrek ezartzen baitu giza baliabideen plan integralek zehaztuko dituztela pertsonalaren arloan lortu beharreko helburuak, helburu horiek betetzeko egokitzat jotzen diren giza baliabideen kopurua eta egitura, hasierako langile-kopurua eraldatzeko behar diren neurriak eta horretarako egin beharreko jarduketak, batez ere, mugikortasunari, prestakuntzari eta promozioari dagokienez.

Oinarrizko erregulazioa abiapuntutzat hartuta, indarrean jarri da garapeneko araudi zabal bat giza baliabideak arrazionalki kudeatzeko gaian. Araudi horretan, besteak beste, xedatzen da administrazio publikoek enplegu-planak lantzeko duten ahala. Administrazio publikoek, beren burua antolatzeko ahalak baliatuz eta langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, giza baliabideak arrazionalki erabiltzeko programak ezar ditzakete, bai langile funtzionarioentzat eta bai lan-kontratukoentzat ere, guztiek izan dezaten, bakoitzaren eragin-eremuaren barruan, giza baliabideak hobeto erabiltzeko abian jarritako ekimenen onura. Guztia, betiere, aurrekontuek ematen dituzten aukeren barruan, eta gobernu organoek pertsonal politikarako ezarritako gidalerroen bidetik.

Alde horretatik, 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 22. artikuluan arautzen ditu Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak:

*«1.– Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organuek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.*
*2.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, aldez aurretik jubilatu daitezkenentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke.*
*3.– Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan.*
*4.– Euren aplikazio-arautegi berezia beteko da enplegu planetan.*
*5.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek daragiten langileak beste Administrazio Publiko batzuetara berratxiki daitezke. Era eta modua Administrazioen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.*
*6.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, Sail, Erakunde edo administrazio-alor bati edo hainbati eragin diezaiekete. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen Sailak onartuko ditu programok, ogasun alorrean eskuduntza duen Sailak emandako aldeko txostena beharko*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*duela aldez aurretik. Sail bati baino ez badiote eragiten, aipatutako Sail horien aldez aurretiko aldeko txostena izan ondoren, Sail horrek onartuko ditu.*
*Programok gertatzeko ekimena, eragindako Sail edo Erakundearen esku geldituko da edo, elkarlanean, funtzio publikoaren eta ogasunaren alorretan eskuduntza duten Sailen esku. Azken egoera honetan, aplika dakien Sailen txostena beharko da».*

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren xedapenak garatzeko araudi autonomikorik ezean, aplikatzekoa izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak emandako 190/2004 Dekretuak, hain zuzen ere, dekretu horren IX. Kapituluak, non 41. artikuluan eta hurrengoetan arautzen dituen euskal administrazio publikoetako giza baliabideak arrazionalizatzeko programak, programa horiek barne har ditzaketen neurriak eta onarpena emateko prozedurak.
Dekretuaren 41. artikuluak honela dio:
*«1.—Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organoek langileei buruzko politikarako finkatuko dituzten jokabideen arabera.*

*2.—Zerbitzu publikoa ezinbestekoak eta aproposak diren giza baliabideekin prestatzeko antolakuntza-administratibo egokia lortzeko xedez, arrazionalizatzeko programek euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduketok eragina edo ondorioak izatea, besteak beste, honako gaietan: langileen plantillen tamainan eta beharrizanen plangintzan, lanpostuen sailkapenean, ordainsarietan dagozkien ondorioekin, lanpostuen hautaketan baita betetzean ere, langileen sustapenean, maila-igoeran eta prestakuntzan».*

Ondoren, Dekretuaren 42. artikuluak xedatzen ditu giza baliabideak arrazionalizatzeko programek har ditzaketen neurriak:
*«a) Antolakuntza-egiturak nahiz lanpostuak aldatzeko aurreikuspenak.*
*b) Eraginpeko alorrean kanpoko langileak sartzea bertan behera uztea, sartze hori enplegu eskaintzaren bidez nahiz mugikortasun prozeduraren bidez gertatu bada.*
*c) Alor jakinetako langileei mugaturiko lehiaketak egitea lanpostuak betetzeko.*
*d) Langileen prestakuntza eta gaitasunerako plangintzak langileak berriro koka daitezen laguntzeko asmoz.*
*e) Barne sustapenerako neurri bereziak.*
*f) Langileen berrizendapena.*
*g) Lanaldi partzialeko zerbitzuan jardutea.*
*h) Beste herri administrazio batzuekin hitzarmenak sinatzea langileak berrizendatzeko xedez.*
*i)* Borondatezko lan-utzialdia, aurreraturiko erretiroa, jarduneko zerbitzua uztea edo jarduneko zerbitzuan behin betiko baja hartzea sustatzeko pizgarriak.
*j) Arrazionalizatzeko programaren helburuei dagozkien bestelako neurriak».*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

**II. TOKIKO ENTITATEEK BEREN BURUA ANTOLATZEKO DUTEN AHALA: LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILLA.**

**Lehena**.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, «Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua». Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

**Bigarrena**.- 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu lanpostuen zerrendak, honela:

- Administrazio publikoetako lanpostuen zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

**Hirugarrena**.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, lege honen 90.1 artikuluak xedatutakoaren arabera, toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Aurrekoarekin bat etorrita, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legearen 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela.
TATBen 126. artikuluak 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, eta zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura, aurrerago zehaztuko dena. Halaber, plantillak handitzeko supostuak ere aurreikusten ditu, besteen artean, gastuaren gehikuntza konpentsatuta geratzen den kasuan edo derrigorrez eman behar diren zerbitzuen kasuan: honelaxe dio TATBen 126.2 artikuluak:

> *«2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:*
> *a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.*
> *b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales».*

**Laugarrena**.- Abenduaren 28ko 22/2021 Legeak, 2022. urterako Estatutako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, 19.2 artikuluan adierazten du 2022. urterako ordainsariek ezingo dutela % 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31rekiko, bai pertsonal baliabideei, bai antzinatasunari dagokionez.

Dena den, xedapen horrek ez du baimentzen udal plantilla handitzea, baina, bai ordea, bere horretan mantentzea, lanpostuaren ezaugarriak aldatuaz, udalak dituen behar berrietarako egokitzeko; horregatik, ondoren (aldaketa proposamenean) aipatuko den moduan bi plaza amortizatu (Trafiko koordinatzailea eta kirol monitorea) eta beste bi sortzeko (Administrazioaren Modernizaziorako AOTa eta Giza Baliabideetako administraria) proposamena egingo da, pertsonal baliabideen homogeneitatea mantentzeko helburuarekin.

Azkenik, 2022. urteko aurrekontu xedapenetatik kanpo geratuko lirateke diru bilketa exekutiborako sortu nahi den kudeaketa zuzenerako plazen sorrera (erdi mailako teknikari bat eta bi administrari), izan ere, 2022. urterako aurrekontu legeak kudeaketa zuzenean emateko aurreikusten diren zerbitzu publikoak ez ditu kontuan hartuko erreposizio tasa zein baliabideen zenbaketari dagokionez.

## ALDAKETA PROPOSAMENAK

Esan bezala, administrazio publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa instrumentu bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxieneko betebehar batzuen baitan. Aipaturiko instrumentu hori plantillla organikoa eta lanpostuen zerrenda da eta, bertan, Tolosako Udalak duen plantilla eta lanpostu bakoitzak dituen eduki eta ezaugarriak azaltzen dira.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

2022. urterako aldaketa eta egokitzapen proposamen batzuk egiten dira, kontuan harturik lanpostu zerrendak aldaketa nabarmenak edukiko dituela behin lanpostuen balorazioa onartzen denean. Hala, hauek dira proposatzen diren aldaketa nagusiak:

I. Plaza eta lanpostuen sorrera

1.- Administrazio orokorreko teknikari plaza eta modernizazio administratiborako AOTa lanpostua: Idazkaritzan administrazioaren modernizazio eta prozeduren jarraipenerako administrazio orokorreko teknikariaren figura sortzea proposatzen da; besteak beste, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretutik eratortzen diren sektore publikoko funtzionamendurako bide elektronikoen erabilera eta eguneraketa bideratu ahal izateko.

2.- Administrari plaza eta giza baliabideetako administrari lanpostua: Giza Baliabideetako azpisailean, administrari lanpostu baten sorrera egitea proposatzen da, Udalaren barne antolamendu lanak burutzeko zein lan eskaintza publikoetatik eta langileen kudeaketatik eratortzen diren izapide administratiboak burutzeko. Kasu honetan, plaza honen sorrera proposatzen da, sail honetarako onartu zen programa bidezko izendapena datorren urriaren 2an amaitzen delako eta data honetatik aurrera, plaza eta lanpostua sortua behar duelako zerbitzua eman ahal izateko; aldiz, indarrean dauden beste hainbat programa 2023. urte hasieran amaituko dira, horregatik lehentasuna Giza Baliabideetan plaza sortzeari ematea proposatzen da.

Lehen bi puntu horietan aipatzen diren sorrerak gero adieraziko diren beste bi plazaren amortizazioarekin orekatuko dira.

3.- Diru-bilketa exekutiboko zerbitzua: erdi mailako teknikari plaza edo goi mailako teknikari plaza (sailkatzeke geratzen dena) eta bi administrari plaza, eta erdi mailako diru-bilketa teknikari lanpostua eta diru-bilketako administrarien bi lanpostu sortzea proposatzen da. Sail honetako zerbitzua kanpo enpresa batekin eman beharrean, berezko baliabideekin kudeaketa zuzenaren bidez emateko proposamena egin da; horretarako, erdi mailako teknikari bat eta bi administrari lanpostu sortuko dira, zerbitzua funtzionario izaera duten langileen bidez emateko. Aldaketa proposamen honen oinarri juridikoa auzitegi nagusiek emandako hainbat epaitan legoke; bertan, diru-bilketa funtzioak kudeaketa zuzenaren bidez eman behar direla xedatzen dute, horien artean Euskadiko Auzitegi Nagusiaren 2020ko apirilaren 24ko epaia, 1892/2020 zenbakia duena (Oiartzungo Udala); 2015eko abenduaren 15eko epaia, 519/2015 zenbakia duena (Amurrioko udala); edo 2016ko urtarrilaren 18ko epaia, 183/2016 zenbakia duena (Legutioko Udala).

Lanpostu horien funtzioak eranskin moduan doaz proposamen honekin batera (III. eranskina).

II. Plaza eta lanpostuen amortizazioa

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Arestian aipatu diren bi plaza eta lanpostuen sorrera (Administrazio Orokorreko teknikaria eta administraria) burutu ahal izateko, 2021. urtean jubilatu direnen bi lanpostu amortizatzea proposatzen da, giza baliabideen kopurua orekatuta mantentzeko helburuarekin, alegia:

- Kirol monitore plaza eta lanpostua amortizatu eta administrari plaza eta lanpostua sortuko litzateke.
- Trafiko koordinatzaile plaza eta lanpostua amortizatu eta modernizazio administratiborako AOT plaza sortuko litzateke.

III. Plaza eta lanpostuen aldaketak eta zuzenketak

Atal honetan, plantilla organikoan eta lanpostu zerrendan aztertu diren aldaketa eta zuzenketa tekniko batzuk proposatzen dira; aldaketa horien oinarri juridikoa apirilaren 18ko TATBren 167. artikulutik aurrera dauden xedapenetan islatzen da, bertan plantilla organikoek eduki behar dituzten sailkapen moduak arautzen baititu. Honako hau da proposamena:

1.- Liburuzain plaza Administrazio Orokorreko Eskalan zegoen eta Administrari Bereziko Eskalan egon beharko luke: lanpostu hori betetzeko berariazko titulazio berezia behar da, horregatik proposatzen da aldaketa.

2.- Kultura, Gazteria eta Festetako zerbitzuburua: plaza hau Administrazio Bereziko Eskalan zegoen, baina Administrazio Orokorreko Eskalan egotea proposatzen da, izan ere, ez da titulazio edo ofizio berezirik eskatzen mota honetako lanpostu bat betetzeko.

3.- Ur eta Argiko ofiziala: kasu honetan dotazio bat funtzionarioen atalean zegoen eta bestea laboralen atalean. BI lanpostuak izaera laborala izatea proposatzen da, ofizio bati lotutako lanpostuak baitira, eta legeak aurreikusten du izaera laborala eduki ahal izango dutela.

4.- Eskoletako atezainen bi plaza: bi lanpostu horiek Administrazio Bereziko Eskalan daude eta Administrazio Orokorreko Eskalara igarotzea proposatzen da, izan ere, atezainaren funtzioek eta plazara sartzeko betebeharrak ez dute baldintza edo titulazio berezirik eskatzen, horregatik, Administrazio Orokorreko Eskalan egon beharko lukete.

5.- Administrari plaza bat, Euskara eta Hezkuntza Sailari atxikita dagoena, laboralen plantillan dago, baina mota horretako lanpostu batek funtzionario izaera izan behar du; horregatik, funtzionarioen plantillan sartuko da.

6.- Beste administrari plaza bat, Kultura Azpisailean dagoena eta Musika Eskolako eta Artxiboko funtzioak egiten dituena, aurreko puntuan aipatu den egoera

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

berean legoke, hau da, laboralen plantillan dago, baina mota honetako lanpostu batek funtzionario izaera izan behar du, horregatik, funtzionarioen plantillan sartuko da.

7.- Irakasle deituriko 7 plaza daude laboralen plantillan, eta euskaltegiko irakasle izena ematea proposatzen da, plantillan dauden beste irakasle batzuekin ez nahasteko.

8.- Udaltzain lanpostu bat: Udaleko lanpostu zerrendan laboral gisa dago eta, udaltzainek derrigorrez funtzionarioak izan behar dutenez, plaza hau iraungitze egoeran jarriko da, eta funtzionario plaza berri bat sortuko da, lehena iraungitzen denean betetzeko.

9.- Musika Eskola: lanpostu zerrendan, irakasleen Egoera atalean, akats batzuk sumatu dira eta horiek zuzendu egin dira (biolina, biola, saxofoia, flauta eta dultzainako irakasleen kasuan).

## ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 37.1 artikuluaren c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, arrazionalizazio programa hau, plantilla eta lanpostu zerrendarekin batera, ordezkari sindikalekin negoziatu behar da.

## ONARTZEKO PROZEDURA ETA ORGANO ESKUDUNA

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.i) artikuluan ezarritakoaren arabera. Jardunbideari dagokionez, izapide hauek bete behar dira:

- Antolakuntzako Batzorde Informatiboak diktaminatu behar du programari dagokion irizpena.
- Programak Udalbatzaren osoko bilkuraren behin-behineko onespena behar du, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 90. artikuluan, eta 781/1986 Errege Dekretu Legegileak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak, 126. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Espedientea jendaurrean jarriko da 15 lanegunez, interesdunek aztertu eta iradokizunak edo alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. Iragarkiak Udaletxeko iragarki taulan, udal web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
- Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, programa behin betiko onartutzat emango da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratuko da.
- Alegaziorik aurkezten bada, Batzorde Informatiboak diktaminatuko ditu eta Udalbatzaren osoko bilkurak ebatziko ditu. Ondoren, programaren behin betiko

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

onespenari buruzko erabakia hartuko du organo horrek.

Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko otsailaren 16an egindako bilkuran, gaia aztertu zuen eta bozkatu. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria, eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**Lehena**.- Hasierako onarpena ematea Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2022. urterako Programari, Plantilla Organikoan ( I. eranskina) eta Lanpostu Zerrendan (II. eranskina) honako aldaketa hauek sartuta:

I. Plaza eta lanpostuen **sorrera**

1.- Administrazio Orokorreko teknikari plaza, modernizazio administratiborako AOT lanpostua izango dena.

2.- Administrari plaza, giza baliabideetako administrari lanpostua izango dena.

3.- Diru-bilketa exekutiboko zerbitzua: erdi mailako edo goi mailako teknikari plaza bat (sailkatzeke geratzen dena) eta bi administrari plaza, erdi mailako diru-bilketa teknikari lanpostua eta diru bilketako administrarien bi lanpostu izango direnak.

II. Plaza eta lanpostuen **amortizazioa**

1.- Kiroletako sailean, kirol monitore plaza eta lanpostua.

2.- Udaltzaingoan, trafiko koordinatzaile plaza eta lanpostua.

III. Plaza eta lanpostuen **aldaketak eta zuzenketak**

1.- Liburuzain plaza: Administrazio Bereziko Eskalan jasotzea.

2.- Kultura, Gazteria eta Festetako zerbitzuburua: Administrazio Orokorreko Eskalan jasotzea.

3.- Ur eta Argiko ofiziala: laboralen plantillan sartzea.

4.- Eskoletako bi atezain plaza: Administrazio Orokorreko Eskalan sartzea.

5.- Administrari plaza bat funtzionarioen plantillan sartzea.

6.- Beste administrari plaza bat ere funtzionarioen plantillan sartzea.

7.- Irakasle deituriko 7 plazari euskaltegiko irakasle izena ematea.

8.- Udaltzain lanpostu bat: lanpostu bat iraungitze egoeran jartzea eta beste bat funtzionario gisa sortzea.

9.- Musika Eskola: lanpostu zerrendan, hainbat irakasle lanposturen Egoera izeneko atalean (biolina, biola, saxofoia, flauta eta dultzainako irakasleen kasuan) zuzenketak egitea.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

**Bigarrena**.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegun, interesdunek aztertu eta iradokizunak edo alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

**Hirugarrena**.- Epean alegaziorik aurkeztu ez bada, programa behin betiko onartutzat ematea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea. Alegaziorik aurkezten bada, Udalbatzaren Osoko Bilkurak aztertu eta ebatziko du. Ondoren, Programaren behin betiko onespenari buruzko erabakia hartuko du organo horrek.

**Laugarrena**.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal web orrian eta iragarki taulan argitaratzea, eta langileen ordezkaritzari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman die Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2022. urterako Programari, Plantilla Organikoari ( I. eranskina) eta Lanpostu Zerrendari (II. eranskina)

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

3. **ONARTZEA HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.**

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko otsailaren 16ko irizpena**

2021eko azaroaren 17an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak 7/2021 Foru Dekretu-Araua argitaratu zuen, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzeko.

Konstituzio Auzitegiaren 2017ko otsailaren 16ko Epaiak, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoak, Konstituzioaren aurkakotzat eta deuseztzat jo zituen hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.1,

4.2.a) eta 7.4 artikuluak, baina, bakar-bakarrik balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen dituzten neurrian.

Horren ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan onartu eta indarrean jarri zen 2017ko martxoaren 31n martxoaren 28ko 2/2017 Foru Dekretu-Araua, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duena. Dekretu-arauak dioenez, zergaren obligazio tributario nagusia sortu dadin, beharrezkoa izango da lurrek balio gehikuntza bat izatea haien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzeagatik edo lur horien gaineko jabaria mugatzen duen edozein gozamen eskubide erreal eratu edo eskualdatzeagatik.

Geroago, Auzitegi Gorenak, 2019ko urriaren 31ko 126/2019 Epaian, Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 107.4 artikulua, ordaindu beharreko kuota zergadunak benetan lortzen duen ondare gehikuntza baino handiagoa den kasuei dagokienez.

Azkenik, berriki eman den 2021eko urriaren 26ko 182/2021 Epaiak adierazi du aipatutako testu bateginaren 107.1 artikuluko bigarren paragrafoa, 107.2.a) artikulua eta 107.4 artikulua Konstituzioaren aurkakoak eta deusezak direla, eta horrek arau hutsune bat utzi du zerga oinarriaren zehaztapenari dagokionez, udal zerga hori likidatu, egiaztatu, bildu eta berrikustea, baita ordainaraztea ere, eragozteraino.

Konstituzio Auzitegiak azken epai horren 5. oinarri juridikoan adierazi duenez, «zerga oinarria zehazteko gaur egun erabiltzen den sistema objektibo eta nahitaezkoa higiezinen merkatuaren eta krisi ekonomikoaren errealitatetik kanpo dago, eta, beraz, alde batera uzten du zergapetutako eta zergadunak frogatutako ahalmen ekonomikoa. Sistema hori mantentzeak urratu egiten du ahalmen ekonomikoa zergapetze irizpide gisa erabiltzeko printzipioa (EKren 31.1 artikulua)».

Nahiz eta azken bi epaiek ez duten zuzeneko eraginik hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauan, kontuan izan behar da, zerga oinarriaren zehaztapenari dagokionez, han jasotzen den erregulazioak antzekotasun handia duela Toki Ogasunak arautzen dituen Legean (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako testu bateginean) jasotzen den eta Konstituzioaren aurkako deklaratu den erregulazioarekin; hortaz, segurtasun juridikoagatik, beharrezko gertatzen da aipatutako foru araua aldatzea Konstituzio Auzitegiak bere jurisprudentzian bidezko iritzitakora egokitzeko.

Hori dela eta, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua aldatu beharra dago, zerga oinarria zehazteko erregelak Konstituzio Auzitegiak adierazitakoarekin bat etor daitezen.

Horrela, alde batetik, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duen martxoaren 28ko 2/2017 Foru Dekretu-Arauan arautut akoaren ildo beretik, zergapetu gabe uzten dira lurren balio gehikuntzarik gabeko egoerak, eta, horrez gain, zergapetzen

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

ez den beste kasu berri bat ere ezartzen da, balio gehikuntza hori ez dela izan interesdunak eskatuta egiaztatzen den kasuetarako.

Bestetik, zerga oinarria zehazteko metodologia aldatu egiten da, higiezinen merkatuaren errealitatetik hurbilago egon dadin, eta udalei aukera aitortzen zaie lurzoruaren katastro balioak beherantz zuzentzeko, balioen eguneratze mailaren arabera. Era berean, gehieneko koefizienteak ezartzen dira, lurraren eskurapen egunetik igarotako urte kopuruaren arabera finkatuak, eta koefiziente horiek urtero eguneratuko dira egindako salerosketen prezioen bilakaera kontuan hartuta. Horrek guztiak ez du eragozten zergapekoak ahalmena izatea aplikatzen den karga benetan lortutako balio gehikuntzara egokitzeko.

Gehienezko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru-arau bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorreko foru-arauen bidez egin ahal izango da.

Ordenantza fiskalen hurrengo urterako aldaketa iraileko osoko bilkuran onartu ohi da, eta aurrekontu orokorren foru-arauak abenduaren amaieran onartzen dira. Horren ondorioz, artikulua aldatzeko urtarrileko Osoko Bilkuran izapidetu beharko litzateke aldaketa partziala.

Balio eguneratugabeak izateagatik bakarrik ordenantza fiskalaren aldaketa saihesteko, eta betiere Osoko Bilkurak onartutako koefizienteak maximoak badira, proposatzen da 7.3 artikuluan adieraztea «*sortzapenaren unean lurraren balioari aplikatu beharreko koefizientea izango dela sortzapenaren unean foru-arau bidez onartutako indarreko gehieneko koefizientea, balioaren gehikuntza sortzeko aldiaren arabera*», eta eranskin bakoitzean jasotzea indarreko taularen kopia bat.

Ondorioz, artikulu hauek sartu behar dira Tolosako Udaleko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion ordenantza fiskalean:

**1. aldaketa.**

Artikulu hau onartu behar da:

«4.d) artikulua:

*Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzean balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.*

*Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai; ondorio horietarako, 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak edo entitateak izango dira interesdun.*

*Eskualdaketan balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*lurraren eskualdaketa edo eskurapen baliotzat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.*

*Higiezinaren eskualdaketan lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren baliotzat hartuko da zergaren sortzapen egunean lurraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaio eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.*

*Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat hartuko da oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa.*

*Apartatu honetan aipatutako higiezinen ondorengo eskualdaketan, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartuko. Ondasun higiezinen ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, artikulu honen 2. apartatuko b) eta c) letren arabera zergari lotuta ez daudenean».*

**2. aldaketa**

Bestalde, zerga oinarriari buruzko artikulua aldatzen da.

Gaur egun, honela dio:

«7.1. Lurrak sortzapen unean eta gehienez hogei urteko epealdian izandako balio gehikuntza da zerga honen oinarri zergagarria.

Zerga oinarria zehazteko, lurrak sortzapen unean izan duen balioa hartuko da kontuan, artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat, eta artikulu honetako 3. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera dagokion portzentajea.

2. Sortzapen unean lurrak duen balioa honako arau hauetan finkatutakoaz zehaztuko da:

a) Lurrak eskualdatzean, horiek sortzapeneko momentuan duten balioa ondasun higiezinen zergaren ondorioetarako une hartan finkatuta duena izango da.

   Alabaina, aipatutako balioa balio ponentzia baten arabera likidatuko da behin-behinekoz, balio ponentzia onartu ondoren onartutako planeamendu aldaketarik adierazten ez duen balio ponentziaren ondorioa denean. Horrelako kasuetan, lurren balioa behin betiko likidazioan aplikatuko da, balio hori arauzko balorazio jardunbidearen arabera lortu ondoren, betiere sortzapen dataren arabera.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Orubeak, nahiz eta hiri izaera izan, balio katastrala ez badu zehaztuta sortzapenaren unean, Udalak likidazioa egin ahal izango du aipatutako katastro balioa zehazten denean; balio hori, nolanahi ere, sortzapena egin zenekoa izango da.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealak eratzean eta eskualdatzean, artikulu honetako 3. paragrafoan agertzen diren urteko portzentajeak aurreko idatz zatian definitutako atalaren gain aplikatuko dira. Hark balio hau adierazten du: ondare transmisio eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako finkatutako arauen aplikazio bidez kalkulatutako eskubideen balioa.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea edo eraikuntza lurraren azpian egiteko eskubidea eratzean edo transmititzean gainazalean ondasun eskubiderik sortu gabe, artikulu honetako 3. paragrafoan datozen urteko portzentajeak a) idatz zatian definitutako balioaren gain aplikatuko dira. Hark adierazten duena hau da: transmisio eskrituran finkatutako proportzionalitate modulua. Halakorik ez badago, lur gainean edo lur azpian eraikitzekoak diren solairuen azalera edo bolumenaren eta haiek eraiki ondorengo azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa xedatzetik ateratzen den proportzionalitatea.

d) Nahitaezko desjabetzeak daudenean, artikulu honetako 3. paragrafoan dauden urteko portzentajeak lurraren balioari dagokion balio justuaren zatiaren gainean aplikatuko dira, salbu eta aurreko a) idatz zatian definitutako balioa txikiagoa bada. Orduan, azken hori nagusituko da balio justuaren gainean.

3. Sortzapenaren unean, lurraren balioaren gain eranskineko urteko portzentajea aplikatuko da, aurreko 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz.

Portzentajea zehazteko, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena: Zerga kargatzen duen eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza Udalak finkatutako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da. Udalak zehaztuko duen portzentaje hori aipatutako gehikuntza agerian egon den urte kopurua biltzen duen epealdirako izango da.

Bigarrena: Sortzapen unean lurraren balioaren gain aplikatu beharreko portzentaia kasu konkretu bakoitzari aplikagarri zaion urteko portzentaia balio gehikuntza agerian egon den urte kopuruaz biderkatzetik ateratzen dena izango da.

Hirugarrena: Lehen arauarekin bat eragiketa jakin bakoitzari aplikagarri zaion portzentajea zehazteko eta bigarren arauarekin bat aipatutako urteko portzentaia biderkatu beharreko urte kopurua zehazteko, balio gehikuntza agerian egon den aldia osatzen duten urte osoak baino ez dira izango kontuan; hala ere, aipatutakoaren eraginetarako, aldi horretako urteen zatikiak ez dira kontuan izango».

Honela geratuko litzateke 7. artikulua:

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogei urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulu honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: artikulu horren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera sortzapenaren unean lurrari kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sortzapenari dagokion koefizientea.

2. Sortzapenaren unean lurrak zer balio duen zehazteko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa izango da ondasun higiezinen gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datarekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.

Gertatzen bada kasuan kasuko lurrak, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, Udalak katastro balio hori finkatzen denean egin ahal izango du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.

Udalek gehienez ere 100eko 15eko koefiziente murriztaile bat ezarri ahal izango dute ordenantza fiskalean, aurreko paragrafoetan adierazitako balioaren gainean, balioaren eguneratze maila haztatzeko.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealen eraketan eta eskualdaketan, artikulu honen 3. apartatuan ezarri diren urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako baliotik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa kalkulatuko da ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan –lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere–, artikulu honen 3. apartatuan ezarri diren urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketaren eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikiko diren solairuen azaleraren edo bolumenaren eta eraikitako azaleraren edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.

d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikulu honen 3. apartatuan ezarri diren urteko

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

portzentajeak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2.a) apartatuan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.

3. Balio gehikuntzaren sortzapena gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sortzapena zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sortzapena urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.

Sortzapenaren unean lurrak duen balioari aplikatu beharreko koefizientea, aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatuta, sortzapenaren unean foru arau bidez onartutako indarreko gehienezko koefizienteak izango dira, balio gehikuntza sortzen den aldiaren arabera.

4. Subjektu pasiboak 4.d) artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz eskaturik, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikulu honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

Subjektu pasiboak datu errealen gainean zerga oinarria kalkulatzeko errekerimendua egiteko, eskualdaketa eta eskuratzea dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu beharko ditu, ordenantza fiskal honen 12. artikuluan ezarritako epe berean, edo, bestela, berraztertzeko errekurtsoa jartzeko epean.

**3. aldaketa**

Azkenik, kudeaketari dagokionez, puntu hauek onartzea proposatzen da:

«20. artikulua:

Udalek ahalmena dute subjektu pasiboaren autolikidazio sistema ezartzeko. Sistema horretan, subjektu pasiboak autolikidaziotik ateratzen den kuota ordaindu beharko du, 12. artikuluan aurreikusitako epeen barruan. Autolikidazio horiei dagokienez, eta betiere interesdunak edo subjektu pasiboak 4.d eta 7.4 artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren ondorioetarako aitortutako balioak egiaztatzeko aukera baztertu gabe, kasuan kasuko udalak hauxe baino ezingo du egiaztatu, alegia, autolikidazio horiek zergaren arauak behar bezala aplikatuta egin direla, arau horietatik ondorioztatutakoak ez bestelako balio, oinarri edo kuotak egotzi gabe.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

7.2.a) artikuluko hirugarren paragrafoan aipatutako kasuetan, zerga ezingo da inola ere autolikidazio bidez exijitu».

«21. artikulua:
Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta toki entitateek elkarrekin jardungo dute zerga aplikatu dadin eta, bereziki, 1.3 eta 4.4 artikuluetan ezarritakoa betetzea ahalbidetzeko. Horretarako, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte bai zerga arloko informazioa trukatzeko bai lankidetzan jarduteko».

**<u>ERANSKINA:</u>**

| **Sortzapena** | **Koefizientea** |
|---|---|
| Urtebetetik behera | 0,14 |
| Urte bat | 0,13 |
| 2 urte | 0,15 |
| 3 urte | 0,16 |
| 4 urte | 0,17 |
| 5 urte | 0,17 |
| 6 urte | 0,16 |
| 7 urte | 0,12 |
| 8 urte | 0,10 |
| 9 urte | 0,09 |
| 10 urte | 0,08 |
| 11 urte | 0,08 |
| 12 urte | 0,08 |
| 13 urte | 0,08 |
| 14 urte | 0,10 |
| 15 urte | 0,12 |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

| **Sortzapena** | **Koefizientea** |
|---|---|
| 16 urte | 0,16 |
| 17 urte | 0,20 |
| 18 urte | 0,26 |
| 19 urte | 0,36 |
| 20 urte edo gehiago | 0,45 |

Karga tasa: % 10

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Jose Mari Villanueva Telleria, Estitxu Kortajarena, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal. Aho batez onartu da.

Hori dela eta, Batzordeak hau

**DIKTAMINATU DU**

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion ordenantza fiskalean onartzea azalpenean aipatutako aldaketak.

**BIGARRENA.-** Aldaketa horiek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko dituzte, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketak behin betiko onartutzat joko dituzte.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.
Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udaleko hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokion ordenantza fiskalaren aldaketa.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

## 4. ONARTZEA 2020-2022 TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOREN ALDAKETA.

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko otsailaren 16ko irizpena**

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 3.3 eta 5.5 lerroak aldatzeko proposamena jaso da.

Lehen honela zeuden:

Dirulaguntza lerroa: 3.3.- Kultur jarduerak

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kultura eta aisialdia |
| Sektore hartzaileak | Elkarteak eta banakakoak |
| Helburuak | - Gizartearen sendotasuna eta saretzea sustatzea.<br>- Aisialdia era positibo eta osasungarrian bultzatzea.<br>- Kultur sorkuntzaren hedapena sustatzea.<br>- Era desberdinetako formazio ez arautua laguntzea.<br>- Ondarearen babesa, errekuperazioa eta zabalkundea sustatzen duten eragileak laguntzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kultur eskaintza handiagoa izan eta bertako elkarteak indartzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.<br><br>Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionagarritasuna.<br>- Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera.<br>- Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia. |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | AZKEN MUGA | Programazio berezia | 4.000 € | Izenduna | 12.000 € |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ELKARTEA | | | | |
| 0800.481.01.334.10 | ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA | Urteurrena | 10.000 € | Izenduna | 10.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | UDABERRI | Funtzionamendu gastuak | 8.000 € | Izenduna | 24.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | HODEIERTZ | Funtzionamendu gastuak | 8.500 € | Izenduna | 25.500 € |
| 0800.481.01.334.10 | HARITUZ | Bertsolaritza sustatzea | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | OHIZKOAK | Kultura | 26.000 € | Norgehiagoka | 78.000 € |

Dirulaguntza lerroa: 5.5.- Tolosaldeko Arraun Kluba (TAK)

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kirola eta jarduera fisikoa |
| Sektore hartzaileak | Tolosaldeko Arraun Kluba |
| Helburuak | Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Arraun klubaren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerriaren barruan, klubak urteko kirol jarduerak garatu ditzan eta, horretaz gainera, Tolosaldeko emakumezkoen traineruaren proiektuarekin jarraitzeko. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kirola eta jarduera fisikoarekiko zaletasuna gazteengan, kirol praktikaren onurak aitortuz; errendimendu ibilbidean erreferentziazko kluba bihurtu emakumeen traineruarekin; azken finean, bizi ohitura osasungarriak eta kohesio soziala areagotzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Langile-gastuak.<br>- Entrenatzaile, begirale.<br>- Kirol materiala (batela, arraunak, ekipazioa).<br>- Taldeen garraioa.<br>- Zerbitzu teknikoak (gestoria, telefonia, batela, arraunen mantentzea...).<br>- Teknikoen formakuntza.<br>- Zerbitzu medikoak.<br>- Federazio gastuak. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.01.341.00 | TAK | Arraunaren sustapena | 30.000 € | Izenduna | 90.000 € |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Horrela aldatzea proposatzen dira:

Dirulaguntza lerroa: 3.3.- Kultur jarduerak

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kultura eta aisialdia |
| Sektore hartzaileak | Elkarteak eta banakakoak |
| Helburuak | - Gizartearen sendotasuna eta saretzea sustatzea.<br>- Aisialdia era positibo eta osasungarrian bultzatzea.<br>- Kultur sorkuntzaren hedapena sustatzea.<br>- Era desberdinetako formazio ez arautua laguntzea.<br>- Ondarearen babesa, errekuperazioa eta zabalkundea sustatzen duten eragileak laguntzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kultur eskaintza handiagoa izan eta bertako elkarteak indartzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.<br><br>Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionagarritasuna.<br>- Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera.<br>- Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | AZKEN MUGA ELKARTEA | Programazio berezia | 4.000 € | Izenduna | 12.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA | Urteurrena | 10.000 € | Izenduna | 10.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | UDABERRI | Funtzionamendu gastuak | 8.000 € | Izenduna | 24.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | HODEIERTZ | Funtzionamendu gastuak | 8.500 € | Izenduna | 25.500 € |
| 0800.481.01.334.10 | HARITUZ | Bertsolaritza sustatzea | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | Irabazi asmorik gabeko erakundeak | Urteurrenak | 5.000 € | Izenduna | 5.000 € |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | OHIZKOAK | Kultura | 26.000 € | Norgehiagoka | 78.000 € |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Dirulaguntza lerroa: 5.5.- Tolosaldeko Arraun Kluba (TAK)

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kirola eta jarduera fisikoa |
| Sektore hartzaileak | Tolosaldeko Arraun Kluba |
| Helburuak | Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Arraun klubaren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerriaren barruan, klubak urteko kirol jarduerak garatu ditzan eta, horretaz gainera, Tolosaldeko emakumezkoen traineruaren proiektuarekin jarraitzeko. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kirola eta jarduera fisikoarekiko zaletasuna gazteengan, kirol praktikaren onurak aitortuz; errendimendu ibilbidean erreferentziazko kluba bihurtu emakumeen traineruarekin; azken finean, bizi ohitura osasungarriak eta kohesio soziala areagotzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Langile-gastuak.<br>- Entrenatzaile, begirale.<br>- Kirol materiala (batela, arraunak, ekipazioa).<br>- Taldeen garraioa.<br>- Zerbitzu teknikoak (gestoria, telefonia, batela, arraunen mantentzea...).<br>- Teknikoen formakuntza.<br>- Zerbitzu medikoak.<br>- Federazio gastuak. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.01.341.00 | TAK | Arraunaren sustapena | 30.000 € | Izenduna | 90.000 € |
| 1000.781.01.341.00 | TAK | Trainerua erosteko | 35.000 € | Izenduna | 35.000 € |

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Xabier Balerdi (EAJ): Aldeko botoa
Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Xarles Iturbe (EAJ): Aldeko botoa
Garbiñe Marzol (EH-Bildu): Aldeko botoa
Estitxu Kortajarena (EH-Bildu): Aldeko botoa
Ander Figuerido Zubiria (EH-Bildu): Aldeko botoa
Jose Mari Villanueva (PSE-EE): Aldeko botoa

Hau dela eta, batzordeak hau

**DIKTAMINATU DU**

**Lehena.-J**arraian agertzen den eran uztea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ondorengo dirulaguntza lerroak:

Dirulaguntza lerroa: 3.3.- Kultur jarduerak

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kultura eta aisialdia |
| Sektore hartzaileak | Elkarteak eta banakakoak |
| Helburuak | - Gizartearen sendotasuna eta saretzea sustatzea.<br>- Aisialdia era positibo eta osasungarrian bultzatzea.<br>- Kultur sorkuntzaren hedapena sustatzea.<br>- Era desberdinetako formazio ez arautua laguntzea.<br>- Ondarearen babesa, errekuperazioa eta zabalkundea sustatzen duten eragileak laguntzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kultur eskaintza handiagoa izan eta bertako elkarteak indartzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen kasuan. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.<br><br>Izendunen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute. Aurreikusten da laguntzaren zati bat aurreratzea eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Bilakaera ekonomikoa eta egitasmoaren betetze-maila: gastuak eta sarrerak, eta gastuen subentzionagarritasuna.<br>- Jardueren memoria: kopuruak eta izan duten eragin sozial eta |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

| | |
|---|---|
| | mediatikoa, ekimenen kalitateaz gainera.<br>- Komunikazioa eta Udalaren irudiaren erabilera egokia. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | AZKEN MUGA ELKARTEA | Programazio berezia | 4.000 € | Izenduna | 12.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA | Urteurrena | 10.000 € | Izenduna | 10.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | UDABERRI | Funtzionamendu gastuak | 8.000 € | Izenduna | 24.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | HODEIERTZ | Funtzionamendu gastuak | 8.500 € | Izenduna | 25.500 € |
| 0800.481.01.334.10 | HARITUZ | Bertsolaritza sustatzea | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |
| 0800.481.01.334.10 | Irabazi asmorik gabeko erakundeak | Urteurrenak | 5.000 € | Izenduna | 5.000 € |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0800.481.01.334.10 | OHIZKOAK | Kultura | 26.000 € | Norgehiagoka | 78.000 € |

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 5.5.- Tolosaldeko Arraun Kluba (TAK)

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kirola eta jarduera fisikoa |
| Sektore hartzaileak | Tolosaldeko Arraun Kluba |
| Helburuak | Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Arraun klubaren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerriaren barruan, klubak urteko kirol jarduerak garatu ditzan eta, horretaz gainera, Tolosaldeko emakumezkoen traineruaren proiektuarekin jarraitzeko. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Kirola eta jarduera fisikoarekiko zaletasuna gazteengan, kirol praktikaren onurak aitortuz; errendimendu ibilbidean erreferentziazko kluba bihurtu emakumeen traineruarekin; azken finean, bizi ohitura osasungarriak eta kohesio soziala areagotzea. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Udal aurrekontua onartu ondoren, bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute eta dirulaguntza izendun modura formalizatuko da. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | - Langile-gastuak.<br>- Entrenatzaile, begirale.<br>- Kirol materiala (batela, arraunak, ekipazioa). |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

| | |
|---|---|
| | - Taldeen garraioa.<br>- Zerbitzu teknikoak (gestoria, telefonia, batela, arraunen mantentzea...).<br>- Teknikoen formakuntza.<br>- Zerbitzu medikoak.<br>- Federazio gastuak. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.01.341.00 | TAK | Arraunaren sustapena | 30.000 € | Izenduna | 90.000 € |
| 1000.781.01.341.00 | TAK | Trainerua erosteko | 35.000 € | Izenduna | 35.000 € |

**Bigarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2020-2022 Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoen aldaketa.

5. **TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUA ADJUDIKATZEA.**

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe Kirol zinegotziak bilkura utzi du.

**Lehenik eta behin, Tolosako Udaleko EAJ/PNV eta PSE/EE udal taldeak proposatzen duen zuzenketa hau aurkeztu da:**

**AURREKARIAK**

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

<u>Bigarrena.-</u> Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

<u>Hirugarrena.-</u> 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

<u>Laugarrena.-</u> Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI SLU (B20901716) eta KIROLZER SL (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak.

<u>Bosgarrena.-</u> Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI SLU enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

<u>Seigarrena.-</u> Hirugarrena.- Aurrekoa kontuan hartuta, eta kontratua adjudikatu aurretik, Udaleko kirol-instalazioetako langileen ordezkarien idazki bat sartu zen udal erregistroan (2383. sarrera-zenbakia), kiroldegiaren kudeaketaren adjudikazio berriak sortu duen kezka adierazteko. Izan ere, hainbat puntu aurkitu dituzte, eta horietan, enpresa adjudikaziodunaren proiektuak subrogaziorako eskubidea urratzen du.

<u>Zazpigarrena.-</u> Aurrekoa kontuan hartuta, 2022ko otsailaren 22an, langileen ordezkari sindikalak agertu ziren Udaleko idazkariaren aurrean, erregistro orokorrean aurkeztutako idazkiaren nondik norakoak argitzeko eta idazki horretan planteatutako gaiei buruz garrantzitsua izan daitekeen informazio guztia emateko.

Udal idazkariak txosten bat egin du, eta espedienteari erantsi zaio, kontratua adjudikatzeko ebazpenean zenbait argibide emateko gomendatuz.

Zuzenketa hau izenpetzen dutenek proposatu dute Antolakuntza Batzordeak onartutako irizpenaren laugarren atala aldatzea, eskatutako argibidea erantsiz, testu honen arabera:

## IRIZPENA

.........

**<u>Laugarrena.-</u>** Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa eta bere proposamenean eskainitakoa bete beharko duela, **<u>azken kasu horretan, Udalak egindako kontratu-dokumentazioaren edukiarekin bat datorren guztian.</u> Argibide gisa, adjudikazio honek honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:**

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- **Zenbait desadostasun antzeman ondoren, enpresa adjudikaziodunak baldintza teknikoen pleguan ezarritakoa aplikatuko du honako hauei dagokienez:**
    - **Instalazioak nahitaez ixteko egunak eta gehienezko egun-kopurua.**
    - **Inauterietan Berazubiko estadioan eman beharreko zerbitzuak.**
- **Enpresa emakidadunak gaur egun indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko die bere zerbitzura dauden langile guztiei, baita egongo direnei ere.**
- **Beraz, langileen urteko gehienezko lanaldia, indarrean dagoen lan hitzarmenean xedaturikoa izango da (1.592 ordu).**
- **Era berean, langileen subrogazioari dagokionez, indarrean dauden lege- zein hitzarmen kolektiboaren xedapen aplikagarriak kontuan hartu beharko ditu adjudikaziodunak.**

Udalbatzak emendakina bozkatu du, eta emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du emendakina.

**Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren 2022ko otsailaren 16ko irizpena, onartutako zuzenketarekin.**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

| | |
|---|---|
| Kontratuaren xedea | Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua. |
| Unitate sustatzailea | Kirol Saila |
| Espedientea | 2021CSER0002 |

**II.- AURREKARIAK**

Lehena.- 2021eko otsailaren 5ean, Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

<u>Bigarrena.-</u> Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021eko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

<u>Hirugarrena.-</u> 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

<u>Laugarrena.-</u> Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI SLU (B20901716) eta KIROLZER SL (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten eskaintzak.

<u>Bosgarrena.-</u> Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI SLU enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua, formalizatzen denetik kontatzen hasita.
- Urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

**III.- <u>KONTRATAZIO-ORGANOA</u>**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.694.183,39 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino handiagoa da; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urte baino gehiagokoa denez, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko otsailaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak**: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Kontrako botoak**: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Esti Kortejarena.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-** Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzea.

**Bigarrena.-** BPXPORT XXI SLU enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000 euro.

**Hirugarrena.-** Xedatzea kontratuaren iraupena hamar urtekoa izango dela, kontratua formalizatzen den momentutik kontatzen hasita.

**Laugarrena.-** Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa eta bere proposamenean eskainitakoa bete beharko duela, **azken kasu horretan, Udalak egindako kontratu-dokumentazioaren edukiarekin bat datorren guztian. Argibide gisa, adjudikazio honek honako alderdi hauek hartu beharko ditu kontuan:**

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- **Zenbait desadostasun antzeman ondoren, enpresa adjudikaziodunak baldintza teknikoen pleguan ezarritakoa aplikatuko du honako hauei dagokienez:**
  - **Instalazioak nahitaez ixteko egunak eta gehienezko egun-kopurua.**
  - **Inauterietan Berazubiko estadioan eman beharreko zerbitzuak.**
- **Enpresa emakidadunak gaur egun indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko die bere zerbitzura dauden langile guztiei, baita egongo direnei ere.**
- **Beraz, langileen urteko gehienezko lanaldia, indarrean dagoen lan hitzarmenean xedaturikoa izango da (1.592 ordu).**

• **Era berean, langileen subrogazioari dagokionez, indarrean dauden lege- zein hitzarmen kolektiboaren xedapen aplikagarriak kontuan hartu beharko ditu adjudikaziodunak.**

**Bosgarrena.-** SPKLren 44.1 a) artikuluak xedaturikoaren arabera ohartaraztea, kontratazioari buruzko errekurtso berezia jarri ahal izango denez, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen duelako, 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratua ezingo dela formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

**Seigarrena.-** Erabaki horiek jakinaraztea Kirol Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Jose Mª Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Irizpena bi aldiz bozkatu da eta bietan berdinketa gertatu ondoren, alkatearen kalitatezko botoarekin Udalbatzak gehiengoz onartu du Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua adjudikatzea.

Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe Kirol zinegotzia bilkurara itzuli da.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

6. **ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA VISESA SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ERRENTAMENDU ARAUBIDE IRAUNKORREKO BABES PUBLIKOKO 111 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO TOLOSAKO HAPOKO «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» HIRIGINTZA EREMUKO P-1 LURSAILEAN.**

**Lurralde Batzorde Informatiboaren 2022ko otsailaren 16ko irizpena**

## 1.- AURREKARIAK

- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparrua, nagusiki bizitegi-erabilera duena, hirigintzaren aldetik antolatu, kudeatu eta partzialki garatu da, plangintza- eta kudeaketa-dokumentu hauen arabera:

  1. Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) testu bategina. 2010eko maiatzaren 27an behin betiko onartua.

  2. Urbanizatzeko jarduketa-programaren testu bategina. 2010eko urriaren 4an behin betiko onartua.

  3. Birpartzelazio-proiektua, 2011ko azaroaren 25ean behin betiko onartua.

  4. Urbanizazio-proiektuaren testu bategina, 2013ko urtarrilaren 25ean onartua.

  5. 2013ko uztailaren 23an onartutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren aldaketa.

- Urbanizazio Proiektuaren 1. faseko urbanizazio-obrak egin ondoren, 2014ko azaroaren 5ean jaso zituen Tolosako Udalak. Obrak jasotzeko aktan eranskin bat sartu zen, egiteke zeuden lanekin. Jaso zenetik, zati batean egin dira eranskin horretan jasotako jarduerak, baina ez dira bete gabe dauden lan guztiak egin. Ondoren, Orubidek proiektu bat aurkeztu du, Udalak onartu dituen eta une honetan egiten ari diren obrak barneratzen dituena.

- Uraren Euskal Agentziak (URA) 2014an uholde-arriskuaren mapak eguneratu ondoren, eremu hori ezin da garatu gaur egun indarrean dauden antolamendu xehatuko eta kudeaketako dokumentuek ezarritako antolamenduaren eta hirigintza-parametroen arabera.

-

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- 2021eko otsailaren 16an, Orubidek «20.1- Amarotz paper-fabrika» azpiesparruaren HAPBren 2. aldaketa aurkeztu du. Ondorioz, plan horren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztu zuen Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan.

- 2021eko apirilaren 20an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena jaso zen. Ebazpen horren bidez, hiri-antolamenduko plan bereziaren bigarren aldaketaren irismen-dokumentua formulatu zen, Tolosan, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpiesparruan.

- 2021eko azaroaren 17an, Carlos Quindós Fernandezek, Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua SAren ordezkari gisa, erregistro elektroniko bidez, dokumentazio hau aurkeztu du: Visesaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen-proposamena, gaztelaniaz.

- 2021eko azaroaren 22an, kronograma eta bideragarritasun ekonomikoaren azterketa aurkeztu ditu Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua SAren ordezkariak.

- 2021eko abenduaren 9an, Udalak dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu zion.

- 2021eko abenduaren 14an, honako dokumentazio hau aurkeztu dute: Visesaren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmen-proposamen berria, ele bietan, kronograma zuzendua eta bideragarritasun ekonomikoaren azterketari buruzko argibide-idazki bat.

- 2021eko abenduaren 15ean, Hirigintzako buruak aldeko txostena idatzi zuen.

- 2021eko abenduaren 16an, Jose Beristain Eguia abokatuak txosten juridikoa idatzi zuen.

- 2022ko urtarrilaren 14an, udal idazkariak lehen txostena idatzi zuen eta dokumentazioa osatzeko eskatu.

- 2022ko otsailaren 7an, Carlos Quindós Fernandezek, Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua SAren ordezkari gisa, erregistro elektroniko bidez, dokumentazio osagarria aurkeztu zuen.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

## 2.- AZTERKETA TEKNIKOA

2021eko abenduaren 15ean, Hirigintza Azpisaileko arduradunak txostena idatzi zuen:

***«II.- AZTERKETA TEKNIKOA***

*(...)*

***II.1.- HITZARMENAREN HELBURUA:***

*Aurkeztutako hitzarmen-proposamenaren lehenengo klausulan hitzarmenaren xedea jasotzen da. Hona hemen, laburbilduta:*

*"Lankidetza-hitzarmen honen xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko bizitegi-garapena ahalbidetzea. Garapen hori «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuaren 2. aldaketaren (VISESAk aurkeztua) dokumentuak ezarritako hirigintza-antolamenduaren arabera egingo da".*

*HAPBren aldaketa kokatzen da indarrean dauden URAren eskakizunekin bateragarria izango den antolamendu berri bat proposatzeko premian, eta, gainera, sustapenean egon daitezkeen aukerak eta hobekuntzak barne hartuko ditu.*

*Geoeuskadi bisorean kontsultatu ondoren, eremuko lurzatiak eta uholde-arriskuaren geruzak gainjarri ondoren, badirudi horietako bi (7575174 eta 7575175 katastro-partzelak) lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan daudela, eta, beraz, ondoriozta liteke ezin dela horietan eraiki.*

***II.2.- «20.1- AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUKO HAPB-REN 2. ALDAKETA IZAPIDETZEA:***

*2021eko otsailaren 16an, Orubidek «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpiesparruaren HAPBren 2. aldaketa aurkeztu du. Planaren ingurumen-prozedurari dagokionez, Udalak Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Ebazpena jaso du 2021eko apirilaren 20an. Ebazpen horren bidez, hiri-antolamenduko plan bereziaren bigarren aldaketaren irismen-dokumentua formulatzen da, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpiesparruan, Tolosan.*

*2021eko irailaren 30ean, posta elektronikoz jaso da HAPB aldatzeko ingurumen-azterlan estrategikoa, azterlan hidraulikoa falta dela. Une honetan ez da ingurumen-dokumentazio osoa ofizialki aurkeztu. Sustatzailearekin izandako bileretan adostutako zuzenketak ere ez dira erregistro elektroniko bidez aurkeztu.*

*Hitzarmenean P-1, P-2.1 eta P-2.2 lurzatietarako ezarritako hirigintza-eraikigarritasunak HAPBren 2. aldaketan ezarritakoekin bat datoz.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***II.3.- KRONOGRAMA:***
*Hitzarmenari erantsitako kronograma orientagarria bada ere, eta loteslea ez den arren, aipatzekoa da aurreikusten dela 2023. urtearen amaieraren eta 2024. urtearen hasieraren artean izapidetzea obra-lizentziak.*

***III.- ONDORIOA***

*Ondorioz, arestian azaldutakoari jarraikiz, Tolosako HAPOko «Amarotz» esparruko «20.1.Amarotz paper-fabrikako» azpiesparruaren bizitegi-garapenerako hitzarmena izapidetzea proposatzen da».*

**3.- AZTERKETA JURIDIKOA**

**2022ko otsailaren 9an udal idazkariak lege-txostena idatzi du:**

***«AURRETIAZKOAK***

*Udal honetako Sarrera Erregistro Orokorrean 2021eko azaroaren 17an aurkeztutako idazkiaren bidez (10.248 zenbakia duena), VISESA sozietate publikoaren ordezkariak lankidetza-hitzarmen bat izapidetzeko eskatu zuen, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» azpieremuko P-2.1 partzelaren garapena bideratzeko, 111 etxebizitzen babespeko erregimen publikoaren eraikuntza sustatzeko.*

*Espedientean honako dokumentazio hau dago, besteak beste:*

- *Lankidetza-hitzarmenaren proposamena.*
- *Dokumentazio osagarria: kronograma eta ikerketa ekonomiko-finantzarioa.*
- *Emailen bidez egindako komunikazioak, departamentuko buruaren eta VISESAko ordezkarien artekoak*
- *Txosten teknikoa, departamentuko buruak eginda.*
- *Joseba Beristain abokatuak egindako txosten juridikoa.*
- *VISESAk aurkezturiko dokumentazioa: etxebizitzen eraikuntzari buruzko azterketa ekonomikoa, eta ALOKABIDEk egindako azterketa, etxebizitzen ustiapenari edo errentamenduari buruzkoa.*

*2022ko urtarrilaren 14an, idazkari honek honako dokumentu hau aurkeztu zuen:*

***"AURRETIAZKOAK***

*Dokumentuan agertzen den irudia ez da Tolosako Udalaren armarri ofiziala. Beraz, irudi horren ordez, udalerriko armarri ofiziala jarri beharko da.*

*Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2.i) artikuluan*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*ezarritakoaren arabera, idazkari honi dagokio dokumentua sinatzeko fede-emaile gisa jardutea, eta, beraz, dokumentuan bertan agertu beharko du.*

***DOKUMENTUAREN IZAERA JURIDIKOA***

- *Lankidetza Hitzarmena, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, 47.ean eta hurrengo artikuluetan arautukoa.*
- *Ez da jarduketa-protokolo hutsa (47.1 artikulua, bigarren atala); izan ere, dokumentuan konpromiso ekonomikoak eta egikaritze-konpromisoak jasotzen dira, alde bakoitzeko, alokairuko 111 etxebizitza eraikitzeko helburu komuna lortzera bideratuta.*
- *Hala ere, bigarren eta hirugarren klausulen lehenengo atalek Plangintzako eta Betearazpeneko Hirigintza Hitzarmenen zehaztapen propioak jasotzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz. Horretaz gain, ulertu behar da bigarren klausularen 1. atalaren bigarren paragrafoan hirigintza estandarrei egiten zaion erreferentzia, «**20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparrura mugatzen dela, eta horrela adierazi behar da aipaturiko klausulan.** Bestelako kasuan, hirigintza-hitzarmen orokorrari ematen zaion izapidetzea eman beharko litzaioke dokumentu honi.*
- *VISESA: kapital publiko eta pribatuz osaturiko zuzenbide pribatuko merkataritza-erakundea. (Eusko Jaurlaritza: % 78,64; Kutxabank: % 18,58; Euskadiko Kutxa: % 2,78). Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan sartuta.*

***HITZARMENAK ERAGITEN DUEN ESPARRUAREN AZTERKETA EKONOMIKO OROKORRA***

- *Ez dago VISESAren titulartasun osoko esparruaren azterketa ekonomikorik, babestutako etxebizitzak eta etxebizitza libreak barne hartzen dituenik. Izapidetzen ari den plangintzaren aldaketaren arabera, 27.591 m²-ko eraikigarritasuna du bizitegi-erabileretarako (gehi 1.200 komertzial), eta horietatik 9.827 m² ez daude inolako babesaren mende.*

***PROPOSATZEN DEN EKIMENAREN AZTERKETA EKONOMIKOA ETA USTIAPENARENA (P-2-1)***

- *Proposatzen den ekimenaren azterketa ekonomikorik eta ustiapen integralik ez dago; izan ere, etxebizitzak Alokabideri lagatzean, ez da aipatzen etxebizitzak alokairu bidez ustiatzeari buruzko informaziorik.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Bestaldetik, espedientean dagoen txosten teknikoak ez ditu ontzat eman VISESAk emandako balorazio orokorrak.*
- *Egoera honen aurrean, eta bestelako informaziorik gabe, hasiera batean ez litzateke justifikatuta egongo Udalaren diru-ekarpena ikuspuntu ekonomikotik.*

***TOLOSAKO UDALAREN DIRU-EKARPENAREN IZAERA JURIDIKOA***

- *Kapitaleko dirulaguntza izango litzateke, izenduna.*
- *Horrek dokumentu batzuk aldatzea eskatzen du: Plan Estrategikoa, Dirulaguntzen eranskina... hori dena 2024rako, aurkeztutako plangintzaren arabera.*
- *Ez dakit, aurrekontua arautzen duen legerian oinarrituta, posible ote den 2022an obligazio ekonomikoak onartzea 2024rako. Hori kontuhartzaileak aztertu beharko du.*

***ZERGA- ETA TASA-HOBARIAK***

- *Errenta teknikariak informatu beharko du atal hau, 2.7. klausulan xedatzen dena.*

***LEGE-OINARRIAK***

- ***3/2015 Legeak, ekainaren 18koak, Etxebizitzarenak**, 2.a) artikuluan honako hau xedatzen du: – Botere publikoek aipatutako eskubidea gauzatzeko egoki diren neurriak sustatuko dituzte, honako irizpide hauen arabera: a) Etxebizitza egoitza, bizileku edo etxe egonkorra izatea, eta haren hartzaile edo erabiltzaileek modua edukitzea bertan duintasunez bizitzeko, beren intimitatea babesteko eta familia- eta gizarte-harremanez gozatzeko, hura okupatu eta erabiltzeko legezko eskubidea dutelarik.*
- *Joseba Beristain abokatuak egindako txostena aztertu ondoren, Udalaren esku-hartzearen azterketa garatzen du bigarren eta hirugarren ataletan. Idazkari honek bere adostasuna adierazten du bertan azaldutako lege-oinarriekin. Hala ere, garbi utzi behar da kasu honetan Udalaren sustapen-ekimena kapitaleko dirulaguntza ematera mugatzen dela, hirugarren batek (VISESAk) alokairuko etxe babestuak eraiki ditzan.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Dirulaguntza emate hau, txostenean aipaturiko legetik at, 38/2003 Lege Orokorrak arautzen du, eta horrek bi baldintza nagusi xedatzen ditu:*
  - ***Dirulaguntzaren beharra justifikatzea**. Aurreko atalean aipatu den moduan, ez da nahikoa informaziorik ematen esparru osoaren bideragarritasun ekonomikoari buruz, 111 etxebizitzen eraikuntza eta kudeaketari buruz, eta, beraz, dirulaguntzaren beharrari buruz.*
  - ***Dirulaguntzaren xedea bermatzea**. Modu honetan, Udalak ematen duen laguntza eta esparruan eraikiko diren etxebizitzen xedea eta izaera bermatu behar dira, ez bakarrik eraikitzen edo esleitzen direnean, baizik eta etorkizunean ere bai. Horregatik, bi klausula txertatzea proposatzen da:*

1. *VISESAk lurren titulartasuna euskal sektore publikokoak ez diren pertsona edo erakundeei transferitzen badie, hitzarmen hau automatikoki deuseztatuko da, inolako salaketarik gabe. Kasu horretan, VISESAk Tolosako Udalari itzuli egin beharko dizkio ordaindutako zenbatekoak, kontsumoko prezioen indizearen arabera behar bezala eguneratuta.*
2. *VISESAk etxebizitzen araubidea aldatzen badu, edo haien titulartasuna (azalera-eskubidea, jabetza, etab.) euskal sektore publikokoak ez diren pertsona edo erakundeei transferitzen badie, Tolosako Udalari itzuli egin beharko dizkio ordaindutako zenbatekoak, kontsumoko prezioen indizearen arabera behar bezala eguneratuta».*

*Aurreneko txosten horren ondoren, VISESAk honako dokumentazio hau aurkeztu du 2022ko otsailaren 7an:*

- *Tolosako HAPOko «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» azpieremuko azterketa ekonomiko orokorra, Plan Bereziaren espedienteari erantsi zaiona.*
- *Aipaturiko hirigintza eremuko P-2.1 lursaileko azterketa ekonomiko-finantzarioa, non euskal sektore publikoko erakundeak justifikatzen duen alokairu-erregimeneko etxebizitzak eraikitzeko sustapenak eragindako defizita (3.102.748 €), eta aurreko urteetako emaitzen kontuan erregistratutako bigarren defizita adierazten du, lurzoruaren balio-galeraren ondorioz (2.926.266 €).*
- *ALOKABIDE erakundearen dokumentua, eraikiko diren etxebizitzen kudeaketa defizitarioa izango dela justifikatuz.*
- *Hitzarmenaren proposamena, aldatuta.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Beraz, idazkari honen iritziz, hitzarmenak jasotzen duen Tolosako Udalaren diru-ekarpena justifikaturik egongo litzateke, honako hauek kontuan hartuta:*

- ***3/2015 Legeak, ekainaren 18koak, Etxebizitzarenak**, zioen azalpenean etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea betetzeko erakunde arteko lankidetza jasotzen du. Printzipio horren adierazlea da goian transkribaturiko 2.a) artikulua.*
- *Administrazioen edo sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza hori ezinbestekoa egiten da, are gehiago, aipatu den legeak behin eta berriro azpimarratzen duen etxebizitzen funtzio soziala eta funtzio horretatik sortzen diren ondorioak kontuan harturik, eta horien artean, botere publikoen betebeharra, alokairuko etxebizitza babestuak sustatzeko.*
- *Eusko Jaurlaritzako erakundeek (VISESAk eta ALOKABIDEk) justifikatu duten moduan, alokairuko etxebizitza babestuen sustapena defizitarioa da, eta administrazioen arteko lankidetza eskatzen du.*

*Modu guztietan, idazkari honen iritziz, hitzarmenak argi eta garbi jaso behar ditu honako hauek:*

- *VISESAk eraikiko dituen etxebizitzen izaera aldaezina da, alegia, sustapen publikoko alokairuko etxebizitza sozialak izango dira.*
- *Etxebizitzen jabetza kasu guztietan euskal sektore publikoaren esku egongo da, eta ezin izango zaizkio sektore pribatuari eskualdatu.*

*Baldintza horiek ez betetzeak hitzarmena suntsiaraztea eta Tolosako Udalak ordaindutako zenbatekoak itzultzea ekarriko lituzke.*

## *AZTERKETA JURIDIKOA*

### *1. ALDERDI SINATZAILEAK*

*VISESA Eusko Jaurlaritzaren menpeko eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako sozietate publikoa da, etxebizitzaren arloko lurralde-politika garatzeko. Sozietatea sortu zen 258/1989 Lehendakariaren Dekretuaren ondorioz, eta 96/2011 Dekretuak bere xedea aldatu zuen, Sozietatearen akziodunek 2011ko ekainaren 16an egindako Ezohiko Batzar Nagusian erabakitakoaren arabera. Kontabilitate nazionalaren arloan, sozietatea Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publiko gisa sailkatuta dago.*

*40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, 2.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoei loturik edo haien mende dauden zuzenbide pribatuko entitateak sektore publikoaren barruan sartzen dira, betiere administrazio-ahalak baliatzen dituztenean. Euskadiko Ogasun Nagusiaren*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Antolakuntzari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 19. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu kapital publikoko sozietateak.*

*Tolosako Udalaren kasuan, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 2. artikuluan honako hau xedatzen du:*
*1. Konstituzioak toki-erakundeei bermatzen dien autonomia eraginkorra izan dadin, Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketaren arabera herri-ekintzako arloak arautzen dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legediek ziurtatu beharko diete udalerri, probintzia eta uharteei beren interesen esparruari zuzenean eragiten dioten gai guztietan esku hartzeko eskubidea, eta kasuan kasuko herri-jardueraren ezaugarrien araberako eta toki-erakundearen kudeaketa-gaitasunaren araberako eskumenak eman, deszentralizazioa eta administrazio-kudeaketa herritarrei ahalik eta gehien hurbiltzea printzipiotzat hartuta.*
*2.- Konstituzioan aurreikusitako Estatuko oinarrizko legeek zehaztu beharko dituzte toki-erakundeei aitortuko dizkieten eskumenak edo, nahitaez, legeok araututako arloetan toki-erakundeei dagozkienak.*

*Bestaldetik, lege horren 5. artikuluak honela xedatzen du:*
*Toki-erakundeek beren xedeak betetzeko eta zeinek bere eskumenen esparruan, Konstituzioarekin eta legeekin bat, gaitasun juridiko osoa izango dute ondasun-mota guztiak eskuratu, eduki, galdatu, trukatu, kargatu nahiz besterentzeko, kontratuak egiteko, herri-lan zein herri-zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, obligazioak hartzeko, ezarritako errekurtsoak jartzeko eta legeetan aurreikusitako akzioez baliatzeko.*

*Halaber, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 100. artikuluan honako hau xedatzen du:*
*1.– Toki-erakundeek lankidetza-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko.*
*2.– Lankidetza-hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko —propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak— behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.*

***2. PROPOSATZEN DEN HITZARMENAREN HELBURUAK ETA XEDEA. ALDEEN KONPROMISOAK.***
*Hitzarmenaren testuak honako helburu hau jasotzen du zioen azalpenetan: "aldeen artean helburu erkidea dago, hau da, Tolosako «20.1 Amarotz paper-fabrika»*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*azpieremua garatzea, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketari buruzko dokumentuan xedatutako hirigintza-antolamendua betez. Horrela, besteak beste, aukera dago azpieremu horretan errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko etxebizitzen sustapen bat martxan jartzeko, eta, horrela, dagozkien interesak, konpromisoak eta ekarpenak behar bezala bideratzeko".*

*Helburu hori honela zehazten da:*

- *Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko bizitegi-garapena ahalbidetzea. Horretarako, VISESAk aurkeztuko ditu eta Udalak izapidetuko honako hirigintza-dokumentu hauek:*
  - *Antolamendu xehatuaren aldaketarako dokumentua (HAPB).*
  - *Urbanizatzeko Jarduketa Programa, Urbanizazio Proiektua eta indarrean dagoen birpartzelazio-proiektua aldatzeko dokumentuak.*
  - *Aldaketa horien arrazoi dira Uraren Euskal Agentziak (URA) 2014an egindako uholde-arriskuaren eguneraketaren ondoriozko muga berriak.*
- *HAPBren 2. aldaketaren dokumentuko 2.1 partzelan errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko etxebizitzak sustatzea.*

*Era honetan, VISESAk honako betebehar hauek hartzen ditu:*

- 
- *Goian aipatu diren dokumentu urbanistikoak idatzi eta udalaren aurrean aurkeztea.*
- *Babes publikoko 111 etxebizitzen eraikuntza sustatzea, hirigintza-eremuko 2.1 partzelan, hitzarmenean ezarritako terminoetan.*
- *Halaber, 2.1 partzelari lotutako urbanizazioa egikaritzea, HAPBren 2. aldaketan definitua, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparrurako.*
- *Sustapen horren ondoriozko etxebizitzak (2.1 partzela)* ***errentamendu araubide iraunkorrerako erabiltzea.***
- *Beharrezkoak diren eraikuntza-obra proiektuen eta, hala badagokio, jardueren administrazio baimenak, lizentziak eta abar emateko eskaerak ahalik eta azkarren eta arreta handienaz aurkeztea, izapidetzeko.*

*Tolosako Udalak, bere aldetik, honako konpromiso hauek hartzen ditu:*

- *VISESAk «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremurako planteatutako antolamendu-tresnen (HAPB) eta kudeaketa-tresnen (UJP), birpartzelazio-proiektuaren eta urbanizazio-proiektuaren aldaketak izapidetzea, eta, hala badagokio, onestea.*
- *VISESAri SEI MILA EURO (6.000 €) ordaintzea, 2.1 partzelan sustatutako etxebizitza bakoitzeko (HAPBren 2. aldaketaren izena). Ordainketa hori partzela horretan garatu beharreko sustapenaren helburu sozialari dagokio, hau da,*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzari, errentamendu iraunkorrerako eta ekonomikoki bideragarri egiteko. Partzela horretan sustatuko diren etxebizitzen gutxi gorabeherako kopuruagatik (111 BOE) gutxi gorabeherako zenbatekoa seiehun eta hirurogeita sei mila eurokoa da (666.000 €). Zenbateko hori Tolosako Udalak VISESAri obretarako udal lizentzia ematen dionean ordainduko da.*

- *Erabilera eta jabari publikoko espazioak jasotzea, HAPBren 2. aldaketan zehaztutakoak, eta, orobat, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremurako aldatu beharreko gainerako kudeaketa-tresnek zehaztutakoak.*

- *HAPBren 2. aldaketan eta/edo urbanizazio proiektuaren aldaketan aurreikusitako urbanizazio publikoko obra berriak jasotzea, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremurako.*

- *Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoarekin (Etxebide) lankidetzan aritzea hitzarmen honen bidez sustatutako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan, indarrean dagoen araudiaren arabera.*

- *Beharrezkoak diren eraikuntza-obren proiektuen administrazio baimenak ematea ahalik eta azkarren, eta arreta handienaz izapidetzea.*
- *% 95eko hobaria ematea eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergan (EIOZ)*

*Horietaz gain, hitzarmenak, honako konpromiso hauek zehazten ditu:*
- *Aurreikusitako jardueren kronograma.*
- *Etxebizitza babestuen tipologia: HAPBren 2. aldaketaren ondorioz 2.1 partzelan, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuan, eraiki beharreko etxebizitza guztiak babes publikokoak izango dira. Zehazki, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak. Etxebizitza guztiak errentamendu-araubide iraunkorrera bideratuko dira.*
- *Hartzaileak eta adjudikazio-prozedura.*
- *Etorkizunean etxebizitzak eskualdatzea: VISESAk 2.1 partzelari atxikitako etxebizitzen eta garajeen sustapena amaitu ondoren, etorkizuneko higiezin horien jabetza osoa edo azalera-eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta/edo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko ALOKABIDE SAU sozietate publikoari soilik eskualdatu ahal izango dio, eta bermatu beharko da etxebizitzak hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan alokatzeko erabiliko direla. Beraz, ez zaizkie eskualdatuko sektore pribatuko erakundeei*
- *Jarraipen Batzordea, atzera egitea, indarraldia (4 + 4 urte), berrikuspena, eta ez betetzeak.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

### *3. TOLOSAKO UDALAREN DIRU-EKARPENAREN IZAERA JURIDIKOA.*

*Tolosako Udalak egin beharreko ekarpen ekonomikoa Euskadiko etxebizitza-politikaren printzipio gidarietan kokatzen da; printzipio horiek Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 2. artikuluan aitortzen dira. Beraz, idazkari honen iritziz, ez litzateke inolako oztoporik egongo ekarpen hori gauzatu dadin, dagokion unean.*

*Hala ere, ezin da alde batera utzi VISESAk eraiki beharreko etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoaren ondare-eremuaren barruan geratuko direla, eta Tolosako Udalak ez du ondare-izaerarik izango bere ekarpen ekonomikotik eratorritako ondasunetan (hemen gogoratu behar da bere unean aprobetxamendu urbanistikotik eratorritako onura jaso zuela, eta lurzoruaren udal ondareari atxiki behar zitzaiola). 2/2006 Legeak Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, honako hau xedatzen du Lurzoruaren Ondareari buruz, kasu honetan aplikagarria dena:*

- *Udalak egingo duen diru-transferentziaren kopurua udal lurzoru-ondareari atxikitako baliabidea dela , 113.3.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.*
- *Proposatzen den xedea bat datorrela Legearen 115.1 artikuluan araututako xede nagusiarekin, zera, babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntza.*
- *Ondasunen zuzeneko besterentzeari dagokionez, Legearen 117. artikuluak honako hau xedatzen du: Ondasunak zuzen-zuzenean besterendu ahal izango dira, lehiaketarik egin gabe, kasuan kasuko arauek ezarritako eskakizunak beteta, honako kasu hauetan: a) Besterentzea administrazio publikoen arteko edo administrazio publikoen eta beren ente instrumentalen arteko hitzarmenen ondorioz egiten denean.*
- *Doako edo balioaren azpiko eskualdaketari dagokionez, 118. artikuluak honako hau xedatzen du: Aurreko artikuluetan ezarritakoa hala izanik ere, lurzorua-ondare publikoaren ondasunak doan edo beren balioaren azpian laga ahal izango dira honako egoera hauetako bat gertatzen denean: a) Lagatakoaren hartzailea administrazio publikoa edo bere ente instrumentalak direnean eta 115. artikuluan zehaztutako xedeetako bat daukatenean.*

*Ondoriozta genezake kasu horietan legeak eraikinen edo lursailen eskualdaketa arautuko lukeela, baina ezerk ez du eragozten interpretatzea eskudiruaren eskualdaketak ere estaldura izango lukeela, betiere lurzoru-ondare publikokoa bada (kasu honetan Udalarena) eta 115. artikuluan arauturiko xedeetara destinatuko balitz.*

*Beraz, kasu honetan arau-espezialitatearen printzipioa aplikatuz, lege bereziak (2/2006 Legeak) lehentasuna du lege orokorraren aurrean (38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzak arautzen dituenak). Aurreko txostenean adierazitakoak ez luke, hots, nahikoa oinarri juridikorik, eta zuzendu egin behar da, Hirigintza arloko legearen nagusitasuna azpimarratuz.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

### *4. LANKIDETZA HITZARMENAREN ARAUDIA*

*Aurreko puntuetan aipatu den moduan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikuluak, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetza arautzen ditu, dituzten xedeak ahalik eta era onenean bete ditzaten.*

*Aipatutako Legearen 57. artikuluak, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetza ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetza hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.*

*Halaber, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak Lankidetza hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin:* ***"1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera****.*
*Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.*
*Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio".*

*Argitu behar da hitzarmen honen xedea ez dela ezein kontratu gauzatzea, baizik eta sektore publikoko bi erakunderen arteko lankidetza antolatzea, bien eskumeneko interes publikoko helburuak lortzeko. Hitzarmen hauek kontratazio publikotik at daude, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Hitzarmenaren baliozkotasunari eta eraginkortasunari dagokionez, 40/2015 Legearen 48. artikuluak bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:*

- *Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua).*
- *Hitzarmen batek barnean hartzen dituenean finantza-konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat aurrekontu-legerian xedatuta dagoena bete beharko da hitzarmen horren ondoriozko gastuekin eta hitzarmen horren arabera*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*konprometitutako funtsekin zerikusia duten kudeaketan,justifikazioan eta gainerako jarduketetan (48.4 artikulua).*

- *Finantza-konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasangarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean (48.5 artikulua).*
- *Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino (48.6 artikulua).*
- *Hitzarmenak aldeen adostasuna azalduz perfekzionatzen dira (48.8 artikulua).*

*Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikuluak xedatzen ditu, honako hauek, hain zuzen:*

*a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.*

*b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.*

*c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.*

*d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.*

*e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.*

*f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta plantea daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.*

*g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.*

*h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:*

*1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.*

*2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea*

*Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.*

*Jardunbideari dagokionez, Lankidetza hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko gardentasun atarian, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.*

## *5. HITZARMENA ONARTZEKO PROZEDURA ETA ORGANO ESKUDUNA*

*Lankidetza hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatzaren Osoko Bilkurarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluak xedaturikoaren arabera. Halaber, aipaturiko Legearen 47.2.ñ) artikuluan xedaturikoa kontuan harturik, hitzarmenaren onespenak korporazioko kideen gehiengoaren aldeko botoa behar du, Eusko Jaurlaritzaren sektore publikoko erakunde bati udal titulartasuneko ondasun bat doan lagatzea arautzen duelako.*

*Beraz, hori dena kontuan hartuta, honako ebazpen-proposamen hau egiten da:*

## *EBAZPEN-PROPOSAMENA*

***LEHENA**.- Onartzea Tolosako Udalaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko lankidetza hitzarmena, errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko 111 etxebizitza eraikitzeko Tolosako HAPOko «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» hirigintza esparruko P-1 lursailean, honako klausula hauen arabera:*

***«Lehenengoa. - XEDEA***

*Lankidetza hitzarmen honen xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko bizitegi-garapena ahalbidetzea. Garapen hori egingo dute “20.1 Amarotz paper-fabrika” azpieremuaren 2. aldaketaren (VISESAk aurkeztua) dokumentuak ezarritako hirigintza-antolamenduaren arabera.*

*Garapen horretarako, beharrezkoa izango da azpiesparru horren antolamendu xehatuaren aldaketa onestea (HAPB), indarrean dauden urbanizatzeko jarduketa programa eta urbanizazio proiektua aldatzea eta indarrean dagoen birpartzelazio-proiektua egokitzea.*

*Halaber, Tolosako alokairuko babes publikoko etxebizitzako beharra asetzeko, eta aurreikusitako aldaketaren emaitza gisa, hitzarmen honen beste xedea da HAPBren 2. aldaketaren dokumentuko 2.1 partzelan errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko etxebizitzak sustatzea.*

*Babes publikoko etxebizitza horien eraikuntzaren sustapena, 2.1 partzelan, “VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA” sozietate publikoak egingo du.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*VISESA Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikita dago, eta hirugarrenekin kontratatuko ditu dagozkion eraikuntza-proiektuak eta obrak, lehiaketa publiko bidez.*

***Bigarrena.-TOLOSAKO UDALAREN KONPROMISOAK***

*Tolosako Udalak konpromiso hauek hartuko ditu:*

1. *Izapidetzea VISESAk «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako planteatutako antolamendu-tresnen (HAPB) eta kudeaketa-tresnen (UJP), birpartzelazio-proiektuaren eta urbanizazio-proiektuaren aldaketak, eta, hala badagokio, onestea.*
   *Ildo horretatik, eta kontuan hartuta gaur egun izapidetzen ari dela Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua, Tolosako Udalak, hura onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpieremurako aplikagarriak badira, HAPBren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du, erregulazio berria aplikatu ahal izateko VISESAk garatutako sustapenetan, zeinak, hala badagokio, egikaritzeke geratuko bailirateke.*

2. *VISESAri SEI MILA EURO (6.000 €) ordaintzea, 2.1 partzelan sustatutako etxebizitza bakoitzeko (HAPBren 2. aldaketaren izena). Ordainketa hori partzela horretan garatu beharreko sustapenaren helburu sozialari dagokio, hau da, erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzari, errentamendu iraunkorrerako eta ekonomikoki bideragarri egiteko.*
   *1. dokumentu gisa, aipatutako partzelan garatu beharreko sustapen horren "ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa" erantsi da.*
   *Partzela horretan sustatuko diren etxebizitzen gutxi gorabeherako kopuruagatik (111 BOE) gutxi gorabeherako zenbatekoa seiehun eta hirurogeita sei mila eurokoa da (666.000 €).*
   *Tolosako Udalak bere gain hartzen duen konpromiso ekonomikoa gehienekoa da eta ezin da gainditu, eta hori ordaintzearekin bere betebehar guztiak iraungitzen dira, eta, beraz, baita alokairu iraunkorreko erregimenean babestutako etxebizitzak sustatzeko, eraikitzeko, kudeatzeko, mantentzeko eta abarrerako egin beharreko edozein ordainketa gehigarri ere.*
   *Zenbateko hori ordainduko da Tolosako Udalak VISESAri obretarako udal lizentzia ematen dionean.*

3. *Erabilera eta jabari publikoko espazioak jasotzea, HAPBren 2. aldaketan zehaztutakoak, eta, orobat, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako aldatu beharreko gainerako kudeaketa-tresnek zehaztutakoak.*

4. *HAPBren 2. aldaketan eta/edo Urbanizazio Proiektuaren aldaketan aurreikusitako urbanizazio publikoko obra berriak jasotzea, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako.*

5. *Lankidetzan aritzea Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoarekin (Etxebide) hitzarmen honen bidez sustatutako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan, honako hauen arabera: babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua; 2012ko urriaren 15eko Agindua; eta hori aldatzen duen etxebizitza-eskatzaileen erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak adjudikatzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 26ko 210/2019 Dekretua.*

6. *Beharrezkoak diren eraikuntza-obren proiektuen administrazio-baimenak ematea ahalik eta azkarren, eta arreta handienaz izapidetzea.*

7. *% 95eko hobaria ematea babes ofizialeko etxebizitzetara (erregimen orokorrekoak zein erregimen berezikoak) edo etxebizitza sozialetara bideratutako eremuan VISESAk egindako obra berriko sustapenei, eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergan*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*(EIOZ), Instalazio, Eraikuntza eta Obren Udal Ordenantzaren 10.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*Horretarako, Ordenantzak ezarritakoaren arabera, Udalak konpromisoa hartu du, sustapen horien (babes publikoko etxebizitza) inguruabar sozialak direla-eta, obra horiek Udalbatzak interes bereziko edo onura publikoko obra deklaratuko dituela.*

*Era berean, Udalak konpromisoa hartu du hirigintza-zerbitzuengatiko, obra-lizentziengatiko eta beste zerbitzu tekniko batzuengatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzan ezarritako gehieneko hobaria emateko, hitzarmenaren xede den sustapenean errentamendura bideratutako erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko baitira.*

***Hirugarrena.- "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" (VISESA) SOZIETATE PUBLIKOAREN KONPROMISOAK***

*VISESA sozietate publikoak konpromiso hauek hartzen ditu:*

1. *HAPBren 2. aldaketa idaztea eta Udalari aurkeztea, legez izapidetu eta onetsi dezan, bai eta honako hauek ere: UJPren aldaketak, birpartzelazio proiektuaren egokitzapena eta «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuaren urbanizazio proiektuaren aldaketa.*

   *Ildo horretatik, eta kontuan hartuta gaur egun izapidetzen ari dela Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua, Tolosako Udalak, hura onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpieremurako aplikagarriak badira, VISESAK HAPBren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du, erregulazio berria aplikatu ahal izateko garatutako sustapenetan, zeinak, hala badagokio, egikaritzeke geratuko bailirateke.*

2. *HAPBren 2. aldaketagatik, 2.1 partzelari dagokion babes publikoko etxebizitzen sustapena eta eraikuntza gauzatzea, hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.*

   *Halaber, 2.1 partzelari lotutako urbanizazioa egikarituko da, HAPBren 2. aldaketan definitua, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako.*

3. *Sustapen horren ondoriozko etxebizitzak (2.1 partzela) errentamendu-araubide iraunkorrerako erabiltzea.*

4. *Beharrezkoak diren eraikuntza-obra proiektuen eta, hala badagokio, jardueren administrazio-baimenak, lizentziak eta abar emateko eskaerak ahalik eta azkarren eta arreta handienaz aurkeztea, izapidetzeko.*

***Laugarrena.-JARDUERAREN KRONOGRAMA***

*Hitzarmen honi 2. dokumentu gisa erantsi zaion kronograman honako hauek jasotzen dira: HAPBren 2. aldaketa «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremua aurreikusitako plangintza aldatzeko jarduketak UJPren aldaketa, birpartzelazio proiektuaren egokitzapena, urbanizazio proiektuaren aldaketa, urbanizazio obren exekuzioa eta 2.1 partzelari dagozkion eraikuntza-obren exekuzioa garatzeko aurreikusitako epeak.*

*Data horiek orientagarriak dira, eta UJPren aurreikuspenen eta VISESAren jarduteko gaitasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gerta litezkeen aldaketen menpe daude.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***<u>Bosgarrena.-</u> <u>2.1 PARTZELAN ERAIKIKO DEN ETXEBIZITZA BABESTUKO SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK</u>***

- ***Etxebizitza babestuaren tipologia***

*HAPBren 2. aldaketaren ondorioz, 2.1 partzelan, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuan eraiki beharreko etxebizitza guztiak babes publikokoak izango dira. Zehazki, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak.*

*Etxebizitza guztiak errentamendu araubide iraunkorrera bideratuko dira.*
*2.1 partzelan, gutxi gorabehera 111 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak sustatuko dira.*

- ***Hartzaileak eta adjudikazio-prozedura***

*Alokairuko etxebizitza horiek adjudikatzeko, etxebizitza eskuratzeko baldintzak eta eskakizunak hartuko dira kontuan (etxebizitza-premia, diru-sarrerak, erroldatzea, gehieneko errenta-prezioak, etab.).*

*Eskakizun horiek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ebazpen bidez zehaztuko dira, eta ebazpen horrekin hasiko da adjudikazio-prozedura.*

*Aurrekoari kalterik egin gabe, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen errentamenduko adjudikaziodunek egiaztatu beharko dute, gainera, erreferentzia gisa hartzen den datan, Tolosan gutxienez urtebetez erroldatuta egon direla, etenik gabe, edo 3 urtez txandaka, azken 5 urteetan.*

- ***Kronograma***

*2.1 partzelan egin beharreko lanen gutxi gorabeherako kronograma <u>2. dokumentu</u> gisa erantsi den kronograman zehaztuta dago.*

*Gutxi gorabeherako data horiek aurreikusitako programazio-datak dira, eta VISESAren jarduteko gaitasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik aldaketak egin ahal izango dira.*

- ***Etorkizunean higiezinak eskualdatzea***

*VISESAk 2.1 partzelari atxikitako etxebizitzen eta garajeen sustapena amaitu ondoren, etorkizuneko higiezin horien jabetza osoa edo azalera-eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta/edo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko ALOKABIDE SAU sozietate publikoari soilik eskualdatu ahal izango dio, eta bermatu beharko da etxebizitzak hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan alokatzeko erabiliko direla. Beraz, ez zaizkie eskualdatuko sektore pribatuko erakundeei*

*Eskualdatzea egiten den unetik, eskuratzailea VISESAren lekuan subrogatuko da, hitzarmen honetatik eratorritako eskubide eta betebeharrei dagokienez.*

***<u>Seigarrena.-</u>JARRAIPEN BATZORDEA***

*Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat eratzea. Batzordea alde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute, eta honako eginkizun hauek izango ditu: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla zaintzea; horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea; erreferentziako etxebizitza babestuen sustapenak egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea; sustapenen babes-araubideak unean uneko etxebizitza-premietara egokitzea eta/edo mailakatzea; eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabeherei erantzutea.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Era berean, Jarraipen Batzordeak ebaluatuko du hitzarmen honetan ezarritako terminoak eta baldintzak VISESAk «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuan gauzatu beharreko sustapenen garapenera heda daitezkeen, betiere sustapen horiek babes publikoko etxebizitzak sustatzera bideratuta badaude.*

***Zazpigarrena. -ATZERA EGITEA***

*2.1 partzelan erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzen sustapena garatzean gerta litezkeen hainbat inguruabarrengatik (sustapenaren konplexutasun teknikoa, ustekabeko gastuak, etab.), eta ondorioz, urbanizazioaren, deskontaminazioaren eta/edo kontrata egikaritzearen kostua hitzarmen honi erantsitako azterlan ekonomikoan jasotako guztizko estimazioaren % 5 baino gehiago bada (13.965.631,41 euro, BEZik gabe), VISESAk sustapen horretan atzera egin ahal izango du.*

*VISESAk atzera egitea aukeratzen badu, eraikingintzako obra hasi baino lehen jakinarazi beharko dio Tolosako Udalari, eta Tolosako Udalak egin dizkion ekarpen guztiak itzuli beharko ditu.*

***Zortzigarrena. INDARRALDIA***

*Lankidetza-hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik aurrera. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmeneko aldeek berariaz adostu ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urterako gehienez, edo hura azkentzea.*

***Bederatzigarrena. -BERRIKUSPENA***

*Hitzarmen hau edozein unetan berrikusi eta, hala badagokio, aldatu ahal izango da, aldeetako batek eskatuta, bi sinatzaileek aho batez hala adosten badute, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuz.*

***Hamargarrena.- EZ BETETZEAK***

*Dokumentu honetan jasotako betebeharrak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, eta aldeak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Aipatutako suntsitzea eragiten duen aldeak sortu diren kalte eta galera guztiak ordaindu beharko ditu, bai beste aldeari, bai hirugarren onustedunei».*

***BIGARRENA.-*** *Tolosako Udalaren diru-ekarpena honako baldintza hauekin lotzea:*

- *VISESAk eraikiko dituen etxebizitzen izaera aldaezina izango da, alegia, sustapen publikoko alokairuko etxebizitza sozialak izango dira.*
- *Etxebizitzen jabetza kasu guztietan euskal sektore publikoaren esku egongo da, eta ezin izango zaizkio sektore pribatuari eskualdatu.*

***HIRUGARRENA.-*** *Tolosako Udalak, dagokion unean, bere aurrekontuetan beharrezkoa den konpromiso-kreditua ezartzeko prozedura burutzea.*

***LAUGARRENA.-*** *Alkate-lehendakariari ahalmena ematea izenpe ditzan hitzarmena eta eranskinak eta hura egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***BOSGARRENA.-*** *Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea.*

***SEIGARRENA****.- Erabaki hauek VISESA erakundeari jakinaraztea.*

## 4.- FISKALIZAZIO TXOSTENA ETA TXOSTEN EKONOMIKOA

**2022ko otsailaren 9an, jarduneko kontuhartzaileak egindako fiskalizazio-txostena aldekoa eta baldintzatua da eta, laburbilduz, honako hau ondorioztatu du:**

***«FISKALIZAZIO TXOSTENAREN ONDORIOAK***

*Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin, lehen deskribatutako moduan eta baldintzetan:*

*ALDEKOA ETA BALDINTZATUA*

*Fiskalizazioa adostasunez egiten da, baina* ***gastuaren onarpena urte anitzeko gastu konpromisoak onartzearen baldintzapean egongo da.***

*Proposamena egiten den momentu honetan, urte anitzeko gastu konpromisoak ezin dira hartu 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluak xedatutakoaren arabera, horretarako, proiektuaren gauzatzea hasi behar delako hura onartzen den ekitaldian bertan edo hurrengoan.*

*Aurrekontua gauzatzea obligazioa onartzea da.*

*Hitzarmenaren bigarren klausularen arabera, Tolosako Udalak VISESAri 666.000,00 euro ordaintzeko konpromiso ekonomikoa hartzen du, «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko 2.1 lurzatian alokairuko babes publikoko etxebizitzen sustapena ekonomikoki bideragarri egiteko.*

*Zenbateko hori Tolosako Udalak VISESAri obretarako udal lizentzia ematen dionean ordainduko dio. Eta egin beharreko lanen kronogramak, gutxi gorabeherakoa bada ere, aurreikusten du obra-lizentzia 2024. urtean emango dela. Une horretan onartzen du obligazioa Udalak.*

*Beraz, 2023ra arte ezin du Udalak bere gain hartu hitzarmenaren bigarren klausulan adierazten den 666.000,00 euro ordaintzeko konpromiso ekonomikoa.*

*Bestalde, hasieran aipatutako araudiak Kontuhartzailetza honi ematen dion ahalmenarekin bat etorriz,* ***honako ohar hau egiten dut:***

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***Diru ekarpenaren izaera juridikoa.***
*Hitzarmenaren bigarren klausulan aipatzen den 666.000,00 euroko ekarpena, nire ustez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) aplikazio-eremuaren barruan dago, 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*Hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen duenean:*

*• DLOn aurreikusitakoa bete beharko du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (SPAJL) 48.7 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*• Tolosako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra aplikatu behar zaio.*

*• Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartzea eskatzen du.*

*Gainera, dirulaguntza ezin izango du izenduna izan, ezin baitira urte anitzekoak izan. Urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza eman daiteke, salbuespenezko arrazoietan oinarrituta, DLOren 22.2.c) artikuluak jasotzen duen bezala».*

**Ondoren, 2022ko otsailaren 10ean, jarduneko kontuhartzaileak txosten ekonomikoa egin du:**

***«AURREKARIAK***

*«20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko P.2.1 lursailean alokairuko etxebizitza babestuak sustatzeko VISESArekin lankidetza hitzarmena sinatzeko proposamena jaso da.*

*Hitzarmenaren bigarren klausulan, Tolosako Udalak VISESAri 666.000,00 euro ordainduko dizkiola aurreikusten da, aipatutako partzelaren sustapena ekonomikoki bideragarria egiteko.*

*Hitzarmenaren proposamenari erantsita "Estudio económico parcela P2.1" dokumentua aurkeztu zuen VISESAk, justifikatzeko Udalaren ekarpenaren beharra.*

*Udalaren ustetan, aurkeztutako azterketa ekonomikoa partziala zen, batetik, ez zelako sartzen etxebizitza libreko P.1 partzela, eta bestetik, ez zelako ematen etxebizitzak alokairu bidez ustiatzeari buruzko informaziorik.*

*Egoera horretan, ez zen justifikatu Udalaren ekarpena ikuspuntu ekonomikotik.*

*Udalak eskatuta, VISESAk dokumentazio osagarri hau aurkeztu du:*

- *Amarotz paper-fabrikako 2.1 partzelari buruzko azterketa ekonomiko-finantzarioaren azalpena.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Alokabide sozietate publikoak maizterrek ordaindutako errentei buruz emandako datuak, alokairuko etxebizitza babestuen sustapena defizitarioa dela justifikatzeko*

- *Ez du P.1 partzelaren inguruko informaziorik aurkeztu*

***AZTERKETA EKONOMIKOA***

*Aurkeztutako azterketa ekonomikoa bi zatitan banatu da:*

1. *Babestutako 111 etxebizitzaren sustapena eta Alokabideren esku jartzea*

- *Alokairu-erregimeneko etxebizitzen ustiapena*

*1.- Babestutako 111 etxebizitzen eraikuntza*

*VISESAk aurkeztutako sustapenaren kostuen eta sustatu beharreko etxebizitzen kalifikazioaren prezioaren kalkuluen arabera, hau da etxebizitzak eraikitzeko aurreikusten duen emaitza:*

| | | |
|---|---|---|
| ***Gastuak*** | | *19.202.537,00* |
| ***Sarrerak*** | | |
| *Salmenta* | | *15.100.789,00* |
| *Dirulaguntzak* | | *999.000,00* |
| *Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza* | *333.000,00* | |
| *Tolosako Udalaren dirulaguntza* | *666.000,00* | |
| *Sarrerak, guztira* | | *16.099.789,00* |
| ***EMAITZA*** | | ***-3.102.748,00*** |

*Beraz, etxebizitzen eraikuntza defizitarioa da.*

*Nolanahi ere, emaitza justifikatzeko, obrak amaitzean dagokion egiaztagiri-likidazioa aurkeztu beharko du VISESAk.*

*2.- Alokairu-erregimeneko etxebizitzen ustiapena*

*Alokabide sozietate publikoak emandako datuen arabera, 60 urte beharko dira inbertsioa berreskuratzeko, ordaindu gabekoak, desokupazioa, mantenimendua eta kudeaketa- eta finantza-gastuak kontuan hartu gabe, baina ez du adierazi zein izan den kalkulua egiteko erabili den formula.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Datu horiekin inbertsioaren oreka finantzarioaren estimazio bat egin dugu, eta txosten honen amaieran erantsi da.*

*Estimazioa egiteko, kontuan hartu dira:*

- *urteko errenta (Alokabide)*
- *ez ordainduak eta okupatu gabeak (% 10)*
- *gastu finkoak (OHZ-IBI eta asegurua)*
- *errotazio kostuak (Alokabide)*
- *finantziazioa (maileguaren bidez, 25 urterako eta % 2ko interesarekin)*
- *urteko eguneratzea: % 2.*

*Ez da prebentziorako mantenimendua sartu, daturik ezin izan delako lortu.*

*Egindako estimazioaren ondorioa da inbertsioa errekuperatzeko epea 55 urte ingurukoa izango dela».*

**Tolosako Udaleko Lurraldea Batzordeak, 2022ko otsailaren 16an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstentzioak:** Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

***IRIZPENA***

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udalaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko lankidetza-hitzarmena, errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko 111 etxebizitza eraikitzeko Tolosako HAPOko «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» hirigintza eremuko P.2.1 lursailean, honako klausula hauen arabera:

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***«Lehenengoa. - XEDEA***

*Lankidetza hitzarmen honen xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieremuko bizitegi-garapena ahalbidetzea. Garapen hori egingo dute "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpieremuaren 2. aldaketaren (VISESAk aurkeztua) dokumentuak ezarritako hirigintza-antolamenduaren arabera.*

*Garapen horretarako, beharrezkoa izango da azpiesparru horren antolamendu xehatuaren aldaketa onestea (HAPB), indarrean dauden urbanizatzeko jarduketa programa eta urbanizazio proiektua aldatzea eta indarrean dagoen birpartzelazio-proiektua egokitzea.*

*Halaber, Tolosako alokairuko babes publikoko etxebizitzako beharra asetzeko, eta aurreikusitako aldaketaren emaitza gisa, hitzarmen honen beste xedea da HAPBren 2. aldaketaren dokumentuko 2.1 partzelan errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko etxebizitzak sustatzea.*

*Babes publikoko etxebizitza horien eraikuntzaren sustapena, 2.1 partzelan, "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" sozietate publikoak egingo du. VISESA Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikita dago, eta hirugarrenekin kontratatuko ditu dagozkion eraikuntza-proiektuak eta obrak, lehiaketa publiko bidez.*

***Bigarrena.-TOLOSAKO UDALAREN KONPROMISOAK***

*Tolosako Udalak konpromiso hauek hartuko ditu:*

*2. Izapidetzea VISESAk «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako planteatutako antolamendu-tresnen (HAPB) eta kudeaketa-tresnen (UJP), birpartzelazio-proiektuaren eta urbanizazio-proiektuaren aldaketak, eta, hala badagokio, onestea.*

*Ildo horretatik, eta kontuan hartuta gaur egun izapidetzen ari dela Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua, Tolosako Udalak, hura onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpieremurako aplikagarriak badira, HAPBren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du, erregulazio berria aplikatu ahal izateko VISESAk garatutako sustapenetan, zeinak, hala badagokio, egikaritzeke geratuko bailirateke.*

*2. VISESAri SEI MILA EURO (6.000 €) ordaintzea, 2.1 partzelan sustatutako etxebizitza bakoitzeko (HAPBren 2. aldaketaren izena). Ordainketa hori partzela horretan garatu beharreko sustapenaren helburu sozialari dagokio, hau da, erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzari, errentamendu iraunkorrerako eta ekonomikoki bideragarri egiteko. 1. dokumentu gisa, aipatutako partzelan garatu beharreko sustapen horren "ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa" erantsi da.*

*Partzela horretan sustatuko diren etxebizitzen gutxi gorabeherako kopuruagatik (111 BOE) gutxi gorabeherako zenbatekoa seiehun eta hirurogeita sei mila eurokoa da (666.000 €).*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Tolosako Udalak bere gain hartzen duen konpromiso ekonomikoa gehienekoa da eta ezin da gainditu, eta hori ordaintzearekin bere betebehar guztiak iraungitzen dira, eta, beraz, baita alokairu iraunkorreko erregimenean babestutako etxebizitzak sustatzeko, eraikitzeko, kudeatzeko, mantentzeko eta abarrerako egin beharreko edozein ordainketa gehigarri ere.*

*Zenbateko hori ordainduko da Tolosako Udalak VISESAri obretarako udal lizentzia ematen dionean.*

*3. Erabilera eta jabari publikoko espazioak jasotzea, HAPBren 2. aldaketan zehaztutakoak, eta, orobat, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako aldatu beharreko gainerako kudeaketa-tresnek zehaztutakoak.*

*4. HAPBren 2. aldaketan eta/edo Urbanizazio Proiektuaren aldaketan aurreikusitako urbanizazio publikoko obra berriak jasotzea, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako.*

*5. Lankidetzan aritzea Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoarekin (Etxebide) hitzarmen honen bidez sustatutako etxebizitzak adjudikatzeko prozeduretan, honako hauen arabera: babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua; 2012ko urriaren 15eko Agindua; eta hori aldatzen duen etxebizitza-eskatzaileen erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak adjudikatzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 26ko 210/2019 Dekretua.*

*6. Beharrezkoak diren eraikuntza-obren proiektuen administrazio-baimenak ematea ahalik eta azkarren, eta arreta handienaz izapidetzea.*

*7. % 95eko hobaria ematea babes ofizialeko etxebizitzetara (erregimen orokorrekoak zein erregimen berezikoak) edo etxebizitza sozialetara bideratutako eremuan VISESAk egindako obra berriko sustapenei, eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergan (EIOZ), Instalazio, Eraikuntza eta Obren Udal Ordenantzaren 10.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*Horretarako, Ordenantzak ezarritakoaren arabera, Udalak konpromisoa hartu du, sustapen horien (babes publikoko etxebizitza) inguruabar sozialak direla-eta, obra horiek Udalbatzak interes bereziko edo onura publikoko obra deklaratuko dituela.*

*Era berean, Udalak konpromisoa hartu du hirigintza-zerbitzuengatiko, obra-lizentziengatiko eta beste zerbitzu tekniko batzuengatiko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzan ezarritako gehieneko hobaria emateko, hitzarmenaren xede den sustapenean errentamendura bideratutako erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko baitira.*

***Hirugarrena.- "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI SA/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" (VISESA) SOZIETATE PUBLIKOAREN KONPROMISOAK***

*VISESA sozietate publikoak konpromiso hauek hartzen ditu:*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*1. HAPBren 2. aldaketa idaztea eta Udalari aurkeztea, legez izapidetu eta onetsi dezan, bai eta honako hauek ere: UJPren aldaketak, birpartzelazio proiektuaren egokitzapena eta «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuaren urbanizazio proiektuaren aldaketa.*

*Ildo horretatik, eta kontuan hartuta gaur egun izapidetzen ari dela Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua, Tolosako Udalak, hura onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpieremurako aplikagarriak badira, VISESAK HAPBren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du, erregulazio berria aplikatu ahal izateko garatutako sustapenetan, zeinak, hala badagokio, egikaritzeke geratuko bailirateke.*

*2. HAPBren 2. aldaketagatik, 2.1 partzelari dagokion babes publikoko etxebizitzen sustapena eta eraikuntza gauzatzea, hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.*

*Halaber, 2.1 partzelari lotutako urbanizazioa egikarituko da, HAPBren 2. aldaketan definitua, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremurako.*

*3. Sustapen horren ondoriozko etxebizitzak (2.1 partzela) errentamendu-araubide iraunkorrerako erabiltzea.*

*4. Beharrezkoak diren eraikuntza-obra proiektuen eta, hala badagokio, jardueren administrazio-baimenak, lizentziak eta abar emateko eskaerak ahalik eta azkarren eta arreta handienaz aurkeztea, izapidetzeko.*

***Laugarrena.-JARDUERAREN KRONOGRAMA***

*Hitzarmen honi 2. dokumentu gisa erantsi zaion kronograman honako hauek jasotzen dira: HAPBren 2. aldaketa «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremua aurreikusitako plangintza aldatzeko jarduketak UJPren aldaketa, birpartzelazio proiektuaren egokitzapena, urbanizazio proiektuaren aldaketa, urbanizazio obren exekuzioa eta 2.1 partzelari dagozkion eraikuntza-obren exekuzioa garatzeko aurreikusitako epeak.*

*Data horiek orientagarriak dira, eta UJPren aurreikuspenen eta VISESAren jarduteko gaitasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gerta litezkeen aldaketen menpe daude.*

***Bosgarrena.- 2.1 PARTZELAN ERAIKIKO DEN ETXEBIZITZA BABESTUKO SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK***

- ***Etxebizitza babestuaren tipologia***

*HAPBren 2. aldaketaren ondorioz, 2.1 partzelan, «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuan eraiki beharreko etxebizitza guztiak babes publikokoak izango dira. Zehazki, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak.*

*Etxebizitza guztiak errentamendu araubide iraunkorrera bideratuko dira.*
*2.1 partzelan, gutxi gorabehera 111 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak sustatuko dira.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- ***Hartzaileak eta adjudikazio-prozedura***

*Alokairuko etxebizitza horiek adjudikatzeko, etxebizitza eskuratzeko baldintzak eta eskakizunak hartuko dira kontuan (etxebizitza-premia, diru-sarrerak, erroldatzea, gehieneko errenta-prezioak, etab.).*
*Eskakizun horiek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ebazpen bidez zehaztuko dira, eta ebazpen horrekin hasiko da adjudikazio-prozedura.*
*Aurrekoari kalterik egin gabe, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen errentamenduko adjudikaziodunek egiaztatu beharko dute, gainera, erreferentzia gisa hartzen den datan, Tolosan gutxienez urtebetez erroldatuta egon direla, etenik gabe, edo 3 urtez txandaka, azken 5 urteetan.*

- ***Kronograma***

*2.1 partzelan egin beharreko lanen gutxi gorabeherako kronograma* *2. dokumentu* *gisa erantsi den kronograman zehaztuta dago.*
*Gutxi gorabeherako data horiek aurreikusitako programazio-datak dira, eta VISESAren jarduteko gaitasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik aldaketak egin ahal izango dira.*

- ***Etorkizunean higiezinak eskualdatzea***

*VISESAk 2.1 partzelari atxikitako etxebizitzen eta garajeen sustapena amaitu ondoren, etorkizuneko higiezin horien jabetza osoa edo azalera-eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta/edo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren mendeko ALOKABIDE SAU sozietate publikoari soilik eskualdatu ahal izango dio, eta bermatu beharko da etxebizitzak hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan alokatzeko erabiliko direla. Beraz, ez zaizkie eskualdatuko sektore pribatuko erakundeei*

*Eskualdatzea egiten den unetik, eskuratzailea VISESAren lekuan subrogatuko da, hitzarmen honetatik eratorritako eskubide eta betebeharrei dagokienez.*

***Seigarrena.-JARRAIPEN BATZORDEA***

*Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren Jarraipen Batzorde bat eratzea. Batzordea alde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute, eta honako eginkizun hauek izango ditu: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla zaintzea; horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea; erreferentziako etxebizitza babestuen sustapenak egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea; sustapenen babes-araubideak unean uneko etxebizitza-premietara egokitzea eta/edo mailakatzea; eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabeherei erantzutea.*
*Era berean, Jarraipen Batzordeak ebaluatuko du hitzarmen honetan ezarritako terminoak eta baldintzak VISESAk «20.1. Amarotz paper-fabrika» azpieremuan gauzatu beharreko sustapenen garapenera heda daitezkeen, betiere sustapen horiek babes publikoko etxebizitzak sustatzera bideratuta badaude.*

***Zazpigarrena. -ATZERA EGITEA***

*2.1 partzelan erregimen orokorreko babes publikoko etxebizitzen sustapena garatzean gerta litezkeen hainbat inguruabarrengatik (sustapenaren konplexutasun teknikoa, ustekabeko gastuak, etab.), eta ondorioz, urbanizazioaren, deskontaminazioaren eta/edo kontrata egikaritzearen kostua hitzarmen honi erantsitako azterlan ekonomikoan jasotako guztizko*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*estimazioaren % 5 baino gehiago bada (13.965.631,41 euro, BEZik gabe), VISESAk sustapen horretan atzera egin ahal izango du.*
*VISESAk atzera egitea aukeratzen badu, eraikingintzako obra hasi baino lehen jakinarazi beharko dio Tolosako Udalari, eta Tolosako Udalak egin dizkion ekarpen guztiak itzuli beharko ditu.*

***Zortzigarrena. INDARRALDIA***

*Lankidetza-hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik aurrera. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmeneko aldeek berariaz adostu ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urterako gehienez, edo hura azkentzea.*

***Bederatzigarrena. -BERRIKUSPENA***

*Hitzarmen hau edozein unetan berrikusi eta, hala badagokio, aldatu ahal izango da, aldeetako batek eskatuta, bi sinatzaileek aho batez hala adosten badute, hitzarmenari dagokion gehigarria sinatuz.*

***Hamargarrena.- EZ BETETZEAK***

*Dokumentu honetan jasotako betebeharrak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, eta aldeak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Aipatutako suntsitzea eragiten duen aldeak sortu diren kalte eta galera guztiak ordaindu beharko ditu, bai beste aldeari, bai hirugarren onustedunei».*

**BIGARRENA.-** Tolosako Udalaren diru-ekarpena honako baldintza hauekin lotzea:

- VISESAk eraikiko dituen etxebizitzen izaera aldaezina izango da, alegia, sustapen publikoko alokairuko etxebizitza sozialak izango dira.
- Etxebizitzen jabetza kasu guztietan euskal sektore publikoaren esku egongo da, eta ezin izango zaizkio sektore pribatuari eskualdatu.

**HIRUGARRENA.-** Tolosako Udalak, dagokion unean, bere aurrekontuetan beharrezkoa den konpromiso-kreditua ezartzeko prozedura burutzea.

**LAUGARRENA.-** Alkate-lehendakariari ahalmena ematea izenpe ditzan hitzarmena eta eranskinak eta hura egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasunaren atarian.

**SEIGARRENA**.- Erabaki hauek VISESA erakundeari jakinaraztea.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose Mª Villanueva Telleria.

**Abstentzioa:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Tolosako Udalaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko lankidetza hitzarmena, errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko 111 etxebizitza eraikitzeko Tolosako HAPOko «20.1-AMAROTZ PAPER-FABRIKA» hirigintza esparruko P-1 lursailean.

7. **BERRESTEA 2022/239 ALKATETZA DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ UDALAK LEGEZKO ORDEZKARITZA EMATEN DUEN EULEN SAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAN HASITAKO 67/2022 PROZEDURA ARRUNTEAN, KEAOREN EBAZPENAREN AURKA, ZEINAK UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ERABAKIAREN AURKAKO ERREKURTSOA EZETSI ZUEN.**

2022/239 Alkatetza Dekretuak honela dio:

| ***ALKATETZAREN DEKRETUA*** | ***DECRETO DE ALCALDÍA*** |
|---|---|
| ***OLATZ PEON ORMAZABAL andreak, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak*** *emana, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 117. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2. artikuluko j) puntuan, 21.1 artikuluko k) puntuan eta 21.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.* | *Emitido por* ***Dña. OLATZ PEON ORMAZABAL, alcaldesa-presidenta del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa****, en virtud de lo dispuesto en el artículo 117 y en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y en el apartado j) del art. 22.2, en el apartado k) del art. 21.1 y en el art. 21.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.* |
| ***AURREKARIAK*** | ***ANTECEDENTES DE HECHO*** |
| *Lehena.- Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak,* | *Primero.- El pleno de la corporación del* |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

2021eko apirilaren 29an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, Tolosako udalerriko udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko kontratuaren espedientea onartzea erabaki zuen, prozedura ireki bidez esleitu beharrekoa (2021SABI0007 espedientea), eta lizitazioari hasiera eman zion.

Excmo. Ayuntamiento de Tolosa en sesión ordinaria celebrada el 29 de abril de 2021 resolvió, entre otros, aprobar el expediente de de contratación del contrato de limpieza de edificios municipales y mobiliario urbano del municipio de Tolosa, a adjudicar por procedimiento abierto (expediente: 2021SABI0007) y dio inicio a la licitación.

Bigarrena.- Legez aurreikusitakoaren arabera lizitazioa egin ondoren, 2021eko uztailaren 20an kontratazio-mahaiak kontratua KELSALIM ZERBITZUAK SL enpresari esleitzea proposatu zuen, eta Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko uztailaren 26an egindako batzarrean, enpresa horri esleitu zion kontratua.

Segundo.- Una vez realizada la licitación conforme a lo legalmente previsto, el 20 de julio de 2021 la mesa de contratación propuso adjudicar el contrato a la empresa KELSALIM ZERBITZUAK, S.L. y la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 26 de julio de 2021, adjudicó el contrato a la citada empresa.

Hirugarrena.- 2021eko abuztuaren 25ean, KEAOren errekerimendu bat jaso zen EULEN S.A. enpresak kontratazio-arloko errekurtso berezi bat aurkeztu baitzuen Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko kontratua esleitzeko ebazpenaren aurka, prozedura ireki bidez esleitu beharrekoa (2021SABI0007 espedientea).

Tercero.- El 25 de agosto de 2021 se recibe un requerimiento del OARC, tras haber presentado la empresa EULEN, S.A. un recurso especial en materia de contratación frente a la resolución de adjudicación del contrato de limpieza de edificios municipales y mobiliario urbano del municipio de Tolosa, a adjudicar por procedimiento abierto (expediente: 2021SABI0007).

Laugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, 2021eko abenduaren 3ko EB 2021/165 Ebazpenaren bidez, errekurtso hori ezetsi zuen eta esleipen-prozeduraren etendura kendu zuen.

Cuarto.- El Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante Resolución EB 2021/165 de 3 de diciembre de 2021, desestimó dicho recurso y levantó la suspensión del procedimiento de adjudicación.

Bosgarrena.- 2021eko abenduaren 16an, Tolosako udalerriko udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko kontratua formalizatu zen, prozedura ireki bidez esleitu beharrekoa (2021SABI0007 espedientea), Tolosako Udalaren eta KELSALIM ZERBITZUAK SL enpresaren artean.

Quinto.- El 16 de diciembre de 2021 se formalizó el contrato de limpieza de edificios municipales y mobiliario urbano del municipio de Tolosa, a adjudicar por procedimiento abierto (expediente: 2021SABI0007) entre el Ayuntamiento de Tolosa y la empresa KELSALIM ZERBITZUAK, S.L.

Seigarrena.- 2022ko otsailaren 8an, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak

Sexto.- El 8 de febrero de 2022 el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi remite

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*jakinarazpen bat bidali zion Tolosako Udalari, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularraren 2022ko otsailaren 8ko Ebazpenaren edukia jakinarazteko. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari jakinarazi zitzaion administrazio-espedientea bidali zitzaiola eta interesdunak epatu zirela 2021eko abenduaren 3ko 191/2021 Ebazpenari buruz (Errekurtsoa EB 2021/165).*

*una notificación al Ayuntamiento de Tolosa donde notifica el contenido de la Resolución de 8 de febrero de 2022, de la Titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales, que comunica a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la remisión del expediente administrativo y el emplazamiento a los interesados relativo a la Resolución 191/2021, de 3 de diciembre de 2021, (Recurso EB 2021/165).*

*Zazpigarrena.- Ebazpen horren bigarren puntuan aurreikusitakoaren arabera, prozeduran interesdun gisa, Tolosako Udalak 9 eguneko epea du jakinarazpen hori jasotzen duenetik administrazioarekiko auzi-errekurtso honetan aurkezteko:*
*-067/2022 prozedura arrunta*
*- IZO EAE: 00.01.3-22/000060*
*- IZO BJKN : 48020.33.3-2022/0000060*

*Séptimo.- A tenor de lo previsto en el punto segundo de dicha resolución, como interesado en el procedimiento, el Ayuntamiento de Tolosa dispone de un plazo de 9 días desde la recepción de la citada notificación para poder personarse en el recurso Contencioso-Administrativo siguiente:*
*- Procedimiento Ordinario 067/2022*
*- N.I.G.P.V.: 00.01.3-22/000060*
*- N.I.G.CGPJ: 48020.33.3-2022/0000060*

*Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiak eskatu zuen jarritako errekurtsoari zegokion espedientea eta Udalak osorik bidali zuen. Orain, 49/2021 prozedura arruntean, Administrazioarekiko Auzien Errekurtsoan, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiak Tolosako Udala agertzera behartu du eta horretarako letratu baten asistentzia behar du.*

*El Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Donostia-San Sebastián solicitó el expediente correspondiente al recurso interpuesto y el Ayuntamiento lo remitió completo. Ahora, en el procedimiento ordinario 49/2021, en el Recurso Contencioso-Administrativo, el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Donostia-San Sebastián ha obligado al Ayuntamiento de Tolosa a comparecer y para ello necesita la asistencia de un letrado.*

### *ZUZENBIDEKO OINARRIAK*

*Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, alkateei eta toki-erakundeetako presidenteei dagokie kontratazio-organo gisa eskumenak izatea obra, hornidura, zerbitzu, obra-emakida eta zerbitzu-emakida kontratuei eta administrazio-kontratu bereziei dagokienez, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada baliabide arrunten ehuneko 10a baino handiagoa, ez eta edozein kasutan sei miloi*

### *FUNDAMENTOS DE DERECHO*

*De conformidad con lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*eurokoa ere, urte anitzeko luzapenak barne horien iraupena lau urte baino gehiagokoa ez denean, balizko luzapenak barne urte guztien zenbateko metatuak ez badu gainditzen adierazitako ehunekoa, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokiena, ezta adierazitako zenbatekoa ere.*

*estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.*

*Era berean, xedapen horren 2. puntuan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari dagozkio, aurreko paragrafoan aipatutako kontratuei dagokienez, kontratazio-organo gisa toki-erakundeak egiten dituen eskumenak, haien balioa edo iraupena kontuan hartuta alkateari edo toki-erakundeko lehendakariari ez dagozkionean, aurreko paragrafoaren arabera. Era berean, Osoko Bilkurari dagokio SPKLren 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren pleguak onartzea.*

*Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el punto 2 de la misma D.A., corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de la LCSP.*

*Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikuluko j) puntuaren arabera, osoko bilkurari dagokio akzio judizialak eta administratiboak erabiltzea eta udalbatzaren eskumeneko gaietan korporazioa defendatzea. Era berean, lege bereko 21.1 artikuluko k) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz, Alkate-udalburuari dagokio, bere eskumeneko gaietan, akzio judizialak eta administratiboak egikaritzea eta udalaren defentsa egitea, baita beste organo bati eskuordetu dizkionean ere, urgentziazko kasuetan, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan. Eskumen hori ezin delarik eskuordetu, 21.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Por otro lado, de conformidad con lo dispuesto en el apartado j) del art. 22.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, corresponde al pleno el ejercicio de acciones judiciales y administrativas y la defensa de la corporación en materias de competencia plenaria. Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el apartado k) del art. 21.1 del mismo texto legal, el ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del ayuntamiento en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro órgano, y, en caso de urgencia, en materias de la competencia del Pleno corresponden a la alcaldesa-presidenta, no siendo delegable dicha atribución de conformidad con lo dispuesto en el art. 21.3.*

*Horretan guztian oinarrituta, alkate-lehendakari honek bere eskumenen erabileran*

*Dado todo lo anterior, esta alcaldesa-presidenta en el uso de sus competencias*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

## *EBAZTEN DU*

***Lehenengoa.-*** *Tolosako Udala pertsonatzea EULEN SA merkataritza-sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan:*
*- 067/2022 prozedura arrunta*
*- IZO EAE: 00.01.3-22/000060*
*- IZO BJKN: 48020.33.3-2022/0000060*

***Bigarrena.-*** *Tolosako Udalaren defentsa juridikoa ematea ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA abokatu jaunari prozedura osoan eta prozedura amaitu arte.*

***Hirugarrena.-*** *Horretarako, hiru mila eta bostehun euroko aurrekontua eta dagokion BEZa ( % 21) onartzea, eta dagokion kontratua egitea Udalaren aurrekontuko 0300.226.04.920.00 partidaren kontura.*

***Laugarrena.-*** *Osoko bilkurari ebazpen honen berri ematea lehenengo bilkuran, hura berresteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluaren arabera.*

*Bete bedi dekretua eta jakinarazi bekie legezko eran interesdunei.*

*Ebazpen hau irmoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, honako errekurtso hauek aurkez daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsoa aurkezteko Alkateari, hilabete bateko epean, jakinarazpen*

## *RESUELVE*

***Primero.-*** *Que el Excmo. Ayuntamiento de Tolosa se persone en el recurso Contencioso-Administrativo presentado por la mercantil EULEN,S.A. ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco:*
*- Procedimiento Ordinario 067/2022*
*- N.I.G.P.V.: 00.01.3-22/000060*
*- N.I.G.CGPJ: 48020.33.3-2022/0000060*

***Segundo.-*** *Otorgar la defensa jurídica del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa en el procedimiento de referencia al abogado D. ALEJANDRO CASTRO UBETAGOIENA durante todo el procedimiento y hasta la finalización del mismo.*

***Tercero.-*** *A tal efecto, aprobar el presupuesto presentado por el mismo por importe de tres mil quinientos euros más el IVA correspondiente (21%) y celebrar el correspondiente contrato con cargo a la partida 0300.226.04.920.00 del presupuesto municipal.*

***Cuarto.-*** *De conformidad con lo dispuesto en el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, dar cuenta al pleno en la primera sesión que celebre para su ratificación.*

*Cúmplase el decreto y notifícase en forma legal a los interesados.*

*La presente Resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra la misma cabe interponer los siguientes recursos:*

*Con carácter previo a la vía judicial, el interesado podrá interponer recurso de reposición ante la alcaldesa-presidenta en el*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, berraztertzeko errekurtsoaren ordez administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du interesdunak Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.*

*Bestalde, administrazioak berraztertzeko errekurtsoari erantzuten ez badio, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen denetik..*

*Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.*

*Alkate-lehendakaria*

*Olatz Peon Ormazabal*

*plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

*En caso contrario, el interesado podrá sustituir el recurso de reposición por un recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la notificación del presente acuerdo. El presente recurso se interpondrá ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián.*

*Por otra parte, si el recurso de reposición no fuera contestado por la Administración, el interesado dispondrá de un plazo de seis meses desde la interposición del recurso contencioso-administrativo.*

*La alcaldesa-presidenta que ordena y firma y yo, la secretaria municipal que doy fe, en Tolosa, el día de la firma electrónica.*

*Udal idazkaria*

*Begoña Garmendia Vazquez*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2021/239 Alkatetza Dekretua berrestea, zeinaren bidez Udalak legezko ordezkaritza ematen duen EULEN SAk Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan hasitako 67/2022 prozedura arruntean, KEAOren ebazpenaren aurka, zeinak udal eraikinak garbitzeko kontratua esleitzeko erabakiaren aurkako errekurtsoa ezetsi zuen.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

**8. <u>BERRESTEA 2022/403 DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ KIROLZER SL MERKATARITZA-SOZIETATEARI SARBIDEA EMATEN ZAION, DAGOKION PROZEDURA-UNEAN, TOLOSAKO UDAL KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALARI BURUZKO ESPEDIENTEA KONTSULTATZEKO</u>.**

**Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe kirol zinegotziak bilkura utzi du puntu honen hasieran eta amaitu ondoren itzuli da.**

2022/403 Alkatetza Dekretuak honela dio:

*2021CSER0002*

***<u>ALKATETZA DEKRETUA</u>***

*Olatz PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak emana, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 117. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.*

***IKUSITA***

***GAIA: KIROLZER SL ENPRESAREN ESKABIDEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN LIZITAZIOAN.***

***I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK***

| | |
|---|---|
| *Kontratuaren helburua* | *Tolosako Udalaren kirol-instalazioen kudeaketa integrala.* |
| *Unitate kudeatzailea* | *Kirol Saila* |
| *Espedientea* | *2021CSER0002* |

***<u>II.- AURREKARIAK</u>***

*Lehenengoa.- 2021eko otsailaren 5ean, lizitazioaren aurretiko iragarkia argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren gehigarrian (AO/S S25 60045-2021-ES).*

*Bigarrena.- Udalaren Osoko Bilkurak, 2021eko irailaren 30ean, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko kontratazio-prozedura onartu zuen, eta lizitazioari hasiera eman zion.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Hirugarrena.- Lizitazioaren iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian aurreikusitako moduan argitaratu zen 2021eko urriaren 5ean. Era berean, urriaren 12an, dagokion zuzenketa argitaratu zen EBAOn.*

*LAUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko ezarritako epearen barruan, kontratazio-organoak ez zuen inongo interesdunen informazio-eskaerarik jaso, eta instalazioak bisitatzeko eskaera baino ez zuen jaso.*

*Bosgarrena.- Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, 2021eko azaroaren 29an, bi enpresak (KIROLZER SL eta BPXPORT XXI SL) aurkeztutako proposamenaren A gutun-azala ireki zen. Bi enpresak onartu zituzten lizitazioan.*

*Seigarrena.- Administrazio-prozedura osoa egin ondoren, SPKLn eta gainerako legeria aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorriz, 2022ko otsailaren 8an, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari proposatu zion erreferentziako kontratua BPXPORT XXI SL enpresari adjudikatzea, enpresa horrek lortu baitzuen puntuaziorik handiena lizitazioan.*

*Zazpigarrena.- 2022ko otsailaren 11n, KIROLZER SL enpresaren bi eskabide sartu ziren udal erregistroan, 2095 eta 2123 zenbakiekin:*
*- 2095: pleguan jasotako formula aplikatzeko modua azaltzeko eskatzen du.*
*- 2123: administrazio-espediente osoaren kopia digitala eskatu zuen.*

## ***III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK***

### ***1.- Administrazio baldintza partikularren plegua***

*Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora, 139. artikuluan honako hau xedatzen du interesdunen proposamenei dagokienez:*

> *1. Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, **eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea**, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea ere Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko ere.*

*Era berean, administrazio baldintza partikularren pleguaren (ABPP) 24. klausulak honela xedatzen du:*

> *Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen dituela*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*kontratua arautzen duten baldintza-agirietan aurreikusitako klausula edo baldintza guztiak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.*

*Beraz, aurreko bi aginduak irakurrita, zalantzarik gabe ondorioztatzen da KIROLZER SL eta BPXPORT XXI SL enpresek, proposamenak aurkeztu dituztenez,* ***baldintzarik gabe onartu dituztela pleguetan aurreikusitako klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.***

***2.- Urteko kanonaren formula***

*Kirolzer SLk bere lehenengo idazkia oinarritzen du, lizitazio-kanonaren ondoriozko puntuazioa kalkulatzeko aplikatu beharreko formula aipatuz; horretarako, honelako adierazpenak egin ditu: «Kanonaren puntuazioak erabaki du adjudikazioa»; «alde handi hori gertatzen da urteko kanonaren eskaintzaren puntuazioan». «Kirolzerrek klausula-orriaren irizpide horren aurka ez zuen errekurtsorik jarri, kanona modu jakin batean aplikatzen zela iritzita. Kontratazio-atariaren bidez ere ez zion kontsultarik egin Kontratazio Mahaiari, arrazoi beragatik. Hau da, argi eta garbi edukitzeagatik nola funtzionatzen zuen "formulak" eskainitako kanona puntuatzeko»; «Kontratazio-Mahaiaren puntuatzeko modua ez dator bat, lortzen eta esleitzen diren puntuengatik, alde honen iritzian formulak funtzionatzen duen moduaren arabera eman beharko lukeen emaitzarekin»; eta abar.*

*Adierazpen horiek guztiek premisa hau dute abiapuntu: erabiltzen den formula eta haren aplikazioa «ez da ez argia, ez ulergarria», nahiz eta formula hori Tolosako Udalak lizitazio guztietan erabiltzen duena izan. Beraz, KIROLZER SLk izan behar du formularen funtzionamendua ulertu ez duen enpresa lizitatzaile bakarra, eta hori legitimoa eta are ulergarria izan badaiteke ere, harrigarria dirudi enpresa, formula aplikatzean zalantza txikienaren aurrean, botere adjudikatzailearekin harremanetan jarri ez izana aurretiazko informazioa eskatzeko.*

*KIROLZER SL enpresaren idatzia ikusita, adierazi baitu «bere garaian iragarri genuen, alde hau baloratzen ari da, eta, seguru asko, adjudikazioa errekurritu egingo du» lizitatzailearen asmoa ez dabil irizpide bat ondo aplikatu beharraren inguruan, baizik eta, orain, kontratua adjudikatuta dagoela, kanon irizpidearen formula zuzendu nahi du; hau da,* ***gibel-asmoa du, kontratua esleitu ondoren, lizitazioa arautzen duen pleguaren edukia errekurritzea, zeina baldintzarik gabe, salbuespenik edo erreserbarik gabe onartu baitu****.*

*ABPPren I. eranskineko 19. puntuan adierazitako balorazio-irizpideei dagokienez, egiaztatu da guztira 100 puntu izanik, zifren edo ehunekoen bidez baloratu ezin diren irizpideek (memoria teknikoa) 48 puntuko ponderazioa dutela, eta zifren edo ehunekoen bidez baloratu behar diren irizpideen ponderazioa 52 puntukoa dela. Azken apartatu horren barruan, "urteko kanona" irizpideak 47 puntu adierazten ditu. Hau da, ABPPren irakurketa soil batetik ondoriozta daiteke lizitazioaren pisua ia berdin banatzen dela irizpide kualitatiboen eta prezio-irizpidearen artean. Hau da, zehatz-mehatz betetzen da kontratazio publikoaren oinarrizko printzipioetako bat: kontratuak adjudikatzeko, hainbat adjudikazio-irizpide erabiltzen dira,* ***kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.***

*Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, ulertzen da proposamena aurkeztu nahi zuen edozein enpresak ahalegina egin behar zuela bi alderditan: alde batetik, eskaintza tekniko on bat*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*aurkezten, eta, bestetik, ezarritako gutxieneko kanon bat gorantz hobetzan. Ondorio hori oso modu errazean lor zitekeen, eta kontratazio-organoari kontsulta egiteko arrazoi ere izan zitekeen, baina KIROLZER SL enpresak ez dio kontsultarik egin organo horri..*

*Formularen edukiari dagokionez, ABPPren I. eranskineko 19.2 puntuan dago definituta, eta honako hau zehazten du:*

| *Irizpidea* | *Formularen justifikazioa* | *Pond.* |
|---|---|---|
| *Urteko kanona*<br>*Formula:*<br>$P_R = 47 – 2 \times (\Delta_K - \Delta_R)$ | *Kanonaren puntuazioan (PR) 47 puntu emango zaizkio urteko kanon altuena eskaintzen duen proposamenari, eta 0 puntu lizitazio-kanona berdintzen duenari. Gainerako proposamenetarako (R), formula erabiliko da. Formula horretan, lizitazio-kanonarekiko igoerak (ΔR) eskainitako kanon altuenaren igoerarekin alderatuko dira (ΔK) eta portzentualki adieraziko dira. Lizitazio-kanonetik beherako eskaintzarik ez da onartuko.* | *47 puntu* |

*Udal honen ustez, formularen interpretazioak ez du inolako zailtasunik, eta, hori gutxi balitz, C gutun-azala irekitzean, Kontratazio-Mahaiak 2022ko urtarrilaren 25ean egindako bileran, urratsez urrats argitu ziren haren funtzionamendu osoa eta emaitzen arrazoia. Jendaurreko irekiera-ekitaldi hartan, lizitatzaile, hautagai eta interesdun guztiak gonbidatuta zeuden parte hartzera, eta ez zen KIROLZER SL enpresako ordezkaririk agertu.*

*KEAOren beraren doktrinak ezartzen duen bezala (108/2019 Ebazpena), «el hecho de que para obtener la máxima puntuación haya de realizarse una baja del 100 % del precio de licitación desvirtúa, de hecho, la ponderación asignada al criterio y abunda en el carácter anti-competitivo y desincentivador de la fórmula elegida».*

*Kasu honetan, eta KEAOk ebazpen horretan ezartzen duena kontuan hartuta, puntuazioa ez da lizitazio-kanonari dagokionez bakarrik zehazten; izan ere, horrela balitz, irizpideak galdu egingo luke helburuetako bat, hau da, eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan alderatzea (2014/24/EB Zuzentarauaren 90. kontuan hartuzkoa). Eraginkortasun hori ez litzateke beteko horrelako formula batekin. Gainera, ziurgabetasuna ezabatzea lehia askearen printzipioaren aurkakoa da, eta aukera ematen du enpresek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluak debekatutako kolusiozko jardunbideak hartzeko (84/2017 KEAOren Ebazpena); horregatik, Tolosako Udalak bi egoerak uztartzen dituen formula bat ezartzen du: lizitazioaren prezioarekiko alderaketa eta lizitatzaileen eskaintzen arteko alderaketa.*

*Bestalde, hemen esan behar da KIROLZER SL enpresak **ez duela adierazi zein den formularen aplikazioari buruzko zalantza, eta formula horren aplikazioari buruzko informazioa eskatzera mugatu dela.***

*Formulen aplikazioari dagokionez, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak behin baino gehiagotan adierazi du honako hau: «... Sobre los parámetros a los que debe ajustarse el órgano de contratación al establecer la fórmula para evaluar las*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*proposiciones económicas dijimos en nuestra Resolución 906/2014 que "lo único que impone en este sentido el TRLCSP es que se concrete en el Pliego la fórmula elegida, que esta atribuya una puntuación superior a la oferta más barata y menor a la más cara y que se guarde la* ***adecuada proporción en la atribución de puntos*** *a las intermedias"... "Fuera de estos principios elementales, el órgano de contratación cuenta con un margen de libertad para decantarse por una u otra fórmula, para optar por una regla de absoluta proporcionalidad o, por el contrario, introducir* ***modulaciones en ella que no sean arbitrarias ni carentes de lógica*** *o, en fin,* ***distribuir la puntuación*** *por la baja que cada oferta realiza respecto del presupuesto de licitación o en proporción a la oferta más económica».*

*Beraz, eta horretan gehiago ez eragiteko, argi dago* ***botere adjudikatzaile ororen asmoa dela azkenean jokoan jarritako puntu kopurua ahalik eta progresiboena izatea****, eskainitako gehieneko jaitsieraren arabera; helburu hori aurrez aipatutako formula aplikatuta lortu da.*

*Azkenik, SPKLren 138.3 artikuluak, interesdunei eman beharreko informazioari dagokionez, hau xedatzen du::*

| |
|---|
| *3. Kontratazio-organoek lizitazio-prozeduran interesdun diren guztiei emango diete, eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitu baino 6 egun lehenago beranduenez, baldintza-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria; horretarako, proposamenak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea iragan baino 12 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori interesdunek, salbu eta lizitazioa arautzen duten baldintza-agirietan beste eperen bat ezartzen denean. Urgentetzat sailkatu diren espedienteetan, eskaintzak aurkezteko finkatuta dagoen epea amaitu aurreko sei eguneko epea, beranduenez, 4 egunekoa izango da erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta prozedura irekiaren eta murriztuaren bidez adjudikatzen badira.*<br>*Eskatutakoa baldintza-agirietan edo gainerako dokumentazioan ezarritakoari buruzko argitasunak direnean eta administrazio-klausula partikularren agiriak hala ezartzen duenean, erantzunak lotesleak izango dira, eta, kasu horretan, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira, lizitazio-prozeduran berdintasuna eta konkurrentzia bermatzeko moduan.* |

*Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, ikusi da KIROLZER SL enpresak ez zuela pleguen edukiari buruzko zalantzarik izan, osorik onartu zituela proposamena aurkeztean, eta ez zuela parte hartu formularen funtzionamendua azaldu zuen kontratazio-mahai publikoaren ekitaldian. Beraz, ez da momentu egokia formularen funtzionamendua berriro argitzeko, eta, aurkeztutako idazkiaren edukia ikusita, badirudi enpresak ondo baino hobeto ezagutzen duela formula hori.*

***3.- Espedienterako sarbidea.***

*Kirolzer SL bere idatzian adierazi du «bere garaian iragarri genuen, alde hau baloratzen ari da, eta, seguru asko, adjudikazioa errekurritu egingo du» eta «...prozedurako une egokian, Tolosako Udalari azalduko dio, dagokion administrazio-errekurtsoaren bidez». Beraz, argi dago enpresa, bere eskubideari dagokionez, baloratzen ari dela Sektore Publikoko Kontratuei*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikuluan aipatzen den kontratazio-arloko errekurtso berezia aurkeztea. SPKLren 44.5 artikuluan xedatutakoaren arabera,* ***artikulu horretan errekurtso bereziaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketen aurka, ez da administrazio-errekurtso arruntik jarriko****. Horregatik, 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete behar da, sarbideari, epeei eta abarri dagokienez.*

*Hona zer dioen 44.2 artikuluak errekurtso berezia jar dakiekeen jarduketei buruz:*

> *2. Honako jarduera hauen kontra jar daiteke errekurtsoa:*
>
> *a) Lizitazio-iragarkiak, baldintza-agiriak, eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-dokumentuak.*
> *b) Adjudikazio-prozeduran bete diren izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedura bat betetzen jarraitzea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo kalte konponezina ekartzen badute bidezko eskubide edo interesetan. Nolanahi ere, iritziko zaio kontratazio-mahaiak edo -organoak hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea erabakitzen duen egintzetan gertatzen direla aurreko inguruabarrak, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duen egintzetan, horien barnean direla nabarmenki baxuegiak izateagatik 149. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.*
> *c) Adjudikazio-erabakiak.*
> *d) Lege honen 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.*
> *e) Bitarteko propioei emandako mandatuen formalizazioa, bitarteko propio horiek legezko baldintzak betetzen ez dituzten kasuetan.*
> *f) Emakidak erreskatatzeko erabakiak.*

*Beraz, aurrekoaren arabera, eta kontuan hartuta enpresak, proposamena aurkeztuta,* ***baldintza-pleguan aurreikusitako klausula edo baldintza guztien edukia onartu duela baldintzarik, salbuespenik edo erreserbarik gabe****, adjudikazio-egintza bera izango litzateke errekurritu daitekeen jarduketa bakarra.*

*Aurrekoaren arabera, 52. artikuluan xedatutakoa hartu beharko litzateke kontuan espedientera sartzeari dagokionez:*

> *52. artikulua. Espedienterako sarbidea.*
> *1. Baldin eta interesdunak kontratazio-espedientea aztertu nahi badu errekurtso berezia aurkeztu baino lehen, kontratazio-organoari eskatu beharko dio hori, eta hark agerian jarri beharko du hori, baina legean ezarritako konfidentzialtasun-mugak igaro gabe.*
> *2. Interesdunek espedientea ikusteko eskaera errekurtso berezia jartzeko epearen barruan aurkeztu ahalko dute, eta kontratazio-organoak eskaera jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan utzi beharko die ikusten. Eskaera hori egiteak ez du inolaz ere geraraziko errekurtso berezia jartzeko epea.*
> *3. Aurreko 1. apartatuan jasotako aurreikuspenak ez betetzeak ez ditu salbuetsiko interesdunak errekurtso berezia legezko epearen barruan aurkezteko betebeharretik...*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Halaber, aurrekoa zehazteko, SPKLren 50. artikuluan xedatutakoa hartu behar da kontuan. Kasu honetan, ez gaude ezohiko errekurtsoa jartzeko epearen barruan, eta, beraz,* ***ez da prozedurako une egokia espedienterako sarbidea eskatzeko.***

*Garrantzitsua da hemen adieraztea gardentasunari, informazio publikora iristeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 29ko 19/2014 Legeak honako hau ezartzen duela lehen xedapen gehigarrian:*

| |
|---|
| *Disposición adicional primera. Regulaciones especiales del derecho de acceso a la información pública.*<br>*1. El acceso de los interesados a los documentos de los procedimientos administrativos en trámite se rige por lo que determina la legislación sobre régimen jurídico y procedimiento administrativo.*<br>*2. El acceso a la información pública en las materias que tienen establecido un régimen de acceso especial es regulado por su normativa específica y, con carácter supletorio, por la presente ley.* |

*Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, kontratazio-espedienteetan dagoen informaziorako sarbidea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoa izango da. Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.*

***4.- Espediente osoaren kopia digitala.***

*Aurreko puntuan adierazitakoa kontuan hartuta, eta Udal honek administrazio-izapideak artifizialki ez luzatzeko duen borondate onez, nahiz eta hori ez den espedientea eskuratzeko prozedura-une egokia, Kirolzer SLk eskatutako kopiari buruzko informazioa erantsi zaio txosten honi.*

*814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen arloko erabakiak berrikusteko eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia antolatzeko prozedura berezien erregelamendua onartzen duenak, honako hau xedatzen du kontratazio-espedienteetara sartzeari dagokionez:*

| |
|---|
| *Artículo 16. Acceso al expediente de contratación.*<br>*1. Si el interesado desea examinar el expediente de contratación de forma previa a la interposición del recurso especial, deberá solicitarlo al órgano de contratación, el cual tendrá la obligación de ponerlo de manifiesto sin perjuicio de los límites de confidencialidad establecidos en los artículos 140 y 153 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.*<br>*La solicitud de acceso al expediente podrán hacerla los interesados dentro del plazo de interposición del recurso especial, debiendo el órgano de contratación facilitar el acceso en los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la solicitud.*<br>*2. El incumplimiento de las previsiones contenidas en el apartado anterior por el órgano de contratación no eximirá a los interesados de la obligación de interponer el recurso especial dentro del plazo establecido en el artículo 44.2 del texto refundido de la Ley de Contratos del* |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Sector Público. Ello no obstante, el citado incumplimiento podrá ser alegado por el recurrente en su recurso con los efectos establecidos en el artículo 29.3 del presente reglamento.*

*814/2015 Errege Dekretu horren 29. artikuluak ñabardura garrantzitsuak ezartzen ditu espedienteetara sartzeari dagokionez, eta esanahi berezia dute kasu honetan.*

*Artículo 29. Puesta de manifiesto del expediente y alegaciones.*
*1. La puesta de manifiesto del expediente a los restantes interesados comparecidos en el procedimiento de adjudicación para formular alegaciones, se hará por la Secretaría del Tribunal durante el plazo de cinco días hábiles de conformidad con lo dispuesto en los artículos 46.3 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y 105.3 de la Ley 31/2007, de 30 de octubre.*
*2. Los interesados podrán* ***tomar cuantas notas necesiten*** *para formular sus alegaciones y solicitar copia o certificado de aquellos documentos contenidos en el expediente que* ***sean indispensables para ejercer su derecho de defensa****, que se expedirán por la Secretaría siempre que los medios disponibles lo permitan y no se vea afectada la eficacia del funcionamiento de los servicios públicos.*
***La Secretaría no estará obligada a aceptar ninguna solicitud genérica respecto de la expedición de copias.***
*3. Cuando el recurrente hubiera solicitado en el trámite previsto en el artículo 16 vista del expediente y el órgano de contratación se la hubiera denegado, el Tribunal, a la vista de lo alegado en el escrito de interposición y del informe del órgano de contratación, podrá conceder al recurrente el acceso al expediente de contratación en sus oficinas, con carácter previo al trámite de alegaciones, y por plazo de cinco días hábiles, para que proceda a completar su recurso, concediendo en este supuesto un plazo de dos días hábiles al órgano de contratación para que emita el informe correspondiente y cinco días hábiles a los restantes interesados comparecidos en el procedimiento para que efectúen alegaciones.*

*SPKLren 133. artikuluak bereziki aipatzen du kontratazio-espedienteen edo haien zatien konfidentzialtasuna:*

*133. artikulua. Konfidentzialtasuna.*
*1. Kontratazio-organoek ezingo dute ezagutarazi enpresaburuek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa, non eta besterik ez den xedatzen informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legedian eta adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz lege honetan bildutako xedapenetan. Konfidentzialtasuna, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta bere edukia dela-eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen gainerako edozein informaziotan gorde beharko da, dela lizitazio-prozesu horretan, dela geroko gainerako prozesuetan.*
*Kontratazio-organoak eta haren mendeko zerbitzuek konfidentzialtasuna dela-eta duten betebeharra ezingo da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Soilik, zabalkunde murriztua duten dokumentuetara hedatu ahalko da, eta ez, inolaz ere ez, publikoki eskuragarriak diren dokumentuetara.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Konfidentzialtasunaren betebeharrak ezingo du eragotzi, ezta ere, egindako kontratuen atal ez-konfidentzialen zabalkunde publikoa; besteak beste, kasua bada, likidazioa, obra egiteko amaierako epeak, kontratatu eta azpikontratatu diren enpresak eta, nolanahi ere, eskaintzaren funtsezko atalak eta kontratuaren geroztiko aldaketak, betiere une oro errespetatuz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa.*
*2. Kontratistak gorde beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada. Betebehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, non eta kontratuak edo baldintza-agiriek ez duten epe luzeagoa ezartzen; epe hori, nolanahi ere, zehatza eta denboran mugatua izango da.*

*Hala ere, SPKLren 139.2 artikuluak, interesdunen proposamenei dagokienez, xedatzen du proposamenak isilpekoak izango direla proposamenak ireki arte.*

*139. artikulua. Interesdunen proposamenak.*
*2. Proposamenak isilpekoak izango dira, eta neurriak hartu beharko dira proposamenak ireki arte isilpean gordeko direla bermatzeko, hargatik eragotzi gabe 143., 175. eta 179. artikuluek enkante elektroniko batean, lehia-elkarrizketa batean edo berrikuntzarako elkartzearen prozedura batean parte hartzen dutenei eman beharreko informazioari buruz ezarritakoa.*

*Beraz, ukaezina da legegileak lizitatzaileen proposamenen sekretuari ematen dion orientazioa, gardentasuna eta kontratazio-espedienteetarako sarbidea uztartzen baititu, SPKLren 133. artikuluan adierazitako mugekin.*

*Aipatutako 133. artikuluak, beraz, zenbait betebehar ezartzen ditu, bai proposamena aurkeztu duten lizitatzaileentzat, bai botere adjudikatzailearentzat; izan ere, lizitatzaileek egindako proposamenaren zati jakin batzuk konfidentzialtasunez izendatzen ez badira, lizitatzaile horrek du erantzukizuna, sekretu tekniko edo komertzialak eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen edukia duen beste edozein informazio babesteko, bai lizitazio-prozedura horretan, bai ondorengo beste batzuetan.*

*Zalantzarik gabekoa da SPKLk proposamenen konfidentzialtasunari ematen dion zentzua; izan ere, SPKLk dioenez, «ezingo da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Soilik, zabalkunde murriztua duten dokumentuetara hedatu ahalko da, eta ez, inolaz ere ez, publikoki eskuragarriak diren dokumentuetara».*

*Artikulu horrek ez du zehazten lizitatzaile jakin baten zer dokumentu zehatz zabal daitezkeen edo ez, kontratu bakoitzaren arabera aldatuko baita hori, baina begi-bistakoa da kontratazio-organoak ezin izango dituela zabaldu konfidentzialtasunez izendatutako dokumentuak, eta izaera hori ezin izango da zabaldu oro har aurkeztutako dokumentazio osora.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordea honela mintzo da «Informe 15/2012, de 19 de septiembre. Confidencialidad de las proposiciones de los licitadores. Ejercicio del derecho de acceso a un expediente de contratación» txostenean. Bertan ondorioztatzen denez, kontratazio-organoak oreka egokia bilatu behar du baztertutako lizitatzaile baten konfidentzialtasun-eskubidearen eta gardentasun-printzipioaren eta defentsa-eskubidearen artean, eta ez da bidezkoa konfidentzialtasuna lizitatzailearen proposamen osora hedatzea, kontratazio-organoak zehaztu behar baitu adjudikaziodunaren zer dokumentazio ez datorren bat konfidentzialtasun-alderdiekin, espedientean justifikatuta, eta espedientea ikustera eman, interesdunek eskatuta, adierazitako baldintza eta mugekin.*
*Bider bertsuan Kataluniako Generalitateko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen «Informe 11/2013 de 26 de julio. El carácter confidencial de determinada información facilitada por los licitadores o por los candidatos en el procedimiento de selección y de adjudicación de los contratos» txostenean. Ondorioztatzen du konfidentzialtasunak, oro har, enpresariek ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko emandako dokumentazioari egiten diola erreferentzia, eta enpresek dokumentazio hori zehaztu behar dutela, eta ez direla onargarriak horri buruzko adierazpen orokorrak. Halaber, honako hau ondorioztatzen du: «Los secretos industriales, técnicos o comerciales, los intereses comerciales legítimos, los derechos de propiedad intelectual o la información que pueda afectar a la competencia leal entre empresas tiene carácter confidencial. También es susceptible de ser declarada como confidencial aquella información que tiene un gran valor para las empresas o supone un activo de importancia porque es consecuencia de inversiones en investigación, de conocimientos adquiridos por la experiencia o porque tiene un valor estratégico especial frente al resto de candidatos o de licitadores o representa una determinada forma de gestión empresarial». Azkenik, konfidentzialtasunak ezin dituela publizitate eta gardentasun printzipioak urratu ondorioztatzen du.*

*Aurrekoa kontuan hartuta, konfidentzialtasun gabekotzat jo daiteke konfidentzialtzat jo ez den dokumentazioa, eta horrek zuzenean gardentasun-printzipioaren eremuan sartzea ekarriko luke, eta ez konfidentzialtasun-printzipioaren eremuan. Beraz, dokumentazio jakin bat eskuratzea eskatzen duen pertsona fisikoak edo juridikoak justifikatu egin beharko ditu, nolanahi ere, sarbide hori eskatzeko arrazoiak, eta ukatu ere egin ahal izango da, dokumentazioaren edukiaren eta eskatzailearen interes legitimoen artean lotura zuzenik ikusten ez bada.*

*Madrilgo Erkidegoko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen irailaren 12ko 6/2016 txostenean adierazten denez, lizitatzaileak ez badu zehaztu zer dokumentu diren konfidentzialak, kontratazio-organoa da, esleipendunaren interesen eta gainerako lizitatzaileen arteko oreka bilatuz, kontratazio publikoaren printzipioak bateragarri egiteko eta prozeduran parte hartzen duten alderdien eskubideak errespetatuz, kasu bakoitzean zer dokumentazio zabal daitekeen zehaztu beharko duena, eta hori dokumentazio administratiboari zein ekonomiko eta teknikoari dagokionez (proiektu eta memoria teknikoak barne), enpresaren sekretu komertzial edo teknikoei eragin diezaieketela uste duten dokumentuak argitaratu beharrik gabe, hirugarrenen aurrean lehiakortasuna arriskuan jar dezaketelako, bereziki kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta tekniko edo profesionalari buruzko dokumentazioa, hala badagokio.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Aztertutako kasuan, puntuazio handiena lortu duen lizitatzailearen eskaintza eskuratzea eskatu duen interesduna enpresa lizitatzaileetako bat izan da; beraz, enpresa horrek interes legitimoa du hizpide dugun gaiari buruz, eta, beraz, ukaezina da esleipendunaren eskaintzaren eta eskaintza eskuratzea eskatu duen enpresaren interes legitimoen arteko erlazioa. Halaber, kontuan hartu behar da hiru gutun-azal edo artxibo elektroniko independentetan aurkeztu diren proposamenak direla («Aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa», «Zifren edo ehunen bidez baloratu ezin diren irizpideak» eta «Zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak»), eta, SPKLn xedatutakoaren arabera, jarduketa, txosten, erabaki eta ebazpen guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratatzailearen Profilean argitaratu direla, jendeak horren berri izan dezan.*

*Are gehiago, aipatu behar da ezen, zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideak biltzen dituen C gutun-azala irekitzean, saio publikoan eta lizitatzaile guztientzat eskuragarri egin zena, eta lehen aipatu duguna, ez zuela parte hartu orain espedientea eskuratzea eskatzen duen enpresaren ordezkari bakar batek ere.*
*Kontratazio-espedienteak eskuratzeko moduari dagokionez, Madrilgo Erkidegoko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak, 2010eko otsailaren 26ko 46/2009 Txostenean, onartzen du espedientea aztertzeko eta oharrak hartzeko eskubideak ez duela barne hartzen lizitatzaileek aurkeztutako guztiaren kopiak lortzea: «Sin embargo, de ello no se deduce ni que todos los extremos de la proposición vencedora deban ser notificados, ni que se deba entregar copia de todos los documentos que la componen. Por el contrario, ha de tenerse en cuenta que la exigencia de motivación de la resolución, incluso en la forma más amplia que prevé el artículo 137.1, cuando lo soliciten los interesados, solo puede ser interpretada en el sentido de que si alguno de los licitadores o candidatos deseara conocer en toda su extensión el contenido de las proposiciones, el órgano de contratación está obligado a ponerlo de manifiesto, lo que conlleva la posibilidad de examinar el expediente e incluso tomar notas respecto de él, pero en absoluto puede ser interpretado en el sentido de que se entregue copia de todo lo presentado por los demás licitadores, especialmente si se trata de proyectos u otros documentos similares respecto de los cuales pueda existir un derecho de propiedad intelectual o industrial a favor del licitador».*

*Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak, irizpide berarekin, uste du kontratazio publikoaren araudiak ez diola kontratazio-organoari ezartzen, lizitatzaileei espedientearen ikustaldia ematen dienean, horren kopiak ematea. Aipa daiteke, besteak beste, apirilaren 1eko 221/2016 Ebazpena: «En cualquier caso, la solicitud de acceso formulada por alguno de los recurrentes, lo ha sido inadecuadamente por cuanto lo que se reclama es la remisión de copia de todo el expediente, obligación que la Ley no impone al órgano de contratación. En efecto, éste debe dar vista del expediente, en los casos en que proceda de conformidad con lo anteriormente indicado, pero en ningún caso el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público le impone la obligación de entregar copias».*

*Ildo beretik jo zuen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Zentralak 2017ko martxoaren 21eko 316/2017 ebazpenean (178/2017 errekurtsoa, Asturiasko Printzerria, 10/2017): «Debe recordarse en todo caso que, tal y como se dijo en la Resolución*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*nº 248/2015 el derecho de acceso al expediente encuentra su fundamento en la necesidad de conocer los elementos de juicio que han servido de base al acto impugnado, y ello, añadimos ahora, como exigencia propia del derecho a la tutela judicial efectiva. Por tanto, solo en la medida en que los documentos cuyo acceso y copia se accede son necesarios para la articulación de dicha defensa, tiene sentido el ejercicio de este derecho de acceso, necesidad que en este caso no ha sido alegada ni cabe deducir de las demás circunstancias que resultan del expediente. Por tal motivo, a juicio de este Tribunal, el hecho de que el órgano de contratación le denegara la obtención de las copias, si bien pudiera constituir un incumplimiento de lo dispuesto en el artículo 53.1 a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento administrativo común y el artículo 29.2 del Real Decreto 814/2015, no tiene en este caso entidad suficiente como para considerar que se ha producido una vulneración del derecho de acceso al expediente y por tanto se ha de desestimar la solicitud de acceso efectuada de conformidad con lo dispuesto en el artículo 29.3 del mismo».*

*Bide beretik Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa, martxoaren 17ko 050/2019 (EB 2018/197) ebazpenean: «La solicitud de acceso al expediente se halla regulado en el artículo 52 de la LCSP en términos similares a los que figuraban en los artículos 16 y 29.3 del Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, por la que se aprueba el Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual y de organización del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales. La finalidad que se persigue mediante este procedimiento es la de evitar la indefensión en el recurrente de tal manera que la privación de este derecho por el órgano de contratación sea la causa de un recurso especial insuficiente o carente de fundamentación jurídica, como indica, por ejemplo, la Resolución del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (en adelante, TACRC) 436/2017; para sustentar su decisión, este OARC/KEAO ha de estar a lo alegado por el recurrente y por el poder adjudicador, a la verificación del cumplimiento de ciertas formalidades (como la solicitud de acceso inicial al órgano de contratación y la presentación del recurso especial en plazo con solicitud de acceso al órgano resolutorio) y a la observancia de los límites materiales del derecho de acceso, como pueden ser la protección de los intereses comerciales legítimos o de los datos de carácter personal. Debe recordarse en todo caso que, tal y como se dijo en la Resolución nº 248/2015 del TACRC, **el derecho de acceso al expediente encuentra su fundamento en la necesidad de conocer los elementos de juicio que han servido de base al acto impugnado, y ello como exigencia propia del derecho a la tutela judicial efectiva. Por tanto, solo en la medida en que los documentos cuyo acceso y copia se accede son necesarios para la articulación de dicha defensa, tiene sentido el ejercicio de este derecho**. (...) Al margen de dicha justificación, lo cierto es que el órgano de contratación tiene la obligación de poner de manifiesto el expediente a los interesados que lo soliciten con el límite del derecho a la confidencialidad de las ofertas previsto en los artículos 56.5 y 133 de la LCSP. No obstante lo anterior, este Órgano resolutorio viene señalando también que la denegación del acceso al expediente **solo se puede considerar una irregularidad relevante cuando tenga por efecto la indefensión del interesado, y en concreto, cuando le impida presentar un recurso especial suficientemente fundado** (ver la Resolución 47/2015 del OARC / KEAO), de modo que **si la Resolución de adjudicación está suficientemente motivada en los términos exigidos en el artículo 151 de la LCSP, como ocurre en el presente caso, no puede alegarse dicha indefensión.** En este sentido, en el*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*expediente consta que, en el perfil del contratante del poder adjudicador, con anterioridad al vencimiento del plazo de recurso, se han publicado los informes y actas relativas al procedimiento de licitación en las que se recogen, siquiera sintéticamente, las aclaraciones presentadas por las adjudicatarias y a las que el recurrente pretende acceder lo que, a su vez, ha permitido al recurrente formalizar un recurso debidamente fundado. Por otro lado, el derecho de acceso a las ofertas de las restantes entidades licitadoras, a las que xxxx también pretende acceder, no es un derecho absoluto que pueda ejercerse sin límite alguno. El mismo* ***debe estar amparado en un interés legítimo por comprobar o verificar una actuación del poder adjudicador que se estime incorrecta o no ajustada a la legalidad, sin que dicho acceso pueda obedecer a un mero deseo de búsqueda de defectos o errores en la oferta de otra empresa licitadora****, como señala el Tribunal Administrativo de Recursos Contractuales de la Junta de Andalucía en la Resolución 329/2016, de 22 de diciembre. Finalmente, no se ha acreditado el concreto perjuicio para la correcta elaboración del recurso que esta denegación de acceso al expediente ha podido suponer, sobre todo a la vista de que en la notificación del acuerdo de adjudicación se menciona que los informes técnicos (motivación in aliunde), suficientemente motivados a juicio de este Órgano, se encuentran publicados en el perfil del contratante. En definitiva, interpuesto el recurso especial con todas las garantías, no procede acceder a su petición de acceso al expediente (ver, en este sentido Resolución 37/2018 del OARC/KEAO)».*

*Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, bistakoa da eskuratu nahi diren dokumentuak eta haien kopiak beharrezkoak direnean bakarrik dela zentzuzkoa espedientera sartzeko eskubide hori baliatzea.*

*Garrantzitsua da hemen adieraztea* ***BPXPORT XXI SL enpresak konfidentzialtzat jo duela bere memoria teknikoaren eduki guztia,*** *eta, beraz, arestian aipatutakoa kontuan hartuta, Tolosako Udalak errekerimendua egingo dio, memoriak konfidentzialtzat jotzen dituen atalak zehaztasunez eta behar bezala justifikatuta defini ditzan.*

*Bestalde, aipatu behar da Tolosako Udalaren sistema informatikoek Informatika Zerbitzuen Foru Sozietatearen (IZFE) aplikazioak erabiltzen dituztela, eta sozietate horri kontsulta egin ondoren, materialki ezinezkoa dela horietan interesa dutenei udal-espedienteetarako sarbide elektronikoa ematea****; beraz, prozeduraren une egokia iritsitakoan, espedientea Udaletxean kontsultatu beharko da.***

*Azkenik, eta entzunaldiaren izapideari dagokionez, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikuluan xedatutakoarekin, eta aintzat hartuta interesdunak argudiatutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen direla prozeduran eta haiek baino ez direla kontuan hartu ebazpenean, entzunaldiaren izapidea alde batera utziko da.*

***IV.- KONTRATAZIO ORGANOA***

*Kontratazio-organoa zehazteko, kontuan hartuko dira SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan jasotako xedapenak, kontratazio-arloan toki-erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituztenak.*

| |
|---|
| *Bigarren xedapen gehigarria. Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak.* |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

> *1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazioorgano diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
> *2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik tokientitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

*Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 4.570.531,22 eurokoa denez, aurrekontu horretako baliabide arrunten ehuneko 10 baino gehiago da (2.656.409 euro), eta kontratuaren iraupena lau urtetik gorakoa denez, Udalaren Osoko Bilkura da kontratazio hori onartzeko eskumena duen organoa.*

*Gogoratu behar da hemen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 artikuluak honako hau dioela:*

> *2. Korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da, jarraian agertzen diren arloetan erabakiak hartzeko:*
> *j) Ondasunak zein zerbitzuak bost urte baino gehiagorako emakidan ematea, beti ere, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten % 20 gainditzen badu.*

*Tolosako Udalaren kasuan, aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 20 5.312.818 euro dira; beraz, kontratuaren balio zenbatetsiak atalase hori gainditzen ez duenez, emakidari buruzko erabaki guztiak Udalaren Osoko Bilkurak hartuko ditu, gehiengo soilez, eta ez gehiengo osoz.*

*Adierazi behar da kontratazio-organoari dagokiola, besteak beste, kontratua esleitzea, interpretatzea, bertan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, onura publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua azkentzea eta haren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluekin eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.*

*KIROLZER SL enpresaren eskaerari emandako erantzuna izapidezko egintza huts bat denez, eta kontuan hartuta korporazioaren osoko bilkurak ez duela bilerarik aurreikusita 2022ko otsailaren 23a baino lehen, eta epeak ez alferrik atzeratzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluaren m) idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz, alkate-lehendakariari dagokio beharrezko neurri egokiak hartzea, bere erantzukizunpean, eta osoko bilkurari haien berri ematea lehenbailehen.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***V.- ONDORIOZTAPENAK***

*Lehenengoa.- KIROLZER SL eta BPXPORT XXI SL enpresek proposamenak aurkeztu dituztenez, baldintzarik gabe onartu dute pleguetan aurreikusitako klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.*

*Bigarrena.- Lizitatzailearen asmoa ez da irizpide bat zuzen aplikatzea, baizik eta, orain, kontratua adjudikatzeko unea iritsita, kanon irizpidearen formula zuzentzea.*

*Hirugarrena.- ABPPren irakurketa soil batetik ondoriozta daiteke lizitazioaren pisua ia berdin banatzen dela irizpide kualitatiboen eta prezio-irizpidearen artean. Hau da, zehatz-mehatz betetzen da kontratazio publikoaren oinarrizko printzipioetako bat: kontratuak adjudikatzeko, hainbat adjudikazio-irizpide erabiltzen dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.*

*Laugarrena.- KEAOk ezartzen du puntuazioa ez dela lizitazio-kanonari dagokionez bakarrik zehazten; izan ere, horrela balitz, irizpideak galdu egingo luke helburuetako bat, hau da, eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan alderatzea. Gainera, eraginkortasun hori ez litzateke beteko horrelako formula batekin. Gainera, ziurgabetasuna ezabatzea lehia askearen printzipioaren aurkakoa da, eta aukera ematen du enpresek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluak debekatutako kolusiozko jardunbideak hartzeko; horregatik, Tolosako Udalak bi egoerak uztartzen dituen formula bat ezartzen du: lizitazioaren prezioarekiko alderaketa eta lizitatzaileen eskaintzen arteko alderaketa.*

*Bosgarrena.- KIROLZER SL enpresak ez du adierazi zein den formularen aplikazioari buruzko zalantza, eta formula horren aplikazioari buruzko informazioa eskatzera mugatu da.*

*Seigarrena.- Ez gaude kontratazio-errekurtso berezia jartzeko epearen barruan, eta, beraz, ez da une egokia espedienterako sarbidea eskatzeko. Kontratazio-prozedurak hertsiki tasatuta daude SPKLn, eta SPKLk prozedurazko une egokia ezartzen du prozedura bakoitzerako. Kasu honetan, lizitatzaile eta hautagai guztiei adjudikazio-erabakia jakinarazi ondoren legez aurreikusi bezala, espedientea kontsultatzeko epea hasiko da, adieraziko diren baldintzetan.*

*Zazpigarrena.- KIROLZER SL enpresak, espedienteko interesduna den aldetik, espediente horretara sartzeko eskubidea izango du, adieraziko diren baldintzetan, eta alegazioak egiteko behar dituen oharrak hartu ahal izango ditu. Horrez gain, modu arrazoitu eta zehatzean eskatu ahal izango du espedientean jasota dauden eta bere defentsa-eskubidea gauzatzeko ezinbestekoak diren dokumentuen kopia edo ziurtagiria. Dokumentu horiek Idazkaritzak emango ditu, baldin eta eskura dauden baliabideek ahalbidetzen badute eta zerbitzuen eraginkortasunari eragiten ez bazaio.*

*Zortzigarrena.- Kopiak egitea dela-eta, Idazkaritza ez dago behartuta inolako eskabide orokorrik onartzera.*

*Bederatzigarrena.- Botere adjudikatzaileak du erantzukizuna, adjudikaziodun gisa proposatutako enpresari bere memorian konfidentzialtzat jotzen dituen atalak zehaztasunez eta behar bezala justifikatuta identifikatzeko eta definitzeko eskatu ondoren, sekretu tekniko*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*edo komertzial horiek eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen edukia duen beste edozein informazio babesteko, bai lizitazio-prozedura horretan, bai ondorengo beste batzuetan.*

*Hamargarrena.- Proposamenen konfidentzialtasuna ezin izango da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Hedapen mugatuko dokumentuetara soilik zabaldu ahal izango da, eta inola ere ez publikoki eskuragarri dauden dokumentuetara.*

*Hamaikagarrena.- Kontratazio-organoak oreka egokia bilatu behar du baztertutako lizitatzaile baten konfidentzialtasun-eskubidearen eta gardentasun-printzipioaren eta defentsa-eskubidearen artean, eta ez da bidezkoa konfidentzialtasuna lizitatzailearen proposamen osora hedatzea, kontratazio-organoak zehaztu behar baitu enpresa adjudikaziodunaren zer dokumentazio ez datorren bat alderdi konfidentzialekin, eta hori guztia dokumentazio administratiboari, ekonomikoari eta teknikoari dagokionez (proiektu eta memoria teknikoak barne), eta ez dira publiko egingo enpresaren sekretu komertzialei edo teknikoei eragin diezaieketen dokumentuak, baldin eta enpresaren lehiakortasuna arriskuan jar badezakete hirugarrenen aurrean, bereziki, ekonomia- eta finantza-kaudimenari eta kaudimen tekniko edo profesionalari buruzko agiriak.*

*Hamabigarrena.- Lizitatzaile edo hautagairen batek proposamenen eduki osoa ezagutu nahi badu, kontratazio-organoak horren berri eman beharko du nahitaez, eta horrek berekin dakar espedientea aztertzeko aukera, bai eta hari buruzko oharrak hartzekoa ere. Hala ere, ezin da inola ere interpretatu gainerako lizitatzaileek aurkeztutako guztiaren kopia bat entregatzeko aukera dagoenik, bereziki, lizitatzailearen aldeko jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubidea izan dezaketen proiektuak edo antzeko dokumentuak badira.*

*Hamahirugarrena.- Espedientearen ikustaldia eman behar horrek ez du ezartzen kopiak eta, are gutxiago, modu generikoan egindako eskaeren kopiak entregatzeko obligaziorik; izan ere, espedientea eskuratzeko eskubidearen oinarria aurkaratutako egintzaren oinarri izan diren judizio-elementuak ezagutzeko beharra da, eta hori, honelaxe gehitzen dugu orain, benetako babes judizialerako eskubidearen eskakizun propio gisa. Beraz, eskuratu nahi diren dokumentuak eta haien kopiak beharrezkoak badira defentsa hori artikulatzeko, orduan baino ez du zentzurik sarbide-eskubide hori egikaritzea.*

*Hamalaugarrena.- Espediente batean sartzeko eskaerak interes legitimo baten babesa izan behar du, frogatzeko eta egiaztatzeko botere adjudikatzailearen jarduketa bat, legezkotasunarekin bat ez datorrena edo zuzentzat jotzen ez dena, baina sarbide hori ezin da izan beste enpresa lizitatzaile baten eskaintzan akatsak edo akatsak bilatzeko nahiaren ondorio hutsa..*

*Hamabosgarrena.- Materialki ezinezkoa da interesdunei udal espedienteetarako sarbide elektronikoa ematea; beraz, espedientea Udaletxean kontsultatu beharko da.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Hamaseigarrena.- Aurreko guztia kontuan hartuta, eta aipatutako konfidentzialtasun-deklarazioaren zain, hona hemen KIROLZER SL enpresak zer dokumentazio zatitara izango duen sarbidea eta zeinetara ez:*

*- A gutun-azala, aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa biltzen duena: ez du sarbiderik.*

*- B gutun-azala (memoria teknikoa), zifren edo ehunekoen bidez baloratu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa jasotzen duena:*

*- Langileen datuei buruzko informaziorik ez da emango, haien datu pertsonalak babesteko.*

*- Ez da informaziorik emango neurri, prozedura, sinergia, irtenbide tekniko, aplikazio informatiko eta baldintza espezifikoei erreferentzia egiten zaien puntuei buruz, enpresa bakoitzaren funtsezko faktoreak direlako, «know-how» izenarekin deituak; hau da, enpresa bakoitza erakunde bereizgarri bihurtzen duten faktoreak direlako eta erakundeari balio erantsia ematen diotelako. Kasu zehatz honetan, puntu horiek ematen diote benetako balioa eskaintza teknikoari, izan ere, puntu horietan islatzen da haien barne- eta kanpo-antolamendua, eskura jarritako baliabideak eta horien beharra, eta abar.*

*- C gutun-azala, zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa duena: sarbidea baimenduta.*

*Aurreko guztia kontuan izanda, alkate-lehendakariak honako hau*

## ***EBAZTEN DU***

*Lehenengoa.- KIROLZER SL lizitatzaileari 2021CSER0002 kontratazio-espedienterako sarbidea ematea, espedientea kontsultatzeko eta alegazioak aurkezteko behar dituen oharrak hartzeko. Sarbide hori kontratua adjudikatzeko erabakia jakinarazi ondoren gertatuko da, aurreko hamaseigarren ondorioztapenean ezarritako mugen arabera. Dokumentazioa eskuratzeko, sekretu teknikoak, komertzialak, profesionalak edo ekonomikoak gorde beharko dira, bai eta lehia faltsutzeko edukia izan dezakeen beste edozein informazio ere, bai lizitazio-prozedura horretan, bai ondorengo beste batzuetan.*

*Bigarrena.- Aukerako bi data ezartzea espedientea ikusteko, behin kontratua adjudikatzeko erabakia jakinarazi ondoren. Espedientea Udaletxeko Kontratazio Unitatean ikusiko da, aurreko puntuan aurreikusitako moduan. Bisita horretan ezingo da erabili inolako grabazio-bitartekorik, adibidez, telefono mugikorrik, grabagailurik edo bestelako gailu elektronikorik.*

*Hirugarrena.- Kontratua adjudikatzeko erabakia jakinarazi ondoren, Tolosako Udalak, idatziz eta posta elektronikoz, KIROLZER SL enpresak emandako helbide elektronikora jakinaraziko ditu bi data posibleak. Erakundeak idatziz jakinarazi beharko dio Tolosako Udalari, kontratazioa@tolosa.eus helbide elektronikoan, dataren aurretik, bi proposamenen artean espedientea ikusteko aukeratutako eguna. Enpresak, bere interesagatik, planteatutako bi datak baino geroagokoa aukeratzen badu edo sartzeko beste modu bat nahiago badu, idatziz*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*adierazi beharko du, aipatutako helbide elektronikoan, eta Udalak behar diren bitartekoak jarriko ditu hala izan dadin.*

*Laugarrena.- Aipatutako espedientea ikustera joaten diren KIROLZER SL enpresaren ordezkariek behar bezala egiaztatu beharko dute beren ordezkaritza, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez.*

*Bosgarrena.- BPXPORT XXI SL enpresari eskatzea, memoria teknikoaren eduki osoa konfidentzialtzat jo baitu, zehatz eta behar bezala justifikatuta defini ditzala memorian konfidentzialtzat jotzen dituen atalak.*

*Seigarrena.- Entzunaldiaren izapidea alde batera uztea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, izan ere, interesdunak argudiatutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen dira prozeduran eta haiek bakarrik hartu dira kontuan ebazpenean.*

*Ebazpen hau irmoa da eta administrazio-bidea amaitzen du.*

*ERREKURTSOAK*
*Errekurtsoa jarri baino lehen, interesdunak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Alkatetzari, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.*

*Bestela, berraztertzeko errekurtsoa jarri beharrean edo errekurtso horri emandako erantzunaren aurka, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango du Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.*

*Alkate-lehendakariak agindu eta sinatua, eta nik, udal idazkari naizen honek, horren fede ematen dut, Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.*

| Alkate-lehendakaria | Udal idazkaria |
|---|---|
| Olatz Peon Ormazabal | Begoña Garmendia Vazquez |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du 2022/403 Alkatetza Dekretua berrestea, zeinaren bidez Kirolzer SL merkataritza-sozietateari sarbidea ematen zaion, dagokion prozedura-unean, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralari buruzko espedientea kontsultatzeko.

9. **BERRESTEA ALKATETZAREN 2022/129 DEKRETUA ZUZENTZEN DUEN 2022/402 ALKATETZA DEKRETUA. DEKRETU HARTAN, ALKATE-LEHENDAKARIAK KONTRATAZIO-ORGANO GISA ZITUEN ESKUMEN GUZTIAK ANTOLAKETA LAN-ESPARRUKO ZINEGOTZIAREN ESKU UTZI ZITUEN, ETA KONTRATAZIO-MAHAI IRAUNKORRAREN OSAERA ALDATU ZUEN, ALKATE-LEHENDAKARIAREN ESKUMENEKO KONTRATAZIOETAN LAGUNTZEKO ORGANO GISA.**

2022/129 Alkatetza Dekretuak honela dio:

*2022ZZZZ0006*

***ALKATETZAREN DEKRETUA***

***OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak*** *emana, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 117. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.*

***IKUSIRIK***

***I.- AURREKARIAK***

*9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipatutako legearen 320. artikuluak ondoko hau xedatzen du: Kontratatzeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak, salbu eta 168. artikuluaren b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea.*

*Tokiko entitateen kasuan, kontratazio-mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:*

- *Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.*

*- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.*

*- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kidek osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago*

*- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.*

*- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean*

*- Mahaiaren osaketa kontratatzailearen profilean argitaratu behar da. Halaber, kontratazio-mahai iraunkor bat eratu ahal izango da.*

*Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:*

*a) 9/2017 Legearen 140 eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiriak kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatzaileak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.*

*b) Lizitatzaileen proposamenak baloratzea.*

*c) Kasua bada, nabarmenki baxuegitzat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikuluak aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.*

*d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.*

*e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.*

*Bestalde, kontratazio mahaiek izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak. Horretaz gain, kontratazio mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:*

*- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.*

*- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.*

*- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.*

*9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.*

*9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazioko mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organoak izendatuko ditu.*

*Aipaturiko Legeak, 2. Xedapen gehigarrian, hau zehazten du toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenei buruz:*

*- Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*- Kontratu pribatuak, toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea: aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, edo hiru milioi euro baino gehiago bada; ondarea besterentzea ere plenoaren eskumena izango da, balioa ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa bada.*

*Horiek horrela, kontuan izan behar da Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita, alkate-lehendakariak 2019/1228 alkatetzaren dekretuaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu zituela 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen espedienteak onartzea, lizitazioari hasiera ematea, esleitzea eta kontratuen kitapena egitea.*

*Halaber, aipatu behar da hemen Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 31/2021 txostena, non hau esaten den:*

> *Partiendo de las anteriores consideraciones parece evidente que la LCSP configura al órgano de contratación y a la mesa de contratación como dos órganos claramente diferenciados en cuanto a su función y con unos requisitos y composición muy distintos, de modo que la mesa es un órgano de asistencia técnica especializada, que debe realizar su función con plena independencia del órgano de contratación. Precisamente por esta razón* ***no resulta posible admitir que el titular del órgano de contratación pueda formar parte de la mesa de contratación como presidente de la misma****, ya que supondría que existiese la posibilidad de interferencia en las funciones que este órgano está llamado a desempeñar con objetividad, imparcialidad y profesionalidad.*

*Aurreko argudio bera defendatzen du Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailetza Orokorreko (IGAE) Ikuskaritza Bulego Nazionalak (ONA) kontuhartzaileei emandako gomendioan:*

> *Cuando se asista como vocal a una mesa de contratación en la que participe como vocal o presidente de dicha mesa la persona titular del órgano de contratación, independientemente de si este ostenta la competencia originaria o si le viene atribuida por delegación, deberá hacerse constar en el acta de la correspondiente sesión, mediante voto particular, que dicha persona no*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*puede formar parte de la mesa de contratación de acuerdo con lo establecido el art. 326.5 LCSP y que, por consiguiente, su participación constituye un incumplimiento de lo dispuesto en el citado precepto, tal y como se indica en el informe 31/2021 de la JCCPE, de 10 de junio de 2021.*

*Beraz, aipatutako Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 31/2021 txostenak zuzenean eragiten ditu Tolosako Udaleko alkate-lehendakariaren eskumeneko kontratazio-jardunbideak. Horrenbestez, beharrezkoa da Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan kontratazio-mahaiaren eraketaren aldaketa onartzea.*

*Aurreko guztia aintzat harturik, alkate-lehendakari honek*

***EBAZTEN DU***

***<u>Lehena.-</u>*** *7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, legeak alkate-lehendakariari kontratazio-organo gisa esleitzen dizkion eskumen guztiak Antolakuntza Esparruko alkateordearengan eskuordetzea.*

***<u>Bigarrena.-</u>*** *Aurrekoaren ondorioz, 2019ko abenduaren 2ko 2019/2021 Alkatetza Dekretuaren bitartez eratutako Tolosako Udaleko kontratazio-mahai iraunkorra aldatzea arestian aipatutako arrazoiengatik, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.*

***<u>Hirugarrena.-</u>*** *Kontratazio-mahai iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea:*
- *Lehendakaria: alkate-lehendakaria, Olatz Peon Ormazabal. Ordezkoa: alkateordea, Patxi Amantegi Zubiria.*
- *1. bokala: Begoña Tolosa Mendia. Ordezkoa: alkateordea, Xarles Iturbe Pasabán.*
- *2. bokala: udal idazkaria, edo haren ordezkoa.*
- *3. bokala: udal kontuhartzailea, edo haren ordezkoa.*
- *4. bokala: kontratazioko AOTa, edo haren ordezkoa.*
- *5. bokala: kontratazioak eragiten duen udal saileko arduraduna, edo haren ordezkoa.*
- *Idazkaria (botorik gabe): kontratazioko administraria, edo haren ordezkoa.*

***<u>Laugarrena.-</u>*** *Kontratazio-mahai iraunkorreko kideen ordezkapena egingo da hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.*

***<u>Bosgarrena.-</u>*** *Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, kontratazio-mahai iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute aztertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota mahaiak izendaturiko aholkulari adituek.. Pertsona horiek hitza izango dute, baina ez dute boto eskubiderik izango.*

***<u>Seigarrena.-</u>*** *Mahaiaren bilkuretan araubide juridiko hau izango da aplikagarria:*
- *9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.*
- *817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.*
*- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, hauetan arautzen ez diren gaietan.*

***Zazpigarrena.-*** *Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.*

*Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, udal idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean.*

| | |
|---|---|
| *Alkate-lehendakaria* | *Udal idazkaria* |
| *Olatz Peon Ormazabal* | *Begoña Garmendia Vázquez* |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, udalbatzak aho batez **onartu** du berrestea 2022/129 Alkatetza Dekretua zuzentzen duen 2022/402 Alkatetza Dekretua. Dekretu hartan, alkate-lehendakariak kontratazio-organo gisa zituen eskumen guztiak antolaketa lan-esparruko zinegotziaren esku utzi zituen, eta kontratazio-mahai iraunkorraren osaera aldatu zuen, alkate-lehendakariaren eskumeneko kontratazioetan laguntzeko organo gisa.

**10.ONARTZEA ORGANO KOLEGIATUETAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENAK.**

***- UDAL ORDEZKARIAREN IZENDAPENA UEMA-UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN***

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 19an egindako aparteko osoko bilkuran, besteak beste, Nerea Letamendia Belloso Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko ordezkari izendatu zuen.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin ondoren, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren aurrean legezko izapidea burutu eta gero, Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuen Tolosako Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera, alkatearen ahalmenak arautzen ditu, eta horien artean: «*s) Las demás que expresamente le atribuyan la leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales».* Bestalde, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo administratiboen eskumena utziezina da.

Hori horrela, eta Erakundearen Estatutu eta Barne Araudia aztertu ondoren, Alkatetzak Udalaren Osoko Bilkurari honako proposamen hau egiten dio:

**PROPOSAMENA:**

**LEHENIK.-** Izendatzea Xarles Iturbe Pasaban jauna UEMA-Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko udal ordezkari, Nerea Letamendia Bellosoren andrearen ordez.

**BIGARRENA-** Erabaki honen berri zinegotziari eta UEMAri ematea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia,Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Xarles Iturbe Pasaban UEMAko ordezkari izendatzea Nerea Letamendia Bellosoren ordez.

***- UDAL ORDEZKARIAREN IZENDAPENA EUSKAL FONDOAN***

Udalbatzarkideei 2022/549 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaie. Honela dio:

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

## *ALKATETZA DEKRETUA*

***OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak,*** *betez 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedaturikoa, eta*

## *IKUSIRIK*

***LEHENIK.-*** *Alkatetza honek, 2019ko azaroaren 11n, 1867. Dekretuan, honako erabaki hauek hartu zituela, besteak beste:*

*"Batetik, 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubideari buruzkoak, 38. artikuluan, honako hau xedatzen duela: "Dentro de los treinta días siguientes al de la sesión constitutiva, el Alcalde convocará la sesión o sesiones extraordinarias del Pleno de la Corporación que sean precisas, a fin de resolver sobre los siguientes puntos:…..."c) Nombramientos de representantes de la Corporación en órganos colegiados, que sean de la competencia del Pleno".*

*Bestetik, udal antolakuntza xedatuko duen Udalbatzaren Osoko Bilkurak Tolosako Udalak beste erakundeetan dituen ordezkaritzak ebatzi behar dituela, beti ere bere eskumenari dagozkion izendapenak badira, eta erakundeetako eratze- edo antolatze-tituluetan Tolosako Udalari eskumen generikoa esleitzen bazaio, Alkatetzari dagokiola ahalmen hori, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipaturiko artikuluak alkatearen ahalmenak arautzen ditu, eta horien artean: s) Las demás que expresamente le atribuyan la leyes y aquellas que la legislación del Estado o de las comunidades autónomas asignen al municipio y no atribuyan a otros órganos municipales. Ikusirik, bestalde, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo administratiboen eskumena utziezina dela.*

*Azkenik, erakunde ezberdinetako Estatutu eta Barne Araudiak,*

## *EBAZTEN DU:*

***LEHENA:*** *Tolosako Udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ordezkari hauek izendatzea:*

| ***ERAKUNDEA*** | ***ORDEZKARIA*** |
|---|---|
| ***EUSKAL FONDOA*** | *Titularra: Olatz Peon Ormazabal*<br>*Ordezkoa: Nerea Letamendia Belloso* |
| **........................** | .............................. |

***BIGARRENA.-*** *Xedatzea izendatuek onartuko dituztela esleitutako karguak eta aitortuko dutela, batetik, betetzen dituztela kasuan kasuko baldintzak, eta bestetik, ez daudela sartuta indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoietan. Hala ere, izendapen horiek jakinarazi eta hogeita lau orduko epean interesatuak ez badu ezer adierazten, onartutzat emango dira egindako izendapenak eta atal honetan adierazitako baldintzen onespena.*

***HIRUGARRENA.-*** *Hartutako ebazpenak erakunde eta zinegotzi interesdunei jakinaraztea.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***LAUGARRENA.-** Osoko Bilkurari Dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.”*

***BIGARRENA.-** Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin ondoren, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren aurrean legezko izapidea burutu eta gero, Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuela Tolosako Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran.*

*Beraz, egoera honen aurrean, Alkatetza honek*

***EBAZTEN DU DU***

***LEHENA:** Tolosako Udalak parte hartzen duen organo kolegiatu hauetan ordezkari hauek izendatzea:*

| ***ERAKUNDEA*** | ***ORDEZKARIA*** |
|---|---|
| ***EUSKAL FONDOA*** | *Titularra: Olatz Peon Ormazabal*<br>*Ordezkoa: Xarles Iturbe Pasaban* |

***BIGARRENA.-** Xedatzea izendatuak onartuko dituela esleitutako kargua eta aitortuko duela, batetik, betetzen dituela kasuan kasuko baldintzak, eta bestetik, ez dagoela sartuta indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoietan. Hala ere, izendapen horiek jakinarazi eta hogeita lau orduko epean interesatuak ez badu ezer adierazten, onartutzat emango da egindako izendapena eta atal honetan adierazitako baldintzen onespena.*

***HIRUGARRENA.-** Hartutako ebazpena erakundeari eta zinegotzi interesdunari jakinaraztea.*

***LAUGARRENA.-** Osoko Bilkurari dekretu honen berri ematea hurrengo batzarrean, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, bere web orrian eta gardentasunaren atarian.”*

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

***Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, sinaduran agertzen den datan.***

***ALKATE-LEHENDAKARIA***

***Nire aurrean,***
*IDAZKARIA*

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

**11.BERRI EMATEA EAJ/PNV UDAL TALDEKO KIDE ETA ORDEZKOEN ALDAKETA BATZORDE INFORMATIBO ETA BERDINTASUN KONTSEILUAN.**

Batzorde informatiboetako eta Berdintasun Kontseiluko kideen aldaketa hauen berri eman zaie udalbatzarkideei:

Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi-kargua utzi izanak eta bere ordez Xarles Iturbe Pasaban jaunak kargua hartu izanak batzorde informatibo batzuetan eta Berdintasun Kontseiluan EAJ/PNV udal taldeko ordezkariak aldatzea ekarri du. Hauek dira egin diren aldaketak:

**Antolakuntza Batzordean:**
Nerea Letamendia Bellosoren ordez Xarles Iturbe Pasaban.

**Herritarrak Batzordean:**
Nerea Letamendia Bellosoren ordez Xarles Iturbe Pasaban

**Beraz, EAJ / PNVko kideen osaera honako hau da:**

**Antolakuntza Batzordea:**
**Lehendakaria:** Xabier Balerdi Tolosa
**Kideak:** Begoña Tolosa Mendia **Ordezkoa:** Patxi Amantegi Zubiria
Xarles Iturbe Pasaban Egoitz Sorozabal Iturain

**Herritarrak Batzordea:**
**Lehendakaria:** Xarles Iturbe Pasaban
**Kideak:** Izarne Iglesias Gª de Iturrospe **Ordezkoa**: Patxi Amantegi Zubiria
Joseba Ormazabal Lopez Begoña Tolosa Mendia

**Lurralde Batzordea:**
**Lehendakaria:** Egoitz Sorozabal iturain
**Kideak:** Patxi Amantegi Zubiria **Ordezkoa:** Begoña Tolosa Mendia
Xabier Balerdi Tolosa Izarne Iglesias Gª de Iturrospe

**BERDINTASUN KONTSEILUKO KIDEA:**
Olatz alkatea denez, lehendakaritza du
***Kidea**: Begoña Tolosa Mendia* ***Ordezkoa:** Izarne Iglesias Gª de Iturrospe*

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

**12.ALKATETZA DEKRETU HAUEN HAUEN BERRI EMATEA:**
**- 2022/151: ALKATEORDEEN IZENDAPENAK.**
Udalbatzarkideei 2022ko otsailaren 2ko 2022/151 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaie.
Honela dio:

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

### *ALKATETZA DEKRETUA*

***OLATZ PEON ORMAZABAL*** *Tolosako Udaleko alkateak, 7/1.985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 20.1.a) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau*

### *IKUSIRIK*

***LEHENA.-*** *Alkatetza honek, 2019ko uztailaren 2ko 1144/2019 zk.ko Dekretuan, besteak beste, honako hau erabaki zuela:*

***LEHENA.-*** *Tolosako Udaleko alkateordeak hurrenez hurren izendatzea, indarreko arautegiak ematen dizkien ahalmen guztiekin:*

*- Lehen alkateordea: Nerea Letamendia Belloso andrea, EAJ/PNV udal taldekidea.*
*- Bigarren alkateordea: Patxi Amantegi Zubiria jauna, EAJ/PNV udal taldekidea.*
*- Hirugarren alkateordea: Begoña Tolosa Mendia andrea, EAJ/PNV udal taldekidea.*
*- Laugarren alkateordea: Xabier Balerdi Tolosa jauna, EAJ/PNV udal taldekidea.*

***BIGARRENA.-*** *Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin ondoren, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren aurrean legezko izapidea burutu eta gero, Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuela Tolosako Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran.*

### *KONTUAN HARTURIK*

*Aipatu den 7/1985 Legearen 21.2 artikuluak, eta azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege-Dekretuak, Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duenak, bere 41.3 eta 46.1 artikuluetan diotenaren arabera, alkateari dagokiola alkateordeak izendatzea, absentzia, kargu huts edo gaixotasun kasuetan ordezka dezaten*

*Beraz, honako hau*

### *EBAZTEN DUT*

***LEHENA.-*** *Tolosako Udaleko alkateordeak hurrenez hurren izendatzea, indarreko arautegiak ematen dizkien ahalmen guztiekin:*

- *Lehen alkateordea: Patxi Amantegi Zubiria jauna, EAJ/PNV udal taldekidea.*
- *Bigarren alkateordea: Xabier Balerdi Tolosa jauna, EAJ/PNV udal taldekidea.*
- *Hirugarren alkateordea: Xarles Iturbe Pasaban jauna, EAJ/PNV udal taldekidea.*
- *Laugarren alkateordea: Begoña Tolosa Mendia andrea, EAJ/PNV udal taldekidea.*
- *Bosgarren alkateordea: Jose Mª Villanueva Telleria jauna, PSE/EE udal taldeko kidea.*

***BIGARRENA.-*** *Xedapen honen berri zinegotzi interesdunei eta Udalbatzari ematea egingo den lehenengo osoko bilkuran, eta honen laburpena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***HIRUGARRENA.-*** *Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu Liburuan transkribatzea, eta bere datatik aurrera izango du eragina.*

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

***Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2022ko otsailaren batean.***

***ALKATE-LEHENDAKARIA***

***Nire aurrean,***
***IDAZKARIA***

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**- 2022/152: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN IZENDAPENA.**
Udalbatzarkideei 2022ko otsailaren 2ko 2022/152 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaie. Honela dio:

***ALKATETZA DEKRETUA***

***OLATZ PEON ORMAZABAL*** *Tolosako Udaleko alkateak, 7/1.985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 20.1.b) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, honako hau*

***IKUSIRIK***

***LEHENA.-*** *Alkatetza honek, 2019ko uztailaren 2ko 1145/2019 Dekretuan, besteak beste, honako hau erabaki zuela:*

***LEHENA.-*** *Hemen adierazten diren zinegotziak Tolosako Udaleko Toki Gobernu Batzarreko kide gisa izendatzea: Nerea Letamendia Belloso andrea, Patxi Amantegi Zubiria jauna, Begoña Tolosa Mendia andrea, Xabier Balerdi Tolosa jauna eta Jose Mª Villanueva Telleria jauna.*

***BIGARRENA.-*** *Nerea Letamendia Belloso andreak zinegotzi karguari uko egin ondoren, eta Hauteskunde Batzorde Zentralaren aurrean legezko izapidea burutu eta gero, Xarles Iturbe Pasaban jaunak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuela Tolosako Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran.*

***KONTUAN HARTURIK***
*7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 23.1 artikuluak, eta 2568/1986 Errege-Dekretuak, azaroaren 28koak Toki-Administrazioen Antolamendua, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duenak, bere 41.3 eta 52.1 eta 2 artikuluetan xedaturikoa,*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*Honako hau*

***EBAZTEN DUT***

***LEHENA.-*** *Xarles Iturbe Pasaban jauna Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea, Nrea Letamendia Bellosoren andrearen ordez.*

***BIGARRENA.-*** *Xedapen honen berri zinegotzi interesdunari eta Udalbatzari ematea egingo den lehenengo osoko bilkuran.*

***HIRUGARRENA.-*** *Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta udal web orrian argitaratzea.*

***LAUGARRENA.-*** *Xedapen hau Alkatetzaren Dekretu-Liburuan transkribatzea, eta bere dataren biharamunetik aurrera izango du eragina.*

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

***Alkate-lehendakariak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, 2022ko otsailaren 1ean.***

***ALKATE-LEHENDAKARIA***

***Nire aurrean,***
***IDAZKARIA***

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- <u>**2022/281: ZINEGOTZI DELEGATUEN IZENDAPENA ETA ESKUMENEN DELEGAZIOAK**</u>

Udalbatzarkideei 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaie. Honela dio:

***ALKATETZA DEKRETUA***

***OLATZ PEON ORMAZABAL Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak, 7/1985 Legeak, toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.3 eta 23.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera.***

***IKUSIRIK***

***LEHENIK.-*** *2019-2023 legealdirako Udal Korporazioa eraturik eta udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatetza honek beharrezkotzat jo zuen izaera orokorreko eta izaera bereziko eskuduntzak hainbat zinegotziren esku uztea, 2019ko uztailaren 12an egindako*

*1.208/2019 Dekretua osatuz. Izan ere, Alkatetzak eskuordetu ditzake bere eskumenak, baldin eta eskuordetzan eman badaitezke, aplikatzekoa den legeriaren arabera.. Dekretu honen iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko abuztuaren 9an (151 zk.an).*

*Aipaturiko Dekretuan, Alkatetza honek ondorengo xede nagusiak ebatzi zituen:*

1. *Tolosako Udalean abian jartzea hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua:* ***Antolakuntza, Lurraldea eta Herritarrak****. Halaber, lan-esparru bakoitzak barne dituen sailak eta azpisailak onartzea, denen arteko koordinaziorako eta plangintzarako aipatutako hiru arloetan bilduz.*
2. *Lan-Esparru bakoitzeko koordinatzaile politikoak izendatzea.*
3. *Zinegotzi delegatuak izendatzea eta Alkatetzari dagokion hainbat ahalmen beraiengan eskuordetzea.*
4. *Udal Sailetako arduradun teknikoen -karrerako funtzionarioen- esku hainbat ahalmen eskuordetzea.*
5. *Emandako eskuordetzei aplikatu beharreko araubide juridikoa arautzea.*

***BIGARREN.-*** *Goian aipatu den Dekretuan hainbat akats antzeman ondoren, Alkatetza honek, 2019ko urriaren 3an dataturiko 1596/2019 Dekretuaren bidez, honako erabaki hauek hartu zituen:*

***"LEHENIK.-*** *Alkatetza honek 2019ko uztailaren 12an emandako 1208/2019 Dekretua aldatzea, ondoko hauen arabera:*

***a) Akatsen zuzenketak:***

- *4.1. atalean, Gainerako kontratuak tituludun atalean, Ondare eta Kontratazio azpisaila jarri beharrean,* ***Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea*** *jarri behar da.*
- *4.2.2 atalean, Giza Baliabideen azpieremuan Antolaketako zinegotziaren esku utzitako eskumenak arautzen dira. Bertan, gaztelaniazko testua ondoko hau aipatzen da: Presidir la Mesa de Contratación en relación con los RR. HH. Esaldi hori ez dago Dekretuaren jatorrizko idazlanean, aipatutako organorik ez dagoelako. Beraz, esaldia ezabatu egin behar da, euskarazko testuarekin bat etorriz.*
- *Dekretu honen Bosgarren ebazpenak, Delegazioen araubidea xedatzen duenak, bere 9. atalean berraztertze helegiteen gaia arautzen du. Segurtasun juridikoa bermatzearren, atal honi beste idazketa bat emango zaio, testu honen arabera:*

| ***EZABATZEN DEN PARAGRAFOA*** | ***PARAGRAFO BERRIA*** |
|---|---|
| *9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertzeko errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Ogasun Sailekoak eta kontratu txikienak izan ezik.* | ***9. Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertzeko errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Diru-bilketako Sailekoak izan ezik.*** |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***b) Hobekuntzak:***

- *4.2.1. atalak, udal ondarearen kudeaketaren arloan jasotako eskuordetzak barneratzen dituenak, idazlan berria izango du, ondoko era honetan:*

| ***EZABATZEN DEN PARAGRAFOA*** | ***PARAGRAFO BERRIAK*** |
|---|---|
| *Izapideko egintzak, ebazpenen onarpena eta baita kontratuak formalizatzea ere ondorengo espedienteekiko eta betiere alkatearen eskumenekoak direnean: udal garaje plazen alokairua edo erabilera, administrazio emakidako erregimenaren bidez utzitakoak, udal etxebizitzen alokairuak, lagapenak edo besterentzeko baimenak, eta udal lokalen lagapenak.* | ***- Udal-ondarea kudeatzearekin eta besterentzearekin lotutako espedienteak sustatzea, izapideko egintzak burutzea, ebazpenak onartzea, eta bere kasuan, kontratuak edo hitzarmenak formalizatzea, betiere alkatearen eskumenekoak direnean, baldin eta aurrekontua 600.000 € tik gorakoa ez bada, (BEZik gabe).***<br>***- Udal lokalen erabilera lagatzea edo erabiltzeko baimena onartzea, gehienez ere urtebeterako.*** |

- *4.2.5. atalean, Ogasun eta Finantza Administrazioko Sailean emandako eskuordetzak berraztertu dira, eta ondorengo zuzenketak eta hobekuntzak egingo dira:*

| ***EZABATZEN DEN PARAGRAFOA*** | ***PARAGRAFO BERRIAK*** |
|---|---|
| *- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak agintzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe.*<br>*- Zergak, errentak eta eskubide ekonomikoak bildu eta ikuskatzea; zehazki, hauek:............................*<br>• *Erreklamazioak ebaztea.*<br>• *Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena ematea.* | ***- Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak izenpetzeko mantentzen duen eskumena kaltetu gabe****.* |

- *4.2.11. atalean jasotako aurreneko eskuordetze bereziari emango zaio ondoko edukia:* ***Idazkaritza Orokorreko eta Kontuhartzailetzako titularrek izenpeturiko ziurtagiriei oniritzia ematea****.*

*4.2.11. atalean jasotako bigarren eskuordetze berezia bertan behera utziko da, eta bere ordez, 4.1. atalean, ondoko testua txertatuko da:* ***Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak:...............(azken paragrafoan): Jakinarazpenak: oro har, agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak****. "*

***HIRUGARREN.-*** *Horretaz gain, 1208/2019 Dekretuan emandako hainbat eskumenen araubidea aldatzea beharrezkoa da. Izan ere, Auzitegi Konstituzionalak 2019ko irailaren 19an emandako epaia kontuan hartuz, bitarteko funtzionarioei aginte-eginkizunak betetzeko eskumena aitortzen*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*die. Arrazoi honengatik, karrerako funtzionarioak diren Sailetako arduradun teknikoei eskuordetu zitzaizkien ahalmenak, egoera berdinean dauden bitarteko funtzionarioei onartuko zaizkie.*

***LAUGARREN.-*** *Azkenik, beharrezkotzat jotzen da, era berean, 2019ko 1208 eta 1596 Dekretuetan xedaturikoa bateratzea eta, ahal den neurrian, sinplifikatzea.*

***BOSGARREN.- Akats bat antzeman da otsailaren 11ko 253/2022 Dekretuaren bigarren ebazpenean. Horrela, Begoña Tolosa Mendiaren ordez Egoitz Sorozabal Iturain jauna adierazi behar da Hirigintza Batzordeko presidente gisa, Alkatetza honek 1921/2019 Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta. Beraz, dagokion zuzenketa egin behar da.***

## *APLIKATU BEHARREKO LEGERIA*

*- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena (21.1a, 21.3, 23.4 eta 75. artikuluak).*

*- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena (9. artikulua).*

*- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (25.1, 25.2, 25.3, 25.7, 27., 32.1, 32.2, 33.3 artikuluak eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atala).*

*- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Udal Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena (13. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria).*

*Horiek horrela, alkate honek, honako hau*

## *EBAZTEN DU*

***LEHENENGOA.-*** *Tolosako Udalean hiru lan-esparrutan oinarritutako antolakuntza-eredua onartzea:* ***Antolakuntza, Lurraldea eta Herritarrak****. Lan-esparru bakoitzak barne izango ditu Udalean diharduten eta dagokion esparruarekin lotura duten sailak eta azpisailak, denen arteko koordinaziorako eta plangintzarako aipatutako hiru arloetan bilduz.*

*Hiru esparru horiek, batetik, Udalaren gaur egungo antolamendu-egitura osatzen duten sail/azpisail guztiei dagozkie eta horien jarduera osatzen dute, eta, bestetik, bertan txertatuko dira gobernu taldeak legegintzaldi honetarako aurreikusten dituen aldaketak, guztia jarraian adieraziko den moduan uztartuz.*

***BIGARRENA.- k****ide hauei esleitzea Lan-Esparru bakoitzeko koordinazio orokorrari dagozkion funtzioak arlo horietako arduradun politiko eta zinegotzi delegatu bilakatuz:*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***Antolakuntza:*** *Xabier Balerdi Tolosa.*

***Lurraldea****: Egoitz Sorozabal Iturain.*

***Herritarrak****: Xarles Iturbe Pasaban.*

*Izendatutako zinegotzi bakoitza izango da bere arloko koordinatzailea eta arduradun politikoa, baztertu gabe koordinatzaile horiek nahiz, jarraian adieraziko den moduan, eskumenak eskuordetuta izango dituzten gainerako zinegotziek sail edo azpisail horietan zein gai zehatzetan izan ditzaketen gainerako eskuordetzak.*

***HIRUGARRENA.-*** *Lan-esparru bakoitzak barne dituen sailak eta azpisailak onartzea. Halaber, ondorengo eskuordetze hauek egitea jarraian zerrendatzen diren sailetan/azpisailetan edo zerbitzu eta gai zehatzetan eta hemen aipatzen diren zinegotzien alde (gaien titularra Alkatea denean ez da eskuordetzerik izango):*

***1. Antolakuntza Lan-Esparrua: Xabier Balerdi Tolosa****.*

- *Administrazio Orokorreko Saila. Ondorengo azpisailak izango ditu:*
    - *Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondarea: Xabier Balerdi Tolosa.*
    - *Giza Baliabideak : Xabier Balerdi Tolosa.*
    - *Informatika: Xabier Balerdi Tolosa.*
    - *Erregistroa eta Informazioa, Herritarren Arreta Zerbitzua (UDATE): Xabier Balerdi Tolosa.*
- *Ogasuna eta Finantza Administrazioa: Begoña Tolosa Mendia.*
- *Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Saileko ondoko arloa:*
    - *Hiritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa: Xabier Balerdi Tolosa.*

***2. Lurralde Lan-Esparrua: Egoitz Sorozabal Iturain***

- *Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, eta Ingurumen Sailak ondorengo azpisailak izango ditu:*
    - *Hirigintza: Egoitz Sorozabal Iturain.*
    - *Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa[1]: Patxi Amantegi Zubiria.*
    - *Obrak eta Zerbitzuak: Patxi Amantegi Zubiria.*

***3. Herritarren Lan-Esparrua: Xarles Iturbe Pasaban***

- *Gizarte Zerbitzuetako Saila: Olatz Peon Ormazabal.*
- *Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azoka eta Enpleguaren Sustapeneko Sailak ondorengo azpisailak ditu:*

1Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrendan jasotako sailaren izena aldatzeko prozedura abian jarri behar da.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Garapen Ekonomikoa eta Enpleguaren Sustapena: Begoña Tolosa Mendia.*
- *Turismoa, Merkataritza eta Azokak: Xarles Iturbe Pasaban*

- *Euskara eta Hezkuntza Sailak ondorengo azpisailak ditu:*
  - *Euskara eta Euskaltegia: Xabier Balerdi Tolosa.*
  - *Hezkuntza Politika: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Kirolak: Jose Mª Villanueva Tellería*
- *Kultura, Festa eta Gazteria Sailak ondorengo azpisailak ditu:*
  - *Kultura (Musika Eskola, Bandak eta Udal Biblioteka barne) eta Festak: Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe.*
  - *Gazteria: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Komunitatea eta Gobernantza: Joseba Koldo Ormazabal Lopez.*
- *Berdintasuna: Olatz Peon Ormazabal.*

***LAUGARRENA.-*** *Eskuordetza horiek ahalmen hauek barne hartuko dituzte, dagozkien jarduera eremuetan:*

***4.1. Gobernurako sailetan/azpisailetan, zerbitzuetan eta gai guztietan eskuordetutako eskuduntza komunak****:*

- *Alkatea eta Udala ordezkatzea bere delegazioaren eremuan.*
- *Dagokion saileko/azpisaileko zerbitzuen zuzendaritza politikoa, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, saileko/azpisaileko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko dekretuak ematea, bere delegazioaren eremuan.*
- *Saila/azpisaila zuzentzea eta udal organo eskudunari proposatzea egitura edo egituren aldaketa. Era honetan, eskuordetzaren esparrutik kanpo gelditzen dira Sail eta Azpisailen antolakuntza eta egituraren inguruko ebazpenak. Baita, ebazpen honen betearazpenean, delegatuen artean ebazpenei buruz gerta daitezkeen gatazken ebazpena ere.*
- *Bilerak eta harremanak izatea dagokion batzorde informatzaileko lehendakariarekin eta saileko eta arloko gainerako zinegotzi delegatuekin eta arduradun teknikoekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko, nagusiki arloko koordinazio bileren baitan. Batzorde informatzaileen kasuan, lehendakariari proposatzea bere jarduera- eremuarekin lotutako gaiekiko batzordearen iritzia eskatzea, edo horien berri ematea.*
- *Dagokion sail/azpisaileko modernizazioa eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzea.*
- *Dagokion sailerako/azpisailerako Giza Baliabideetako (GGBB) azpisailari giza baliabide berriak (finkoak nahiz aldi baterakoak) proposatzerakoan edo giza baliabide horien baldintzen aldaketaren bat proposatzerakoan, saileko/azpisaileko zinegotzi delegatuaren beharrei buruzko txostena egitea, arduradun teknikariarekin batera.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Saileko/azpisaileko teknikari arduradunarekin batera dagokion aurrekontuari eta bere kasuan, Ordenantza Fiskalei buruzko proposamenak egitea, helburuak zehaztuz eta horiek ebaluatuz, Ogasun Sailetik finkatutako irizpideei jarraituz.*
- *Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai-zerrendan saileko/azpisaileko gaiak sartzeko proposatzea.*
- *Bere sailari/azpisailari dagozkion ordenantza, araudi eta erabakiak betearaztea.*
- *Kontratu txikiak: bere delegazioko saileko/azpisaileko gaietan bere osotasunean kontratu txikien kontratazio organoa izatea. Eskumen hau egikaritzeko indarreko legediak eta udalak onartutako gainerako araudi eta irizpideak jarraitu beharko dira. Kasu guztietan, zinegotzi delegatuak egiaztatuko du kontratuaren xedea ez dela aldatzen kontratazioko arau orokorrak ez aplikatzeagatik, eta kontratuei buruzko legeriak onartzen ez dituen zatiketak ez direla egiten .*
- *Kontratu txikiak: obra proiektuak edo zerbitzuen edo horniduren memoriak, proiektuak edo baliokideak onartzea, zinegotzi delegatua kontratatzeko eskuduna denean, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.*
- *Gainerako kontratuak: kontratu txikietatik kanpo gainontzeko organoek sustatu behar dituzten kontratazio espedienteen hasiera dagokion saileko/azpisaileko zinegotzi delegatuaren proposamenaren baitan burutuko da, edozein kasutan Idazkaritza Orokorra, Kontratazioa eta Ondare Azpisailarekin koordinatuz.*
- *Gainerako kontratuak: Kontratazio-organoak -Alkatetzak edo Tokiko Gobernu Batzarrak- esleitutako kontratuen inguruko fakturak edo obra ziurtagiriak onartzea, kontratuaren kitapenari dagokiona izan ezik, beti ere sailak edo azpisailak sustaturiko kontratuen kasuan. Onartutako fakturen zerrenda xedaturiko maiztasunarekin igorriko dio dagokion kontratazio-organoari.*
- *Diru laguntzak, bekak, sariak eta beste laguntzak eskatzea eta ematea: eskuordetutako sailari/azpisailari dagozkion gaiekin lotuta, bai beste erakundeek onartutako deialdiak direla-eta Udala onuradun izan daitekeen espedienteak bere osotasunean izapidetzea, bai Udalak deitutako diru laguntza, beka, sari eta bestelako laguntzak emateko prozedurak, norgehiagokan nahiz zuzenean ematen direnak izanda ere.*
- *Diru laguntzak emateko prozeduren eskumen eskuordetzearen baitan, bai Udala eskatzaile eta bere kasuan onuradun bezala dihardueneán, bai hirugarrenen eskaeren aurrean Udalak esleitzen dituenean, ondorengoak hartuko dira eskuordetutzat:*
  - *sinatzea izapideko edo behin betiko dokumentuak, ahalmena gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen-proposamenak eta dekretuak barne.*
  - *Adibide gisa, honako hauek eskuordetzen dira: diru laguntza eskaerak aurkeztearekin lotutakoak dagokien proiektu/memoriekin etab. batera, eta zuriketarako dokumentazio guztiarekin batera, diru laguntzen lerro bakoitzaren oinarriak eta deialdiak onartzea; diru laguntzaren inguruko ordainketa-betebeharra baimendu, disposatu eta aitortzea; zuriketan baino lehen ordainketa aurreratuak egiteko baimena; deialdi bakoitzari dagokionez Balorazio Batzordea osatzea eta kideak izendatzea; diru laguntzaren zuriketa egiaztatzen duen txosten teknikoari oniritzia ematea; orokorrean diru*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*laguntzak egiaztatzeko eta diru laguntzak itzultzeko prozeduren inguruko eskuduntzak; egoki bada, hautaketa-prozesua hutsik uztea eta diru laguntza zuzenetarako hitzarmenak onartu eta sinatzea. Hala ere* ***beharrezkoa balitz deialdi bateratuak bultzatze aldera alkateak onartuko lituzke oinarri orokorrak****.*

- *Jabari publikoan edo, bere kasuan, udal eraikin itxian aisialdiko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, etab.etako jarduera burutzeko eta berau garatzeko materiala uzteko eta erabiltzeko baimena ematea, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan,* ***beti ere saileko eta azpisailetako funtzionario arduradunen esku ez dagoen kasuetan****.*
- *Festa programa, jaialdi eta gainerako edozein motatako ekintzen eta jardueren programazioa, planifikazioa eta onarpena, esleitutako saileko/azpisaileko gaietan, duten gastu-mugaren barruan.*
- *Komunikazioak: oro har, agintari eta erakundeei, eta egunkari eta aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkien sinadurak.*

***4.2. Gobernurako sailetako/azpisailetako, zerbitzuetako eta gaietako eskuduntza espezifikoak (4.1. atalean zehaztutako komunez gain)****:*

*4.2.1. Idazkaritza Orokor, Kontratazio, eta Ondare Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *Udal biztanleen errolda: UDATE Zerbitzuaren bitartez bideratzen diren zuzeneko egintzen kalterik gabe, biztanleen errolda kudeatzeko beharrezkoak diren bestelako egintzak (jarraibideak, etab) zuzenean idazkari orokorrari dagozkionak salbu, eta biztanleen erroldaren kudeaketarekin lotuta onartu beharreko ebazpen guztiak (alta bereziak, ofiziozko altak, etab). Baita sinaduraren eskuordetzea ere erroldako ziurtagirietan (fede publikoaren baitan Idazkaritza Orokorreko titularraren sinadurari oniritzia eman).*
- *Idazkaritzaren menpeko erantzukizun politiko eta teknikoko erregistroak: Udalbatzako Kideen Interesen Erregistroa, Erregistro Orokorra (sarrerak eta irteerak), Udal Intereseko elkarteen erregistroa, etab.*
- *Datu pertsonalen babesaren kudeaketari dagozkion ebazpenak, alkatearen eskumenekoak.*
- *Hauteskundeekin lotutako espedienteak, hauteskunde mahaian mahaikide izateko zozketa izan ezik.*
- ***Alkatearen gain geratuko dira*** *Antolakuntza Lan-Esparrutik bultzatutako edozein hobekuntza antolaketarekiko zeharkako eragina duenean batzorde informatzaileetan, hiru arloetan eta sail/azpisail guztietan, mandatu-plangintzarekin, eta honekin zerikusia dutenekin lotutakoak, urteko araudi planarekin eta antzekoekin lotutakoak, udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzordeko bilkuren espedienteen izapidetzearekin lotutakoak.*
- *Alkatetza honi kontratazio-organo gisa dagozkion ahalmenak eskuordetzea, tokiko gobernu-batzarrari edo zinegotzi delegatuei eskuordetu ez zaizkien gai guztietan.*
- *Udal ondarearen kudeaketa eta eguneratzea bultzatzea.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Udalaren ondasunen inbentario orokorraren osaketa, zuzenketa eta eguneraketa bultzatzea.*
- *Udal-ondarea kudeatzearekin eta besterentzearekin lotutako espedienteak sustatzea, izapideko egintzak burutzea, ebazpenak onartzea, eta bere kasuan, kontratuak edo hitzarmenak formalizatzea, betiere alkatearen eskumenekoak direnean, baldin eta aurrekontua 600.000 € tik gorakoa ez bada, (BEZik gabe).*
- *Udal lokalen erabilera lagatzea edo erabiltzeko baimena onartzea, gehienez ere urtebeterako.*
- *Ondare Azpisailarekin lotutako aurreko espedienteen kudeaketarako eta kontrolerako onartu behar diren izapideko egintzak eta ebazpenak (giltzen kudeaketa, aseguruak, Udalak jasandako kalteen alorrean sortutako ezbeharrak tramitatzea, etab).*
- *Hirugarren batek Udalari erreklamatutako ondare erantzukizuneko espedienteak eta udal ondarearen alorreko kalte-galeren erreklamazio espedienteak: espediente hauek bere osotasunean bideratzea, bere izapideko egintzetan nahiz ebazpenei dagokienez.*

*4.2.2. Giza Baliabideetako Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *Azpisailaren zuzendaritza politikoaz arduratzea giza baliabideen kudeaketa egokia bultzatuz horretarako dagozkion tresnak erabiliaz (aurrekontuaren I. kapituluaren planifikazioa eta kontrola, Lanpostuen Zerrenda, langileen plantilla, organigrama, postuen funtzioen eskuliburua, lan poltsak, giza baliabideen arrazionalizazio planak, etab.).*
- *Tolosako Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartzen dituen Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planak xedaturiko neurrien exekuzioaz arduratzea.*
- *Informatzea langile berriak (finkoak edo denboraldikoak) hartzeko proposamenak, dagokion saileko/azpisaileko arduradun politikoak zein teknikoak beharren inguruko txostena aurkeztu ondoren.*
- *Lan-arriskuez prebenitzeko hartu beharreko neurri guztiak hartzea, bai osasunaz arduratzeari dagokionez, bai lan arriskuen prebentzioari dagokionez (segurtasuna, higienea, ergonomia eta psikologia aplikatua). Segurtasun eta Lan Osasunaren Komitearen buruzagitza. Lan istripuak ikertzea. Aurrekoak betetzeko izapideko egintza guztiak nahiz ebazpenak onartzea.*
- *Langileriaren lan-egutegiaz eta lanaldiaz informazioa ematea alkateak edo Tokiko Gobernu Batzarrak onartu aurretik.*
- *Opor-plana finkatzea sindikatu-ordezkaritzarekin ados jarrita.*
- *Lizentziak, baimenak eta bidezko kalte-ordainak ematea.*
- *Hiru urtekoak errekonozitzea.*
- *Soldata-aurrerapen eskaerei buruzko informazioa ematea.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Funtzionario eta gainontzeko udal langileen jabetza-hartzea, eta lan-kontratuak sinatzea, beti ere Giza Baliabideetako Azpisaileko teknikari arduradunaren laguntza izango du GGBBtako zinegotzi delegatuak.*
- *Tramitezko agiriak sinatzea: Udal langileei dagozkien gaiak (enpresa-ziurtagiriak, hautaketa prozesuetarako epaimahaiko deialdiak, etab.), beti ere eskubideak aitortzeko edo norbanakoen egoera juridikoak errekonozitzeko ebazpenak ez badira.*
- *Lan-diziplina betetzen den ikustea.*
- *Gizarte-ordezkariekin harremanak izatea: informazioa, kontsultak eta negoziazioak, azken hauek alkatearekin batera.*

*4.2.3. Erregistro eta Informazio Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *UDATE Azpisaileko zerbitzuak zuzentzea, programazioari, antolamenduari eta kudeaketari dagokionez, Saileko programa eta zerbitzuak onartzea eta horiek gauzatzeko ebazpenak hartzea eta dagokion jarraibideak eta plangintzak onartzea*
- *Administrazio elektronikoa txertatu eta orokortzea erakundean (espediente elektronikoaren kudeaketa, sinadura elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa, gainontzeko administrazioekin harreman elektronikoak, etab...).*

*4.2.4. Informatika Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *Aplikatu eta ezarri behar diren bitarteko teknologiko eta informatiko nahiz berrikuntza tekniko eta komunikatibo guztiak eta baliabideak arrazionalizatzeko eta egokiago eta koordinazio handiagoarekin planifikatzeko, zinegotzi-delegatuak aztertu eta proposatu beharko ditu Udaleko azpiegitura informatikoaren programazio, antolamendu, kudeaketa eta egiturako eredua, eskumena duen organoak ebatzi dezan.*
- *Udaleko Informatika eta Telefonia azpiegituraren kudeaketa eta administrazioa.*
- *Segurtasun informatikoaren kudeaketa, orokorrean eta Norberaren Datuak Babesteko Legeari eta Segurtasun Eskema Nazionalari dagokionez; etab.*
- *Administrazio elektronikoaren arloan indarreko araudiak xedatzen dituen betebeharrak bete ahal izateko baliabideen plangintza diseinatzea eta ezartzea.*

*4.2.5. Ogasun eta Finantza Administrazioko Sailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Begoña Tolosa Mendiak):*

- *Udaleko zerbitzu ekonomikoak zuzentzea.*
- *Udaleko aurrekontuen proiektuen prestaketan, aldaketetan eta zerga-ordenantzen berrikuspenean laguntzea eta bultzatzea.*
- *Ordainketa-aginduak eta fakturak ematea sinatzea, alkateak ordainketak izenpetzeko mantentzen duen eskumenaren kalterik gabe.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Zergak, errentak eta eskubide ekonomikoak bildu eta ikuskatzea; zehazki, hauek:*
  - *Zerga-errolda onartzea.*
  - *Likidazioak onartzea eta baliogabetzea.*
  - *Zerga eta tasen ordainketak atzeratzea eta zatikatzeko eskaerak ebaztea.*
  - *Berraztertzeko errekurtsoak ebaztea.*
  - *Erreklamazioak ebaztea.*
  - *Hirugarrenen erreklamazioak ebaztea.*
  - *Bahitutako ondasunak besterentzeko baimena ematea.*
  - *Udalari ondasunak esleitzeko ebazpena ematea.*

*4.2.6. Udaltzaingo (Herritarren babesa eta Babes Zibila) Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Xabier Balerdi Tolosak):*

- *Herritarren babesaren edo segurtasunaren gaiaren inguruan sortutako foro desberdinetan parte hartzea eta segurtasun gaiari dagokion jarraipena egitea.*
- *Gai horretan eskumena duten gainontzeko gorputz polizialekin eta Administrazio publikoekin koordinatu eta lankidetzan jardutea.*
- *Zehapen-prozedurak: hiritarren segurtasuna, txakurrak, adikzioen eta droga mendekotasunen gaineko arreta integralari buruzko araudia, etab.*
- *Besteak: salmenta ibiltariko postuak kontrolatu eta jarraipena egitea, arma baimenak, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak, etab.*

*4.2.7. Ingurumena Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi Amantegi Zubiriak):*

- *Lurzoru urbanizaezinaren kudeaketa eta bertan hirigintza-diziplina kontrolatzea.*
- *Jasangarritasuna: energia-jasangarritasuna, hondakinak eta natura baliabideak. Ingurumena babestea.*

*4.2.8. Obra eta Zerbitzuetako Azpisailean, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi Amantegi Zubiriak):*

- *Azpisaileko zerbitzu publiko propioen eta azpikontratatutakoen planifikazioa, kudeaketa eta jarraipena.*
- *Auzoak: harremanak izatea dauden edo izan litezkeen auzo elkarte eta kolektiboekin, hain zuzen, haien beharrak (azpiegiturak, etab.), ahal den neurrian, ase ahal izateko.*
- *Proiektuak, obrak eta azpiegiturak onartzea, delegazioaren esparruaren barruan.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

*4.2.9. Mugikortasuneko zerbitzu bereziari dagokionez, gainera, jarraian adierazten direnak (Patxi amantegi Zubiriak):*

- *Herriko trafiko-fluxua, aparkaleku-arazoa, etab. aztertu zerbitzuaren teknikari arduradunarekin batera, eta proposamenak egin.*
- *Trafikoari buruzko zehapen-prozedurak eta mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko txartelak.*
- *Bidaiarien garraio publikoa (bidaiarien hiriko zerbitzuak eta auto-taxiaren zerbitzua).*
- *Ibilgailua bide publikoan abandonatzeagatik bideratu beharreko espedienteak.*
- *TAO eta garabi zerbitzuak ikuskatzea.*

*4.2.10. Bereziki aipatzen ez diren gainerako sailetan/azpisailetan indarrean dagoen izapideen manualera bideratzen da, Dekretu honen 4.1. puntuan jasotako ahalmenekin.*

***4.2.11. Delegazio Berezia: Dokumentuen sinaduraren eskuordetzea**: Xabier Balerdi Tolosa, Antolaketako zinegotzi delegatua. Dokumentuen sinaduraren eskuordetzea ondorengo jardun-eremuan:*

- *Ziurtagiriak: fede publikoaren baitan Idazkaritza Orokorreko eta Kontuhartzailetzako titularraren sinadurari oniritzia ematea.*

***Bai 4.1. atalean zehaztutako eskuduntza komunak garatzeko bai 4.2. atalean zehaztutakoak zinegotzi delegatu bakoitzari dagokion sail/azpisail, zerbitzu eta gaietan eskuordetutzat ulertuko da izapideko zein behin betiko dokumentuak sinatzea, delegazioa gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpen proposamenak eta dekretua barne.***

***4.3. Sailetako arduradun teknikoei -funtzionarioei- eskuordetzen zaizkien ahalmenak:***

- *Orokorrean, jabari publikoa okupatzeko baimenak edo erreserbak ematea:*
  - *Kaleko salmenta, postuak barne, azokak izan ezik.*
  - *Instalazio xumeak: mahaiak, standak, etab.*
  - *Leidor aretoaren erabilera ohikoa.*
  - *Zerkausiko meriendak.*
  - *Orokorrean, zerbitzu teknikoen txostenik behar ez duten erabilerak.*
- *Orokorrean: dagokien saileko komunikazioak izenpetzea, tramiteko gaiak direnean: ofizioak, dokumentazio osagarria aurkezteko errekerimenduak, kontsulten erantzunak, beste administrazioei egindako komunikazioak (ebazpenen jakinarazpenak ez direnean), etab.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

- *Udaltzaingoko Ofiziala:*
  - *Belena patioa erabiltzeko baimenak edota erreserbak.*
  - *Abere arriskutsuen baimenak*
  - *4. kategoriako armak edukitzeko baimena*

***BOSGARRENA.-*** *Erabakitako Delegazioen Araubidea honako hau izatea:*

- *Alkateari dagokio zinegotzi delegatuen jarduera koordinatzea eta haien arteko eskumen arazoak ebaztea.*
- *Ordezkaritzaren eremuaren barruan erabili behar dira emandako eskuduntzak eta bere titularrak ezingo ditu beste zinegotzi edo organo baten esku utzi.*
- *Eskuordetzaren bidez harturiko ebazpenak alkateak –jatorrizko eskumenaren titularra– emanak bailiran hartuko dira eta, ondorioz, hura jakinaren gainean egonda, exekutagarriak dira eta zilegitasun-presuntzioa izango dute.*
- *Zinegotzi delegatuek erabilitako eskuduntzen berri emango diote alkateari beharrezkoa den maiztasunarekin, eta gutxienez astean behin.*
- *Izan daitezkeen gai garrantzitsu edo gatazkatsuetan erabaki bat hartu aurretik, zinegotzi delegatuak alkatearekin kontsultatuko du.*
- *Ordezkaritzak ez du epemugarik, eta iraungo du ezeztatu arte, Alkatetza honek bere agintaldia amaitu arte edo zinegotzi delegatuek espresuki bere karguari uko egin arte, eta, kasu guztietan, legealdia amaitu arte.*
- *Alkatetza honek, eskuduntza emate hau aldatu edota ezeztatu ahal izango du, hala irizten dionean. Alkateak eskuordetutako eskumenak edozein unetan bereganatu ahal izango ditu, egokitzat hartzen duen zabaltasunez. Eskuordetutako agintariek emaniko ebazpenak, ekintza administratiboak ofizioz berrikusteko aurreikusitako moduan berrikusi ahal izango dira.*
- *Zinegotzi delegatuak bere eskumen eremuko gaietan emandako ebazpen administratiboen testuan agertu behar da ebazpena delegazioz emanak direla, eta, delegatu gabeko gaietan, alkateak emandako ebazpenaren balio bera izango dute. Beraz, harturiko erabakien azalpen zatian ondorengo testua ipiniko da egoeraren berri ematearren: «**Horregatik guztiagatik, Udal honetako alkateak emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta**».*
- *Zinegotzi delegatuek emaniko ekintzak berraztertzeko errekurtsoen bidez errekurritu ahal izango dira. Berraztertze helegiteen ebazpena alkateari dagokio, Ogasun Sailekoak eta kontratazio arlokoak izan ezik.*
- *Zinegotzi delegatua ez dagoenean, ordezkaritza eman gabe dagoenean, gaixorik dagoenean edo aritzeko beste edozein ezintasuna duenean, Alkatetzak, eskuduntzen jatorrizko titularra den aldetik, bere gain hartuko ditu, zuzenean eta automatikoki, delegatutako eskuduntzak, hartarako berariaz ebazpenik eman gabe.*
- *Sailetako teknikari arduradunen eskuetan jarritako ahalmenen araubide juridikoari dagokionez, hemen xedaturikoa aplikatuko da analogiaz, kasua denean.*

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***SEIGARRENA.-*** *. Eskuordetza hauek ondorengo egunetatik aurrerako eragina izatea:*

- *Xarles Iturbe Pasaban: otsailaren 1etik.*
- *Gainontzeko zinegotzi delegatuak: izendatuak izan zirek datatik.*

***ZAZPIGARRENA.-*** *Dekretu honen berri dagokien zinegotziei ematea, egoki iritziz gero, onar dezaten. Zinegotzi bakoitzak onartu duela ulertuko da, baldin eta haren aurka ez badu ezer adierazten Dekretu hau jakinarazi eta hurrengo bi eguneko epean.*

***ZORTZIGARRENA.-*** *Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Iragarki Taulan jartzea.*
***BEDERATZIGARRENA.-*** *Dekretu hau Dekretuen Liburuan transkribatzea.*

*Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

***Alkate-lehendakariak agindua eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.***

***ALKATEA*** ***Nire aurrean,***
***IDAZKARIA***

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

**13.<u>BEHIN BETIKO ONARTU IZANAREN BERRI EMATEA: KIROLETAKO ORDENANTZA ESPEZIFIKOAREN DIRULAGUNTZA. 1. ETA 2. ERANSKINEN OINARRI BERRIAK</u>.**

Udalbatzarrak, 2021eko azaroaren 25eko Ohiko osoko Bilkuran, aho batez, hasierako onarpena eman zion kiroletako Ordenantza Espezifikoaren 1. eta 2. eranskinetako oinarrien erredakzio berriari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 49. artikuluan xedatzen duena betez, onarpen hori informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar lanegunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hasierako onespeneko iragarkia ondoko hedabideetan argitaratu da:

-Web orrian 2021ko abenduaren 10etik urtarrilaren 21arte.

-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2021eko abenduaren 9an, 234 zenbakian.

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

-Udaletxeko iragarki taulan 2021eko abenduaren 10etik 2022ko urtarrilaren 21arte.

Informazioa publikoko epean ez da inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu, beraz, behin betiko onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## 14. BERRI EMATEA: 1/2022 KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA

2022/456 Alkatetza dekretuaren berri eman da. Honelaxe dio:

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak*

*Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2022-KALD-000001-00 zenbakiduna,*

*Ikusita Kontu-hartzailearen 2022ko otsailaren 18ko txostenean eta onarpen proposamenean 2022ko otsailaren 16an 2022/350 zenbakidun Alkate dekretu bidez onartu zen 2022-KALD-000001-00 kreditu txertaketarako espedientean zuzenketa batzuk egin direla,*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32.6. artikuluaren bitartez, kreditu txertaketa onartzeko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau*

***EBAZTEN DUT***

***Lehenengoa**.- 2022ko otsailaren 16ko 2022/350 zenbakidun Alkate dekretua eraginik gabe uztea.*

***Bigarrena**.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2022-KALD-000001-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

***GASTUAK***

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 4 | *TRANSFERENTZIA ARRUNTAK* | *449.837,21* |
| 6 | *INBERTSIO ERREALAK* | *882.716,21* |
| 7 | *KAPITAL TRANSFERENTZIAK* | *4.713,79* |
| ***TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA*** | | ***1.337.267,21*** |

ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87

***FINANTZAKETA***

| ***Kapituluak*** | ***Izena*** | ***Zenbatekoa*** |
|---|---|---|
| *8* | *FINANTZA AKTIBOAK* | *1.337.267,21* |
| ***FINANTZAKETA GUZTIRA*** | | ***1.337.267,21*** |

***Hirugarrena**.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.*

*Alkatea*
*Olatz Peon Ormazabal*

*Idazkaria*
*Begoña Garmendia Vázquez*

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**15. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 20:55ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU51393f4c-d007-4e23-a5cf-3e27420f8c87**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2022IPLE0002-2022-02-23 Ohiko Osoko bilkurako akta/2022-02-23 Ohiko |
|---|---|

Data / Fecha: 2022/03/15 13:32:23
Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M

Data / Fecha: 2022/03/16 16:25:42
Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)